

XIII. GERRIKO IKERLAN-BEKA

Antolatzaileak:



GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA
Kultur Elkartea



MAIZPIDE EUSKALTEGIA



LAZKAO UDALEKO
KULTUR BERTZORDEA

Laguntzaileak:



Lazkao, 2008

☪ Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea

Antolatzaileak:	<ul style="list-style-type: none">• Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea Elosegi 16, 1.a esk. 20210-LAZKAO Telef. 943-16 02 82 gee@euskalnet.net• Maizpide Euskaltegia Elosegi 40-bis Telef. 943-88 92 31 20210-LAZKAO• Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea Euskadi Enparantza z/g 20210-LAZKAO Telef. 943-08 80 80
Koordinatzailea:	Mari Joxe Madariaga Irastortza.
Zuzendari Zientifikoa:	Jokin Apalategi Begiristain. Psikologia Sozialeko Katedraduna
Euskara zuzentzailea:	Dionisio Amundarain.
Argitaratzaileak:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala.
Laguntzaileak:	Gipuzkoa-Donostia Kutxa eta Euskadiko Kutxa.
Egileak:	Nerrea Elias Mujika eta Ainara Gorostitzu Mujika.
Logotipoaren egilea:	Amaia Galarraga Urteaga.
Inprimategia:	Lizarra inprimategia.
1. argitalpena:	2008ko irailean.
I.S.B.N.:	84-934718-1-X
L.G.:	NA. 3.005-2008

JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitarateko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizal etxeko koadro bati ateratako argazkia.

ANTOLATZAILEEN SARRERA:
1936KO GERRA ATAUNEN ETA GOIERRIKO
INDUSTRIA AZTERGAI

Gerriko Ikerlan Bekaren XIII. edizioaren bi emaitzekin gatoz gaurkoan, bildumako 19. eta 20. liburukiekin.

Edizio horretara aurkeztu ziren proiektuak hauek izan ziren:

- *“Zubi bat eraikitzen. Ataungo XX. Mendearen erdiaren erretratua”*
- *“Industriaren eraldaketa prozesuaren inguruko kezka Goierriin ere”*
- *“Otzaurte-Igartza Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak, 1858-1900”*
- *“Arbel-herria (Itsasondoko Arbelaren Historia Txikia)”*

Lau proiektu horiek epaitzeko epaimahaia jaun hauek osatu zuten:

- **Mikel ZURBANO IRIZAR jn.**, EHUko ekonomia irakaslea eta UZTARO aldizkariko erredakzio-kontseilukidea.
- **Jose Inazio IMAZ BENGOETXEA jn.**, Soziologian Doktorea eta EHUko irakaslea.
- **Xabier ITÇAINA MALHARIN jn.**, Bordeleko Institut d’Etudes Politiques-n CNRSeko ikerlea zientzia politikoetan (CERVL, Pouvoir, action publique, territoire).

Aho batez hartu zuten erabakia eta bi proiektu saritu zituzten. Proiektu horiek ikerlan bihurtuta, izenburua ere aldatuta, eta argitaratuta dituzue eskuartean:

“Eta gerra etorri zen. 1936ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan”, Nerea Elias Mujika eta Ainara Gorostitzu Mujika.

1. saria

“Goierriko egitura industrialaren erradiografia”,

Jone Ormazabal Zabaleta.

Akzesit saria.

Azterketa sakon eta zorrotzak egin dituzte hiru ikertzaileek. Lehenengo biek gure oroimen historikoa berreskuratzen laguntzeko lana egin digute. Sarritan, berek pasarte askotan aipatzen duten moduan, beldurraren eraginez, geure herrietan bizitutako historia eta bere ondorio gorriak, askotan gure egunetaraino iritsi direnak, ezkutatu egin zaizkie ondorengo belaunaldiei eta, ikerlan honen bidez, Ataunen gertatuaren argazki bat behintzat izango dugu hemendik aurrera. Espainiako gerrak utzi zituen ondorio latzen azalpena ematen digute Nereak eta Ainarak, Ataundik begiratuta, baina beste herri askotan errepikatuko lirartekeen datuak ere emanez. Belaunaldi desberdinen arteko transmisioan, gaur egungo gizartean ia lekurik ez duen arloari heldu eta ekarpen polita egin diote: jakin dezatela gaur egungo gazteek eta ondoren etorriko direnek, Ataunen eta inguruetan, zer gertatu zen 1936an. Hego Euskal Herriko herri bakoitzak idatzi behar luke orduan gertatutakoaren berri, izan ere, hori ezinbestekoa baita ondorengo gure historia ulertu ahal izateko.

Joneren ikerlana beste gai eta interes batekoa da. Gaur egungo Goierriko industriaren azterketa egin, enpresak eta kooperatibak aztertu eta egoeraren berri ematen digu. Nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakin nahi duenak edota aztertzen jarraitu nahi duenak, hau da, lehena aztertu eta etorkizunean eragin nahi duenak, erreferentzia polita aurkituko du liburu honetan.

Egin duten lanagatik zorionak eman nahi dizkiegu, lehenik eta behin hiru ikertzaileei. Zorionak eta eskerrik asko Gerriko Ikerlan Bekako liburuaren bildumari hain gai interesgarriak eta mamitsuak eransteagatik.

Epaimahaiko kideoi eta Zuzendari Zientifiko karguan berria dugun Jokin Apalategi Begiristaini ere zorionak eta eskerrik asko zuen lanean fin aritzeagatik eta bai ikertzaileei, bai antolatzaileoi, eman diguzuen laguntzagatik. Askok ikasi dugu zuekin lanean arituta.

Hizkuntza-zuzentzaile dugun Dionisio Amundarain Sarasola ere zorrotz aritu da bere lanean eta argitalpenetan antzematen da bere lana. Maila honetako ikerlanek gaien azalpena euskara txukun eta zuzenean ematea garrantzitsua denez, hizkuntza aldetik orrazketak egiteko arduraduna behar-beharrezkoa izaten da. Ondo baino hobeto orraztu eta dotore baino dotoreago aurkeztu dizkigu Dionisiok.

Hiru erakunde antolatzaileok, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala, talde-lanean aritu gara, geure

lanaz arduratuta eta aurrera ere horrelaxe jarraitzeko asmoa eta interesa agertu nahi dizkizuegu.

Aipatu dugun talde-lan horretan partaide diren erakunde batzuk ere izendatu nahi ditugu sarrera hau bukatzerako. Aipatu eta eskerrak eman, halaber, dirulaguntza eman digutenei, dirua ere ezinbestekoa baita ikerlanen bilduma osatzerakoan: eskerrik asko Gipuzkoa-Donostia Kutxa Fundazioari eta Euskadiko Kutxari. Industriaz egindako lana argitaratzeari dagokionean, eskerrak halaber Goiekiri (Goierriko Ekimenaren Garapen Agentzia) ere.

Zuri, irakurle, on dagizula irakurketak!

Andoni Sarriegi,

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteko Lehendakaria.

Marian Bidegain,

Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria.

Xabier Arrasate,

Lazkaoko Udaleko Euskara Batzordeburua.

1936KO GERRA ATAUNEN

SARRERA

Gerriko Ikerlan Bekaren Zuzendari Zientifiko izatera ustekabe mingarri baten ondorioz ailegatu nintzela aitortu behar dut. Anaia Joxemartin bat-bateko heriotzak eramatean, hark kudeatzen zuen Gerriko Ikerlan Bekak jarraipena eskatzen zuela eta gainerako elkartekideek Joxemartinen senidearen baitan berme hori behar bada errazago ikusi zutelako, alegia. Gerriko Ikerlan Beka bere begietako lili estimatu zela hainbat urtetan agertu zidanagatik garbi neukan erantzuna. Aldian aldiko ikerketaren ondorengo fruitu bezala ateratako liburu guztiak bere eskutik jasoak bainituen. Gainera, nik neuk IV. edizioan epaima-haikide izatean beka emateko orduan segitzen zen prozesu-ekimenaren seriotasuna ere konprobatuta neukan. Baina, oraingoan, hasieratik amaieraraino prozesu osoa, zabal-luzean, ardura ukanez bizitzean, Joxemartinen garaitik elkar-tearen egiturari rol zehatzak dauzkaten Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Mari Joxe Madariaga, Marian Bidegain eta Xabier Arrasate, bakoitza bere arloan, zein kompetente eta beharrezko diren ikusi dut. Inor ez dago sobera. Bakoitzak bere eginbehar jakina betetzen du. Oro ongi filmatutako paperean nahi bezala mugitzen da. Zorionak aipatutakoei egiten ari zareten lan eskergatik!

SORTZAILEENTZAT LEHIAKETA

XIII. edizioan sartuta, Gerriko Ikerlan Bekan lehiatzeko deia zabaldu zen 2006ko otsailaren 21ean. Betiko baldintzak errepikatu ziren: proiektua aurkezteko ez da zertan goierritar izan beharrik, baina Goierriekin zerikusia izan behar du ikerlanaren gaiak, zientziaren edozein alorretakoa izan daitekeela ere. Maiatzaren 6rako aurkeztu behar ziren, 15 orrialdetan zehaztuz,

proiektuak. Lau proiektu agertu ziren. Usadioari jarraituz, jasotako lanen arabera izendatu zen epaimahaia. Honela, antolatzaileok Mikel Zubano (unibertsitateko ekonomia-irakasle), Jose Ignazio Imaz (unibertsitateko soziologia-irakasle) eta Xabier Itzaina (unibertsitateko politologia-irakaslea eta ikerlaria) hautatu genituen eginkizun horretarako. Antolatzaileek eta epaimahaikideek ekainaren 23an prentsaurreko baten bidez adierazi genuen XIII. edizioako irabazlea: Nerea Elias Mujika eta Ainara Gorostizu Mujika proiektuaren egileen «Zubi bat eraikitzen. Ataungo XX. mendearen lehen erdiaren erretratua» deituriko ikerlana, hain zuzen. Gero, ikerketan zehar, bidezko izan ohi den bezala, lana gauzatu hala izenburuak ere berrikuntza ukan du. Honela, esku artean duzun liburu honen izenburua jalgi da: «Eta gerra etorri zen, 1936ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan». Ikerlan honen ekarpenak eta merituak komentatzera igaro aitzin, hala ere, esan dezagun bigarren proiektu baten interesak «accesit» bat ematera bultzatu zituela epaimahaikideak eta antolatzaileak. Honela, Jone Ormazabal Zabaletaren «Goierriko egitura industrialaren erradiografia» proiektua ere ikerlan lagundua izendatu zen.

ATAUNGO OROITZAPEN HISTORIKO BATEZ ERAIKUNTZA ZIENTIFIKOA

Gure ikerlari pare gazteak modu zoragarri bezain konbentzigarrian landu du Ataungo aldi baten oroitzapen historikoa, alor bera hiru lerrotatik goldearekin ildokatuz: historiografia, artxibategia eta lekuan lekuko adierazleen intimitateak bilduz eta erabiliz, alegia. Udalerrri gutxik edukiko du Ataungoak adina historiografia argitaraturik. Liburuaren bibliografia-atalera begirada bat botatzea aski da honetaz jabetzeko eta konbentzitzeko. Gainera, garrantzizkoak eta kasurako ezinbestekoak diren guztiak hor badaude ere, bada beste liburu andana bat Ataun «gaiaz». Besteak beste, eta adibide soil bat emateko, Gerriko Ikerlan Bekarekin burutu eta argitaratutakoak, baina baita Ataungo Udalak kudeatzen duen Ataun Aztergai Bekaren ondorioz plazaratutakoak ere. Gainera, hainbat ataundarrek, han-hemen, Euskal Herriko edo atzerriko argitaletxeetan beren herriaz edo pertsonal bizi-oroitzapenez idatziriko obrak daude.

Oraingoan gure ikerlari pare gazteak 1936ko gerrak Ataunen edukitako eraginaren inguruan dauden aipamen gehienak bilduz ikerlaneko xedearen ardatzean txertatu dizkigu. Gerra aurreko Ataunen langintza tradizionalak ziren nagusi. Artzaintza oinarrian, haren osagarri baserri-lana hedatzen joana

zen bizimodu bezala lehentasuna hartzeraino, baina horrekin ikazkintza ahaztu gabe; taldeka lan eginez ikazkin-buru bat eduki ohi zuten eta, pazkoa hirugarren egunetik udazkena arte basoan egoten ziren. Honek guztiak gainegitura egiten zuten apezak, maisuak, sendagileak eta botikariak zeuzkan. Baina hogeigarren mendearekin fabrikak eta fabrikanteak agertu ziren auzoko herrietan eta ataundarrak fabriketara lanera joaten hasi ziren, nahiz apezaren eraginez parte handian mesfidantzaz ikusten zen lanbide berri hori neurri handi batean. Gerra aurreko urte haietan fabrikarekiko ikuspegi ilun hura hogeita hamarreko hamarkadaren hasieran CAF lantegian eman zen lehen lan-krisiarekin konfirmatuta eta areagotuta gertatu zen. Horiek horrela, ez da gogoeta sakonik behar jabetzeko ataundarrak balio kontserbadoreen itzalean lerrokaturik zeudela. Hala ere, ikuspegi tradizional zaharragoa eta berriagoa eratu ziren kontserbadurismo berean. Lehena, karlismoak ordezkatzeko zuen eta, bigarrena, lehen nazionalismoak. Horrela, gerrarekin politikak erreferentzialitatea elizari kentzean, bi ikuspegiak lehian eta gatazkan lerratu ziren. Ataungo elizgizonak, berriz, zubi gertatu zitezkeelarik, alde batera edo bestera eginez beligerante bilakatu ziren jendea zatikatuz. Ataunez daukagun bibliografiarekin hau guztia erraz ilustratzen da.

Historiografiaren ekarpenari puntua eta kontrapuntua jartzeko edo beste informazio iturri batzuk miatuz landu dizkigute. Alde batetik, gure ikertzaile pareak tradizioz zaharra deitu izan dugun jendea, hots, karlistak (gero erregimen berriaren aginduetara jartzean falangera ere egokitzen ikusi ahal izan direnak) gerra-garaian euren boterea nola praktikatu zuten agertu digu, Ataungo Udalaren artxiboetan gorderik dauden gerra garaiko hainbat erabaki ezagutzera emanek. Egia da, beste hainbat berri jakingarri ere egon daitezkeela Ataungo karlista-falangista horien egitatez urrunagoko beste artxibo batzuetan. Hasi Euskal Autonomia Erkidegoko elizbarrutietakoetatik eta Ordizia, Tolosa eta Donostiako artxiboak, Gipuzkoako artxibo orokorra, Gipuzkoako Foru Aldundiaren artxiboa, Gipuzkoako Gobernu Zibil eta Militarreko artxiboak eta Espainiako Estatuak gerra zibilar buruzko dokumentuak gordetzen dituen hainbat artxibo (Salamanca, Guadalajara, Madril eta abarretakoak) ikustekoak izango lirатеke, noski. Baina, hasteko eta behin, gure ikertzaile pareak ekarri diguna ez dago batere gaizki. Gainera, esango nuke gertatuaren muina harrapatuta daukatela nagusiki euren ikerlanean. Bestalde, tradizioan berritzaileak izan direnak ikertzen dizkigute. Eta hori egiteko berriemaileak aurkitu eta elkarrizketatu dituzte. Izan zitezkeen gehiago. Baina ekarpen kualitatiboki txikia egingo luketen neurrian bakarrik faltatuko lirатеke. Zeren kuantitatiboki zerrenda luzatzeak ez lioke lanari

ezer areago erantsiko. Barne-mundu aberatsa eta zehatza agertu digute. Isilean eta era fragmentarioan zegoena bilduz eta ordenatuz lekukotasun bikainak eraiki dizkigute. Hizkuntza xumean, euskara batua eta fidagarriki emandako Ataungo hizkera gurutzatzen dizkigute. Eta antzemate bat kontsideratzen dugu ikerlanaren narrazio testua euskara batuan dagonean aldiz berriemaileen diskurtsoa Ataungo hizkera ahoskatzen den bezala transkribaturik agertzea.

HARTZAILEAK GARA HASTEKO

Besteek emandakoa jasotzen igarotzen dugu gizabanakook bizitzaren partetik handiena. Hasi ere ezin baikara hasi ezerezetik, laguntza ezinbestekoa dugu beti. Fisikoa bezala intelektuala eta morala. Geroago zutitzeko gai izaten garelako, norbait eta zerbait garela uste izatera ailega bagintezke ere, elkarkidetzaren saretik at eta bakarka bizi gaitetzkeela pentsatzeko tentazio hutsari inozokeria deritzat. Arduran eta gogoetan norberaren baitako izatea helburu badugu ere, bizitzan, amodioan eta gorrotoan interaktibo izan beharra tokatzen baitzaigu existentzia osoan. Bizitza interaktibo hori errazteko usadioak eta lege sozialak sortu izan dira. Eta horietaz jabetzeko imitazioan trebatzen gaituzte haurtzarotik. Are, ikasbide orotan imitatzailerik onak, gorai-patuz, eredutzat jartzen digute. Azkarra eta jakintsua deituko zaio horretara ongi egokitzen denari. Xeheenetik katramilatsuenara eginez, hurrenez hurren, imintzioak, ideiak, ohiturak eta sinesmenak kopiatzen eta errepikatzen ikasten dugu. Baina, aldizka, norbanako eta kolektibo bezala gizarte berrikuntzen bidegurutzan aurkitzean, ezbaiak sortzen zaizkigunean, imitazioz kanpoko den eta landu ez gaituzten alorrean trebetasuna eskatzen zaigu, hots, norabide jakinak egoki hartzeko arrazoitzen jakin behar izaten dugu. Gure pasioak, emozioak eta sentimenduak arrazoiak ongi erabiliak daudenean bakarrik gerta baitaitezke, ura errekan bezala ubidetuak. Eta kausak eta efektuak lotzen ikastearekin suminaldietatik ateratzeko trebatuak gertatu ohi gara. Eta korrelazioekin jostatzeko lain sentitzean espiritu zientifikoaren jabe garela ikusten dugu geure burua.

HALA ERE EZ GARA HARTZAILE HUTSAK

Usadioan bizitzea dugu norma, baina, noizbehinka ohikoaren barrenetik hausturak ematen dira. Hausturan bizitzea, ordea, ez dugu aldi laburreko grina baizik. Luzatzen hasten denean jasanezin egiten zaigu. Argi dago,

bada, haustura guztien jomugan ohitura ziklo berri bat eraikitzeke desioa eta beharra egon ohi direla. Haustura plano intelektualean kausitzen denean, ondorioz gauzatutako emaitzari sortzaile txartela egotzi ohi diogu. Baina sor-kuntza oro, aurrez metatuaren gainean irristaka egitea denez, ordenamendu berri baterako deia izan ohi dugu beste edozer baino lehen. Orduan, argi dago oroitzapenik gabe jakitaterik ezin eman dela. Baina jakitaterik gabe norabiderik eta helbururik ere ez. Azken funtsean, gizabanakook, nola nor-banaka hala kolektiboki, oroitzapenean oinarritutako izakiak garelara onartu beharra beste irtenbiderik ez zaigu gelditzen plano arrazionaletik planteatzen dugunean arazo hau eta bestela denean zoom hutsera itzul gintezkeela noiz-nahi. Oroitzapenak, berriz, maneatu egiten dira. Horretarako tresneria desberdinak erabili ditu giza banakoak bere historia aldietan. Honela, gure Euskal Herrian hain indartsu eta nabarmen iraun duen ahozketasunak oroit-zapenak aukeratu eta transmititu egin bide zituen. Eta bikain ere, bikain lor-tzen zuen. Baina hori aro garaikidean amaitzen ikusi dugu. Aro garaikidean gure gizarteek hartu duten abiada iheskorrean hainbat motako eta askotariko gertakizunekin aurkitzean ahozketasunaren tresneria bakun geratzen baita erabaki hartze anitzei eta lasterre aurre egiteko orduan. Irizpide zorrotz eta korapilatsuak eskatzen baitzaizkigu selekzioa eta transmisioa zein elementu-rekin egin behar dugun jakiteko orduan. Aldi berean oroitzapenak lantzeko tresneria berriak heldu zaizkigu: zientziak dakarzkigunak, alegia. Hortik datorkio Gerriko Ikerlan Bekari egokiera. Aro garaikideak eskatzen duen neurriko tresneria zientifikoaz oroitzapen eraikuntzak egiteko aukera ekarri baitie Goierriko herritarrei. Plataforma inbidiagarria. ageri zaigu eskualde sendo bezain dinamiko bati jakitatean oinarrituriko norabide ziur eta helbu-ru zehatzak seinalatzeko eginbeharrean.

JOKIN APALATEGI,
Psikologia Sozialeko Katedraduna

Eta gerra etorri zen

**36ko gerraren eragina Ataungo
eguneroko bizimoduan**

Nerea Elias Mujika
Ainara Gorostitzu Mujika

Simona Etxeberria zenari

AURKIBIDEA

HITZAURREA	23
BERRIEMAILEAK	29
BASERRITAR ETA FEDEDUN. GERRA AURREKO ATAUN	35
GERRAREN HASIERA	53
«Ollok gea gu». Erresistentzia eza.....	55
Argia piztu gabeko gaua. Ezkualdiak eta ihesaldiak	57
« <i>Purga rápida y efectiva</i> ». Fusilatzeak	58
GERRA LEHEN LERROTIK	69
Ataun pasabide	70
Armak hartzera.....	71
Gerra Gipuzkoan	75
Gerra Bizkaian	75
Teruelgo gudua.....	78
Ebroko gudua	79
Madril hartzea	82
Gerran hildakoak.....	83
Kartzela	84
Militarizatuak	85
GERRA ATZEKO LERROTIK	89
«Motxailea jarri zien izena». Zigorrak	96
Gerran hildakoei egindako ohorezko ekitaldiak	101
Gerrako agiri ez-ofizialak	106

«ERBESTEKO OGIA MINGOTSA DA». ERBESTEA.....	111
ERREGIMENA EZARTZEN	121
Katoliko, Apostoliko eta Erromatarra. Eliza.....	124
Fusilak eta arkatzak. Hezkuntza	129
Euskara	132
Emazte, ama, moja. Genero sistema	135
GERRA OSTEA	147
Gosea eta miseria. Gerraren ondorio ekonomikoak	147
Ogi beltza. Errazionamendua.....	148
Ezkutaketan. Ekoizpenaren aitortpena.....	154
Estraperloa.....	158
HITZATZEA.....	169
OHAR METODOLOGIKOAK.....	173
BIBLIOGRAFIA.....	175

HITZAURREA

«Eta ordun gerrea etorri zan», izan liteke berriemaileekin izandako solasaldietan gehien errepikatu den esaldia. 36ko gerra mugarria da garai hura bizi izan zutenen bizitzetan, bitan apurtu zituen gerrak haien biografiak.

Lan honen abiapuntua XX. mendearen lehen erdialdeko Ataungo erretratu egitea zen, hasiera batean. Garai hartako ataundarren egunerokotasunaren berri ematea. Zuzeneko lekukotasunen bidez ezagutu dezakegun azken belaunaldiaren bizimodua erretratatzea. Bi belaunaldi atzera egin, eta aitona-amonon haurtzaroa eta gaztaroa ezagutzea. Haur eta gazte ere izan zirelako. Eta beren zuzeneko lekukotasunekin soilik ezagut daitekeelako benetan iraganeko garaiak nolakoak izan ziren. Liburu honen egileen amona, Simona Etxeberria, nola bizi zen. Bera eta bere garaikideak. Nolako herria zen, zer amesten zuten, zer sentitzen, zer baloratzen zuten, zerk egiten zituen zoriontsu, zerk tristetzen. Zuzeneko lekukotasunek eraiki dezakete iragana, eta ez gaur egungo ikuspegiarekin ordukoaz egiten diren suposizioek –aurreraka goazen ustean eta garai hobeak bizi ditugun ideian oinarritutako suposizioek—. Kezka horrek abiatu zuen lan hau. Eta hori izan zen elkarriketatuei egindako lehen galdera: «Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?»

Baina haurtzaroaren erdian ez bazen, gaztaroaren erdian gerra etorri zen. «Eta gerrea etorri zan». Eta arnasa hartu eta burua jaso eta kontatzen jarraitu dute berriemaileek. Mugarri bat izan zen gerra. Lehenaren eta geroaren artean. Eta mugarri horrek lan honen bidea aldatu zuen. XX. mendearen lehen erdialdeko erretratu egitetik, 36ko gerra hark eguneroko bizimodua nola aldatu zuen aztertzeraz.

Lehenaren eta geroaren artean, bizitzen jarraitu beharra izan zuten. Lan egiten, ikasten, amesten, sentitzen. Baina egunerokotasun berri bat eraiki beharra izan zuten 36ko gerraren ondorioz. Eta egunerokotasun berri hori aztertu nahi izan du lan honek. Aldaketa. 36ko gerra mugarri izan zen aztertu-

ko den belaunaldiaren biografian, eta, ondorioz, lan honetan ere mugarri izango da, baina ez oinarri. Eguneroko bizimodua baita ikerketa honen mui-na.

36ko gerraren inguruan egindako lanetan gerra borroketara mugatzen di-ra hainbat egile, nagusiki. Lehen lerrora, armetara, data zehatzetara, izen konkretuetara. Baina hori baino askoz gehiago izan zen gerra. Heriotza, mi-na eta samina izan zen gerra, baina gosea, etxekoen falta, familiaren berran-tolaketa, zigorra, estraperloa, nagusikeria, hizkuntzaren eta hezkuntzaren in-posizioa izan zen gerra. Eta askoz gehiago. Gerraren zauria lubakietatik atera eta atzeko lerroko plaza, auzo, etxe, eskola guztietara zabaldu zen.

Historia handia egin da, sarri, 36ko gerraren inguruan. Makrohistoria. Historia txikiak falta dira. Mikrohistoriak. Izen eta abizenez beteak daude gerrako kronikak. Historia liburuetako pertsonaia bihurtu dira horietako as-ko. Eta beste asko, gehien-gehienak, historia liburuetatik kanpo gelditu dira, pertsonak falta direlako liburuotan. Pertsonetan dago aberastasuna, hau da, mikrohistorietan.

Izen-abizenez beteriko historiak historiaren hierarkizazioa dakar. Hotza eta urrunekoa da letra larriz idazten den historia. Baina historia bera beroa-go eta gertukoagoa izan liteke letra txikiz idazten denean, eta protagonistak heroiak ez, baizik eta egunerokotasunaren protagonistak direnean. Historia hierarkizatua baztertzaila da, historia horretan ez daukate lekurik botereri-k ez duten talde sozialek, gure aitona-amonek.

Historia hierarkizatuaren aurrean kontramemoria beharrezkoa da. Eta are gehiago, kontramemoriak. Ahozko lekukotasunen bidez jasotako memoria boteredunek idatzitako historiografia ofiziala iristen ez den zokoetara iristen da. Memoriaren bitartez irits daiteke XX. mende hasierako sentimenduetara, emozioetara, zorientasunera eta tristeziara. Memoriak ez ditu gordetzen ger-takari historikoak soilik, memoriak emozioak, esperientziak eta sentimen-duak jasotzen ditu. Eta memoriari tiraka transmiti daitezke horiek guztiak. Eta bai, memoria subjektiboa da, hala argudiatzen dute zenbaitek. Baina his-toriografia ofiziala bezain subjektiboa, ez gutxiago eta ez gehiago.

Eta memoria orain berreskuratu behar da. Bai behintzat 36ko gerrari lo-turikoa. Horregatik, lan hau, neurri batean, urjentziazko lana da. Garai hura bizi zuen azken belaunaldia joaten ari delako. Eta aldi berean, berandu dator. Berandu egile hauentzat, etxekoen memoria berreskuratzeko. Galdu da gure etxeko memoria. Baina auzokoenak, bizilagunenak, herritarrenak bizirik di-rau. Eta bizilagunen memoria berreskuratzea, etxekoen historia egitea izan

daiteke. Memoria indibidualetatik eraikitzen baitira memoria kolektiboak, historia indibidualetatik historia kolektiboak.

Ez da kasualitatea gerra bizi izan zutenen bilobak hastea galdezka. Lehen eskutik bizi izan zuten gehienak isildu egin ziren, isildu, edo isilarazi egin zituzten. Bigarren belaunaldiak ezin zuen galdetu. Eta hirugarren belaunaldia hasi da hautsak harrotzen.

Beldurra zuen lehenengo belaunaldiak. Zauriak irekita zeuden. Gertakariak gertuegi zeuden haien gainean hausnartzeko. Gainera, gerra irabazi zuen erregimen frankistak bere baliabide guztiak erabili zituen gerra bere nahierara interpretatzeko eta aurkako bertsio guztiak isilarazteko. Garaipenak arrazoia beraiei eman balie bezala, arrazoia ukatu zieten garaituei, memoria bera, eta baita hitza ere. Isiltasuna gailendu zen.

Bigarren belaunaldia diktadura frankistaren erdian hazi eta hezi zen. Gerra irabaztearekin hasi zuen frankismoak diktaduraren historia, eta hura izan zen bigarren belaunaldiaren historia ere. Ez zuen atzera begiratzerik. Frankismoa zuen aurrez aurre. Gerraz arduratzeko betarik ez eta diktadura bati aurre egin behar izan zion bigarren belaunaldiak. Diktadura Francoren heriotzarekin amaitu eta ustezko askatasuna berreskuratzearen izenean, isiltasun paktu bat onartzea besterik ez zitzaion gelditu ez bigarren belaunaldiari eta ezta lehenengoari ere. Trantsizio deiturikoak amnesia kolektiboa bultzatu zuen. Eta isiltasunak aurrera jarraitu zuen.

Denbora eta distantzia oinarrizko baldintzak dira gertakari traumatikoei aurre egin ahal izateko. Kasu askotan, hiru belaunaldi igaro behar izan dira 36ko gerrako minak azaltzen hasteko. Gertakari traumatiko hauek gainditzeko, beharrezkoa da norbanakoak eta gizarteak beren iraganarekin elkarrizketan jartzea. Elkarrizketa hauekin osatu ahal izango da iraganaren puzzlea; bestela, iraganaren ezagutza zatikatua izango da.

Baina batzuek ez dute iraganaz hitz egin nahi. 70 urte igaro dituzte isilik, askok isilarazi egin dituztelako, eta, hainbeste urte iraun duen zentsura horren ondorioz, autozentsuratu egiten dute orain beren burua. Beldurraren mamuagatik, askok. Liburu honetara ere iritsi da isiltasun hori, garai hartaz hitz egiteko eskaerari ezezkoa eman dionik izan da. «Gauza orik pasau zien, ta jende oi ilda dau, obe pake-paken utzi ta ortaz ez itzeittea», esan dute zenbaitek.

Iraganaz ez hitz egiteko arrazoi bakarra, baina, ez da beldurra. Ustezko trantsizio hartako paktuari eutsiz, amnesia kolektiboaren alde egiten dute

egun oraindik batzuek. Hildakoen gorpuak ateratzea, zauriak ixtea ez, baizik eta zauriak irekitzea dela diote. Nahiago dutelako beren iraganaren puzzlea ez osatu, lotsatzeko arrazoi asko aurki ditzaketelako beren iraganean. Egia azaltzeari beldur diote. Horregatik agertu dute horiek¹ Memoria Historikoaren Legearen aurkako jarrera. Batzuentzat gehiegi dena besteentzat eskasa da².

Gerrak eragindako zauriak ixten hasteko bidea zirudien Espainiako Memoria Historikoaren Legeak. Baina zauriak ixtetik oso urrun, beste behin, biktimak eta biktimak bereizten ditu lege horrek. Biktimak hierarkizatuz, batzuen mina areagotu egiten du legeak, batzuk ez ditu biktimatzat ere hartzen, eta, beraien biktima izaera ez onartuz, justiziarik gabe geldituko dira betiko. Biktimen gutxiengo batek bakarrik izango du kalteordaina, eta ordain hori soilik ekonomikoa izango da legearen arabera. Eta lege bat justizia egitera baldin badator, honek hutsune nabarmenak ditu; garai hartako sententziak baliogabekotzat jo beharrean, bidegabekotzat jotzea da hutsune nabarmen horietako bat, eta biktima egin zituzten haiei –egun politikan jarraitzen duten zenbaiti edo Elizari, esate baterako– erantzunkizunik ez eskatzea, beste bat.

Memoria berreskuratu behar da; azken finean, herri honen ondare historikoa delako. Eta horregatik jaso egin behar da, baina baita transmititu ere. Eta jaso ahal izateko ahozko lekukotasunak beharrezko dira. Esperientzia ahoz aho transmititzeak esperientzia konpartitzea esan nahi baitu.

Liburu honek herritarrak izan ditu abiapuntu. Herritarren zuzeneko lekukotasunak, lehendabizi. Memoria indibidualak izan ditu abiapuntu herri baten historia, historia kolektibo bat egiteko garaian. Anttoni Etxeberría, Joxe Agirre, Teresa Agirre, Adelita Apalategi, Markox Jauregi, Joxe Erauskin, Bibiana Munduate, Isidora Eskisabel, Benito Arrubarrena, Felix Eskisabel, Sabinu Auzmendi eta Joxe Mari Apalategi izan dira abiapuntu. Bakoitzaren historiatik abiatuta XX. mendearen lehen erdialdearen Ataungo historia bat egin da. Eskerrak, bihotz-bihotzez, guztiei.

¹ 2007an hitzarturiko Memoria Historikoaren Legearen aurkako jarrera azaldu zuen Partidu Popularrak.

² Espainiako Memoria Historikoaren Legea 2007ko abenduaren 13an jarri zen indarrean.

Espainiako Kongresuak PSOEn testua onartu zuen EAJ, CIU, IU-ICV eta Talde Mistoaren babesari esker. ERC eta PP legearen kontra azaldu ziren.

Liburu honek ataundarrak izan ditu abiapuntu. Ataungo egunerokotasuna gerrak nola aldatu zuen ikertzeko ahalegina egin dute egileek. Ataungoak di-relako. Ataungo historiak baditu bere berezitasunak, mugako herria izateak dakartzan berezitasunak adibidez, edo oso herri sakabanatua izatearenak. Baina Ataungo historiak, halaber, ondoko herrietako historiak dituen ezau-garriak ditu: beldurra, gosea, inposaketa... Horregatik Ataungo historia be-rezia da, baina, era berean, estrapolagarria³.

Liburu honek, halaber, herritarrak ditu helburu. Gerra bizi izan zutenak, baina batik bat bizi ez zutenak. Bigarren belaunaldikoak, hirugarrenekoak, eta, are gehiago, laugarrenekoak eta ondorengoak.

³ Herri baten monografia egitea ikerketa-eredu bat izan da antropologian. Adibide ugari aurki dai-tezke; besteak beste, *Muerte en Murélagu* (William Douglass), *Violencia vasca: metáfora y sacra-mento* (Joseba Zulaika), *The circle of Mountains: A Basque Shepherding Community* (Sandra Ott), *Hondarribia riqueza ingrata: comercialización y colapso de la agricultura* (Davydd Greenwood).

BERRIEMAILEAK

Lan hau egin ahal izateko zuzeneko eta zeharkako berriemaileen testigantzak erabili dira. Zuzeneko berriemaileak aurrez aurre elkarrizketatu direnak dira. Zeharkako testigantzak, bestalde, beste liburu edo aldizkarietan hainbat ataundarri egindako elkarrizketetatik jaso dira⁴.

- Zuzeneko berriemaileak:

- Joxe Agirre (1921). Aia.
- Teresa Agirre (1922). Aia.
- Adelita Apalategi (1922). San Gregorio.
- Joxe Mari Apalategi (1924). San Gregorio.
- Benito Arruabarrena (1913). San Martin.
- Sabino Auzmendi (1926). San Martin.
- Joxe Erauskin (1925). San Martin.
- Isidora Eskisabel (1916). San Martin.
- Felix Eskisabel (1929). San Martin.
- Anttoni Etxeberria (1906). San Gregorio
- Markox Jauregi (1918). Aia.
- Joanita Mujika (1946). San Martin.
- Arantxa Mujika (1950). San Martin.
- Bibiana Munduate (1925). Aia.

⁴ ARRATIBEL, J. (1995). *Kontu zaharrak*. Erein. Donostia. NONDIK aldizkaria 17. zenbakia, 1987ko martxoa. *Gerra Zibila Ataunen*. BARANDIARAN, J. M. (1917-1936). *Diario personal. Volumen I (1917-1936). Desde los primeros trabajos científicos, hasta el inicio del exilio*. Alvaro Arrizabalagaren edizioa. Barandiaran Fundazioa. Atun.

- Zeharkako berriemaileak:
 - Frantziska Aierdi⁵.
 - Joxe Arratibel.
 - Martxial Barandiaran.
 - Markox Bidegorrieta.
 - Julian Munduate.
 - Pilar Barandiaran.
 - Joxemiel Barandiaran.

Bihotz-bihotzez, eskerrak denei beren etxeetako eta oroitzapenetako atek ireki dizkigutelako. Haien bizitzetan 36ko gerra mugarri izan zen moduan, gureetan mugarri txiki bat izan dira haien lekukotasunak.

Eskerrak, baita ere, liburu hau egiten lagundu diguten guztiei. Jose Maria San Agerico, Barandiaran-Furundarena sendia, Munduate-Aierdi sendia, Inazio Munduate, Serafin Jaka, Leire Kortajarena, Xabier Lasa, Jon Benito, Jexux Etxeberria, Atauniker Taldea eta Gerriko Ikerketa Bekako lan taldeari.

⁵ Familiak gure eskariz elkarrizketatu du.

*«Eskolaa jun aurretio esnea partitzen genun,
marmitakin lau txakur aunditaa»
(Isidora Eskisabel)*

*«Gerrea? Oain esangoizut:
Gerrea etorri zan Santio eunez»
(Joxe Erauskin)*

*«Ir, tirar y todo reventar»
(Manuel Aierbek Benito Arruabarrenari)*

*«Markox, ok dittuk ibillarok,
ez altzak iruitzen
obe gendukela ilda
zerun bageunde?»
(Joxe Zeberio Markox Jauregiri)*

*«Geo esaten due:
“Gerrea, ze in dizue ba gerrek?”
Ze ezto in gerrek!»
(Sabino Auzmendi)*

*«Amar urte neuzken,
baiño ba al dakizue miñe emantziala?»
(Bibiana Munduate)*

*«Ahora empiezo a comprender
que el pan del destierro es amargo»
(Joxemiel Barandiaran)*

*«Gerrako garaien euskerea
oso-oso-oso kastigauta zeon:
“Castigado por hablar el vasco,
cien reglones”»
(Felix Eskisabel)*

*«Razionamendue etortzentzanen poliki,
eun batzutako, beste gaiñatikon, gaixoa, etzeon eze»
(Teresa Agirre)*

*«Eskolaa jun aurretio goizetan esnea partitzen
genun marmitakin lau txakur aunditaa»*

(Isidora Eskisabel)

BASERRITAR ETA FEDEDUN

Gerra aurreko Ataun

Gerra bezperatan Erremedio, Antzamendi eta Albitzeta-bekoa iturrietako uren analisiaren emaitzak zituzten mintzagaia udalean⁶. Flabio Larrakoetxea nazionalista zen alkate. Udaleko 11 zinegotzietatik sei nazionalistak ziren, bost karlistak.

Gerra hotsak urrunean entzuten ziren. Baina mugimendua nabaria zen Ataunen. Herritarrena baino gehiago Nafarroa aldetik ihesi zetozen olaztiar eta altsasuarrena eta Nafarroarantz zihoazen beasaindarrena zen joan-etorria, batzuk zein besteak, errepublikarrak guztiak.

Batzokiaren inguruan mugitzen zen herrian giro abertzaleko jendea, eta karlistek beren zirkulua zuten. Alde batekoek zein bestekoek egiten zituzten ekitaldi politikoek ondorioz, mugimendu handia izaten zen herrian. Garai haietan haur zirenen gogoan gelditu dira:

«Batzokin saloie zan, aundie, ta an eittentzien mitiñek, eta gu umek juten giñen. Ta teatroke bai». (Joxe Erauskin).

«Gabilleneko ortan eittentzien mitiñek, Margaritanak ta». (Sabino Auzmendi).

Ikuspegi politikotik mugimendu handiko urteak izan ziren 30eko hamarkadako lehen urteak. Flabio Larrakoetxea buru izan zuen udal gobernu nazionalista 1933ko maiatzean aukeratu zuten, baina urtebetera Larrakoetxeak eta bost zinegotzi nazionalistek dimititu eta beren karguak utzi zituzten. Dimisioak 1934ko irailaren 2an Zumarragan udal ordezkariak egin zu-

⁶ 1936ko uztailaren 14ko udal akta. Egun horretan egin zen gerra aurreko azken batzarra. L-46 liburukia.

ten batzarraren ondoren etorri ziren. Batzar hura ez zuen onartu Espainiako Gobernuak eta hainbat udal ordezkari atxilotu zituzten. Ondorioz, Udalarteko Biltzar Eragileak euskal udaletako zinegotziei dimisioa aurkezteko eskatu zien, protesta moduan. Ataungo alkate eta bost zinegotzi abertzaleek erantzun zioten eskaerari eta ondoren Joxe Antonio Aiestaran karlista jarri zen alkate, eta bost karlistek hartu zituzten nazionalisten zinegotzi postuak. 1936ko otsailean jakinarazi zuen Gipuzkoako Gobernadoreak ordezkari nazionalistak amnistiatuak izan zirela, eta bost zinegotziak eta Larrakoetxea beren karguetara itzuli ziren atzera. Ataundar gehienak, beraz, nazionalista edo karlista ziren; azken batean Ataunen pareko nekazal giroko herri txiki euskaldunetan nazionalismoa eta karlismoa ziren jarraitzaile gehien zituzten indarrak.

«Jainkoa, aberria, foruak eta erregea» printzipioetan oinarritzen zen karlismoa. Nazionalismoa, hasiera batean, oso lotua zegoen karlismoari, erlijio katolikoa euskal nortasunaren oinarritzat hartzen zuen eta karlismoaren sektore foruzalearekin bat egiten zuen nahiz eta izaera erradikalagoa eduki. «Jaungoikoa eta Lege Zarra» zen Sabino Aranaren leloa. Karlistak zein nazionalistak, erlijioso eta euskaldunak ziren gerra aurreko ataundarrak.

Errepublikartasuna –sozialismoa, komunismoa eta anarkismoa– gune industrializatueta garatu zen batez ere XX. mendearen hasieran, eta, ondorioz, Ataunen bakan batzuk ziren errepublikarrak, eta herrian guztiek ezagutzen zituzten:

«Estraberriko iru anaiek komunistak zien». (Felix Eskisabel).

«Gorrik gutxi zien. Gaiñea gorrik elizare etzien juten. Errin bat barkarra ezautuko zan elizaa etzana juten, Arrondokoa zan». (Bibiana Munduate).

Lan arloan baserriak ziren Ataungo enpresa nagusi. Joxemiel Barandiaranek 1925ean idatzitako *Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales*⁷ lanean irakur daitekeen moduan, Aralar eta Aitxu mendien inguruetan sakanbanatutako Ataungo sendi gehienak nekazal ustiakuntzatik eta artzaintzatik

⁷ BARANDIARAN, J. M. (1988) (1925). *Elkarteko gertakarien sortze eta azkera*. Antropologiaren Euskal Bilduma. Barandiaran Joxemiel (AEB-Bjm). Kriseilu Donostia. Itzultzailea Nekane Balluerka.

bizi ziren. Familia hauentzat baserria zen bizitoki eta lantoki. Baserria zen produkzio eta erreprodukzio gunea. Lan asko egiten ziren baserrian:

«Belarra ata, artoa ta garie erein, indabeata, ganaduntzako azpitako garoa ebai, ikatza itten ta egurretan... Ganadukiñe ibiltzen giñen. Oporripe». (Joxe Agirre).

Baserriko lanak lehentasuna zuen beste zeregin guztien aurrean. Haurren kasuan, baserriko zereginak eskolakoen aurretik izaten ziren:

«Udaberrin artoa itteko garaien izatentzan itsulana esatentzizaiona, ta ue zan garai artan ez giñen eskolaa juten». (Sabino Auzmendi).

«Eskola gutxi, zazpi urtekin asi eta beatzi urtekin ni artzai jun nintzen Lauziakoa, negun osoakin, ta artaldekin Muskiaño ni bakarrik iotzenintzen, beatzi urtekin. Ta eskolaa gutxi». (Bibiana Munduate).

«Bost urtekin asi nintzen eskolan, baiño erditan enintzen juten, aitek izatentzon txerri iltzea dala o batea zala o bestea zala, azkenen eskolaa junbe». (Joxe Mari Apalategi).

Baserria zen ataundar gehienen bizibide. Baserriak elikatzen zituen, ia osoki, etxeko guztiak. Ekoiztutakoaren salneurriak eta urtebeteko gastuak ondorengoak ziren 1924an⁸:

GENEROAK	1924ko salneurriak (pezetatan)
Garia (anega)	20
Artoa (anega)	17
Babarrun gorria (anega)	64
Patata (anega)	12
Ganadua (erraldea)	18
	1924ko gastuak (pezetatan)
Pertsona bakoitzeko urteroko jantziak	40
Erregaiá, urteroko gastua	100

Baserria, ekoizpen gune izateaz gain, erreprodukzio gunea ere bazen. Ondorioz, **familiak** eta famili bizitzak oso toki garrantzitsua betetzen zuten

⁸ BARANDIARAN, J. M. *Op. cit.*

ataundarren egunerokoan. Barandiaranen arabera, sendiek nahiko bizitza isolatua zeramaten XX. mende hasierako Ataunen; ondorioz, senitartekoen arteko harremanak intentsitate handikoak izaten ziren. Ohikoa zen baserrietan teilatupe berean belaunaldi ezberdinak bizitzea. Aitona-amona, guraso eta haurrek, denek, lagundu behar izaten zuten baserriko zereginetan familia mantentzeko adina ateratzekotan. Eta gaua iristean, baserriko lanak amaitu ostean, «kontu zaharrak» entzutera biltzen zen familia Joxe Arratibelen etxean:

«Batez ere negu aldean –iluntze luzeak izaten dira–, eta etxeko denak biltzen ginenean. Ukuiluko lanak egin eta sukaldean denok; orduan izaten zen garai egokiena. Aitak ere, artoa aletzen edo, lanen bat bazen, orduan esaten zituen kontuak». (Joxe Arratibel)⁹.

Familiak oso handiak izaten ziren. Gehienez, mediku edo emagin baten laguntzaz, seme-alabak etxean izaten zituzten emakumeek:

«Bai, etxen, etxen. Muñoko andrei abisoa aurrenekoa, etortzeko, gero medikuri. Ta nik izan dittuanak danak medikukin, ta partok ondo jun die Jainkori eskerrak, ez aborto bat ez ezerrez ezte izen. Ta oso ondo danak izan dittut. Muñoko andrea, geo medikue ta ementxe. Muñoko andren gizonak oindio akordatzen naiz nola esatentzian medikuri: “Don Enrike, Don Enrike, txabolak einbearkottu emendik kanposantu bide ontan, betekottu”, esatentzian bai, Muñone famili aundie nik bezelaxe, 12 o bazittun arek». (Anttoni Etxeberria).

Seme-alaba asko izaten ziren eta ahalegin guztiak egiten ziren hauek aurrera ateratzeko; horretarako, familiakoen laguntza behar izaten zen sarri. Bibiana Munduateren kasuan, adibidez, bera jaiotzean ama oso makal geratu zenez, izebak eman behar izan zion bularra:

«Ta ama, ni izan nittun garaien oso gaizki eontzan. Ni eaman nittuen Lauztiakoa, Lauztiakokoa zan ama izatez. Ta an izoa semekin azitzen ai zan, ta arrek in bularra artu... baiño ue ni baiño fuertexeagoa ta usteet etzila eze aundik uzten, titi aundik eaten, eta oso gaizki ekarri nittuen etxea ia enitzela atako pentsatzen, aitte zana bide oson nearez jun omentzan nekin, enitzela atakota, baiño beintzet aurrea ata nintzen». (Bibiana Munduate).

⁹ ARRATIBEL, J. (1995). *Kontu zaharrak*. Erein. Donostia, liburuan Miel Anjel Elustondok Joxe Arratibeli eginiko elkarriketatik jasoa.

Norberaren seme-alaba biologikoez gain, etxe askotan izaten ziren ume-zurtzen etxeetatik jasotako haurrak:

«Emen etxe asko zien ola ospiziokok zeuzkeanak. Jendek ordune artu-emana bata bestekin da geio zeuken ta askok oi eittentzuen. Esan leike ia beatzi seme-alaba dauzken familik baten jornaletik irazteko badala naikoa e, baiño alare bat ekarri ta benga azi uere». (Sabino Auzmendi).

Nahiz eta familia bakoitzak bere lantokia izan, hau da, bere baserria izan, hainbat lanetarako beharrezko izaten zen auzokoen arteko elkar laguntza, **auzolana**. Bizilagunen arteko harremana bultzatzen zuen lanerako elkarren beharrak:

«Baten da besten ibiltzen giñen, ordun auzolana asko ittentzan. Gari ebakitzen, laian... momentu batzuk onak pasatzentzien auzolanen». (Sabino Auzmendi).

«Baserritan, por ejemplo, gari garaien, garik eltzentzien garaien, leku baten lentxau eltzentzien besten baiño ta bata bestei launtzea jutentzien. Ta geo bestenak eltzentzien garaien bestek eataa etortzentzien. Ortan launtasune geiau zan». (Bibiana Munduate).



Martxial Barandiaran, Patxi Mujika eta Jexux Lasa laian. Barandiaran-Furundarena sendiak emana.

Beraz, auzotarren arteko harremanak oso estuak ziren. Elkar laguntza honen garrantzi berezia izaten zuen ezusteko istripu edo zoritxarretan, etxearen sutea, ganadu gaixotasuna, etab. Auzotarrak izaten ziren laguntza ematen zuten lehenak.

Baserritarrentzat oinarritzkoa zen elkar laguntza. Elkarrekin lan eginez abantailak eskuratzen zituztela ikusirik sortu zuten nekazarien sindikatua. Nekazarien sindikatua San Martinen zegoen, Gaztinaberrin, eta San Martingo baserritarrak biltzen zituen nagusiki. San Gregorion eta Aian ere bilduta zeuden baserritarrak, San Gregorion Kaitanorenean eta Aian bertako erretoarekin antolatzen ziren. Pentsuak, pulpa, erretxilloia etab. Nafarroatik ekartzeko antolatzen ziren, batik bat, baserritarrak. Bakoitzak bere txartela izaten zuen hartutako generoak apuntatzeko. Generoa denek batera erosiz abantaila ekonomikoak eskuratzen zituzten. Horrez gain, diru-kontuak eramateko laguntza izaten zuten nekazariak.

Gerra aurretik, baserritar gehienak maizterrak ziren. Nagusiari urteko errenta ordaintzen zioten, gehienetan erdia generotan (garia batik bat) eta beste erdia dirutan. Goierriko beste hainbat herritan bezala, Lazkaoko Markesa zen Ataungo baserri eta lur-sail askoren nagusia.

«Gu gaiñea maizterrak giñen, etzan baserrie gurea, ta jabei ematen giñun beatzi anega ta erdi urten, gurdi bat egurre, kapoi pare bat ta arkumea. Asike dana bestentzako». (Sabino Auzmendi).

«Errentan genuen baserrie. Markesa zan gue nausie ari pagatzen giñun errentea, urten bein, puska bat garitan ta bestea dirutan». (Joxe Agirre).

Baserritar gehienek helburua maizter izateari utzi eta etxejabe bihurtzea zen. Horrela, etxejabeen kopurua pixkanaka igotzen joan zen. 1800. urtean 68 ataundar etxejabe eta 282 maizter baziren, 1926an Ataungo etxe eta zenbait alorren jabeak 322ko kopurura igo ziren. Gainera, baziren beste 108 ataundar abereen jabe zirenak¹⁰.

Ataundar gehienak baserritarrak baziren ere, bakarren batzuk ordurako hasiak ziren herritik **fabrikatara** lanera joaten. Fabrikan diru gehiago ira-

¹⁰ ARANBURU, P. (2003). *Ataungo ogibide historikoen edo artzaintza, nekazaritza, errota, eraikuntza eta zerbitzuen kulturazko eragin nagusia bertako ETNOSaren historian. XIV-XX mendeetan*. VII. Ataun Aztergai Beka. Ataungo Udala.

bazten zen, baina, hala ere, ez zuten baserriko lana alde batera uzten, bi lanak egiten zituzten gizonezkoek:

«Baserrik justukoa ematentzon, diruik ez, eta dirue beartzan!». (Sabino Auzmendi).

Lantegira joan-etorriak oinez edo bizikletan egiten ziren hasiera batean. Gerora, soilik langileei zuzendutako autobus zerbitzu bat jarri zuten Ataun eta Beasain artean. Irtenbide eroso eta kostu gutxikoa izan zen.

«Autobuseke eontzien Ataundio, Martin Trapu esatentzitaion, Altolagirre. Arek bi autobus zittun ttikik, bat langillekin ibiltzentzan, ta bestea korreo diariokin». (Joxe Erauskin).

Fabrikak baserriko lanarekin zerikusi gutxi zuen. Baserriko mundua eta fabrikako mundua oso ezberdinak ziren, logika ezberdinen arabera funtzionatzen zuten. Herritar askok erdal munduarekin eta aginte sistemarekin egin zuten topo lantegian, lehen aldiz. Fabrikan toki itxi batean egin behar zen lan, ordutegi konkretu bati erantzunez eta besteren (enkargatu edo arduradun) aginduak betez. Baserriko lanean ohitutakoentzat aldaketa handia izan zen, eta, hasieran, asko kostatu zitzairen funtzionamendu eredu berrira egokitzea. Hau horrela izan zen bai mende hasieran eta baita gerra ondoren fabrikara joan zirenen kasuan ere:

«Geo asi nintzen fabrikan, baiño xamur ez e! Uste gendun beste modu batea izingo zala, an, fabrikan, bakizu ezin entendittu». (Joxe Mari Apalategi).

«Beste ambiente, beste aize bat artzentzan, ba esatentzenun ba gaur segan ein bear da, ba segan, geok erramientea prepau ta ola. Ta fabrikan eak esatentzizuen, “au ein bear dek, au ein bear dek, ta au ola ta ola”, an beti esaten, atzetik astoa bezela». (Sabino Auzmendi).

Erdal mundua eta aginte sistema ezagutzearekin batera, beste hainbat errealitate ezagutu zituzten fabrikan herritarrek. Barandiaranen arabera, lantegietan, erlijioabekoekin egin zuten topo ataundarrek:

«Beasain eta Villafrancako tallerrak eta lantegiak ere badira, non haiek jende axolagabe eta erlijioabekoarekin topo egiten baitute; beren fedearen aurka atentatzen duten elementu eta guncetara hurbiltzen dituzte»¹¹.

¹¹ BARANDIARAN, J. M. (1988) (1925). *Op. cit.*

Baserri munduarekiko zituen ezberdintasunak direla eta, fabrika ez zuten denek hain begi onez ikusten. Belaunaldi zaharrenek ez zuten beren ondorengoen ikuspuntu bera:

«Izanon konbentzimentue fabrikaa juteko, baiño ama zanak etzon nai izen, eta aren kontra enun jun nai iziten». (Joxe Agirre).

Fabrikako lan munduan sartu zirenek ekonomi krisiarekin egin zuten topo 30eko hamarkada hasieran. 1932an CAF enpresaren krisiaren aurreko jarrerara hartu beharra izan zuen Ataungo Udalak, 500 langiletik gora kaleratu baitzituen enpresak, tartean hainbat ataundar. Langabezia gelditu ziren herritarrei lan eskaintzak egin beharra izan zuen udalak, nahiz eta gero ez ziren esandako denak bete. 30eko hamarkadarekin langileen mobilizazioak hasi ziren Espainiako Estatuan.

Emakumezkoak fabrikara ez, baina ezkondu bitartean ateratzen ziren lanera, dela jostun edo neskame, herritik kanpora. Barandiaranek jaso zue-¹²nez, 1924. urtean 31 ziren Donostia aldeko etxe eta hoteletan neskame zeuden ataundarrak.

Bestelako **ofizioak** ere baziren herrian: harginak, errementariak, errota-riak, oihalginak, bizarginak, zurgin edo arotzak. Barandiaranek jaso zuen moduan, ikazkintzaren ofizioa gainbehera zihoan 1920ko hamarkadan. 1924. urtean, zehazki, 113 gizonak egiten zuten lan mendian, bederatzi talde edo lagunartetan banaturik. Urte batzuk geroago, 30eko hamarkadaren hasieran, mutil koxkorra zela, Joxe Mari Apalategik jatekoa eramaten zien mendian lan egiten zuten ikazkinei:

«Gerrea baiño leen emeretzi laun ibiltzentzien bason ikatza eitten. Nik eamaten nien ogie ta dana, beorrakin». (Joxe Mari Apalategi).

«Aitte bason ibiltzentzan ikatza eitten. Or Ergone alden ibiltzentzien. Gertun, noizipeñetan etxea etorriz». (Teresa Agirre).

Bestetik, Ataun **zerbitzuetako** herria zen, gaur egun ez bezala, aterik ate zegoen denda bat, sal-erosketa gehienak herritik atera gabe egiteko moduan:

«Geiena ordun Ataunen bertan ittentzan. Asteazkenetan tartetan jurentzien ama o izeba Villafrancaa, baiño gaiñontzen emen, Santionen,

¹² BARANDIARAN, L. (1981). *Barandiaran. Patriarca de la cultura vasca*. Sociedad de Educación Atenas. Madril. 18. orria. BARANDIARAN, J. M. (1925). *Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales* liburutik jasotako datua.

Kooperatiban, Piñanen... Ogie Barriolan, Artzubin ta Errotazarren zan. Pantaloi urdiñek eta alkondareata, aaltzana, emen jostentzien, ta zapaterok eta ementzien... ». (Sabino Auzmendi).

Kanpotik sartzen ziren produktuengatik zerga (sisa) ordaindu behar izaten zuten. Otadizelai aurreko zubian egoten zen alondegiko arduraduna, eta Lizarrustin beste bat:

«Zeozer berezixagoa nai izan ezkeo Villafrancati ekartzentzan. Gaiñontzen, bakallaue o... ta or sisa patzentzan». (Sabino Auzmendi).

Autobus zerbitzuak ere baziren. XX. mendearen hasieran Miravalles os-tatuak Beasaingo geltokira joateko autobusa jarri zuen egunero, ordura arte ez zegoen Ataun Iparraldeko trenbidearekin lotuko zuen zerbitzurik.

Autoak, bestalde, urri ziren oso orduan herrian, bizpahiru, eta harridura sortzen zuten herritarrengan:

«Gure aitajaunak eta esaten zuten haiek Altsasura joan zirela gaztetan mendiz –hiru bat orduko bidea–, automobil bat pasatu behar zela eta. Urrutitik ikusi omen zuten etortzen, gorri-gorria, kea ugari botatzen zuela, eta denak begira, nola izan zitekeen tresna hura, zaldirik gabe eta inork bultzatu gabe joatea». (Joxe Arratibel)¹³.

«Medikuk, Nikasiok eta Artintxuloko Bixentek, arena zan ikusi non lenengo deskapotablea. Emen bestela etzeon kotxeik, motoa bakarren batek, bizkikletea... eta kitto! Astoa eta zaldie». (Sabino Auzmendi).



Ataunen ikusitako lehen autoetariko bat San Gregorion. ITURRIA: Kutxako Fototeka.

¹³ ARRATIBEL, J. (1995). *Op. cit.*

1909. urtean jarri zuten aurreneko **telefonoa** herrian eta udaletxeko langile batek zaintzen zuen. 1925ean bi telefono postu ziren jada herrian. Kotxeen eta telefonoaren presentziarekin gizarte preteknologiko baten atarian kokatzen da Ataun. Bi asmakuntza hauei esker hobetu egin zen pertsonen komunikazio gaitasuna, herri barnekoa eta, bereziki, herritik kanporakoa.

Hezkuntza sistemari dagokionez, auzo bakoitzak bere **eskola** zeukan 30eko hamarkadan. Dena den, alfabetatzeak eta eskolaratzeak ez zuten gizarte hartan gaur egunekoan duten garrantzirik, beste lehentasun batzuk zituzten, bereziki lanari loturikoak.

Aian elizaren aurrean, egun elkartokia dagoen lekuan, ematen zituzten eskolak; San Gregorion soziedade zaharraren gainean eta San Martinen elizaren ondoko lokaletan, atze aldera neskek eta aurre aldera mutilak.

«Aieko plazan zan eskolea. Maistra oso ona gendun, Irene Arregi, oso ona, oso ona zan». (Bibiana Munduate).

Neskek eta mutilak bereizirik joaten ziren San Gregorion eta San Martinen, Aian ez bezala:

«Aien etzan apartamenduik, neska ta motil danak sozio». (Teresa Agirre).

Sei urterekin hasten ziren umeak eskolan. *Primera sesión, segunda* eta *tercera* bereizten zituzten, adinaren eta ezagutza-mailaren arabera:

«Aste guztin lezio diferentek. Ta nik astelenen danak ikasten nittun, aste guztikok. Eta an geiena zekienak ola illaran jartzein giñen, ta geiena zekienak aurren». (Bibiana Munduate).

Don Antonio Arteaga zen San Martingo mutilen eskolako maisu eta neskena Maria Altolagirre. Txikiagoei, berriz, Jesus Lasa sakristauak irakasten zien. San Gregorion Tomas Arrese zen maisua, Martin Barandiaranek ere eskolak ematen zituen Ergonen, San Felicísimo zeritzan eskolan. San Gregorioko neskatoek maistra asko izan zituzten, hauen artean Arratiñeako Maria Arratibelez gogoratzen dira. Aian, berriz, Irene Arregi maistra dute gogoan.

Eskolak gaztelaniaz ematen zituzten. Gerra aurretik ere, 1924ko otsailko dekretuaren ondorioz, legez debekatua zegoen ikasgaiak euskaraz ematea. Irakasleen eta ikasleen arteko harreman ez-formaletan euskara

erabiltzen bazen ere, ikasmaterial guztiak gaztelaniaz zeuden. Irakasle ba-koitzaren esku zegoen gaztelaniazko materialetan irakurritakoa gero euskaraz azaltzea:

«Ez gendikiun, baiño ixilik eoten giñen, etziun uzten euskeraz itten da». (Adelita Apalategi).

«Kontutan ai giñen bein sobrare, ta Antonio maixuk tableron aurrea belauniko ata nittun ta erderazko dotriña erdie emantzin ikasteko, ikasi non, ze esatenon arrastoipe!». (Sabino Auzmendi).

San Gregorioko Tomas Arrese maisuak, adibidez, nahiz eta klaseak gaztelaniaz eman, azalpen batzuk euskaraz ematen zituen haurrek zerbait ulertu eta ikasteko aukera izan zezaten. Gaztelaniaz buruz ikasitako lezioak berehala ahazten ziren.

Espainiako Errepublikak bestelako jarrera baldin bazuen ere, herri katolikoa zen Ataungoa, eta **Elizak** pisu handia zuen. Barandiaranek jaso zuen moduan, haurrak beren kabuz ibiltzen hastearekin batera hasten ziren elizako funtzioetan parte hartzen:

«Gainera, beronen sendiaren erlijiozko egintza guztietan (errosarioa, mahaiko bedeinkapena, Angelusaren otoitza), elizaren funtzio askotan (meza, igandeen eta prezeptu jaien bezperak, e.a.) parte hartzen du, sailduen homiliak eta handiespenak entzuten ditu eta bere parrokiako apaizak azaltzen dituzten Katekismoko ikaskizunetara joaten da. Hauek itzalez begiratzen ditu beti, eta edozein lekutan beraiekin topo egitean, txapela kendu ondoren, hitz hauekin agurtzen ditu: Ai Maria Pruxuma (Ave Maria Purisima)»¹⁴.

Mezatarra eta elizan antolatzen ziren gainerako ekintza gehienetara joaten ziren ataundarrak. Mezak latinez ematen ziren:

«Aal gendun guztin juten giñen mezataa. Maiatzen funtzioa jartzentzan, eta ordun eunero. Ta oktubrene bai, Ama Birjiñan errosario-kin, urdun illuntzetane bai. Funtzio oritaa neskak bakarrik juten giñen». (Adelita Apalategi).

¹⁴ BARANDIARAN, J. M. (1988) (1925). *Op. cit.*



San Martingo plaza 1913. urtean. (Atauniker taldeak utzitako argazkia)

Erlijioa, alabaina, ez zen mezara mugatzen. Etxeetan ere asko erreztatzen zen, errosarioa eta Gurutze-bidea ohikoak izaten ziren baserri gehienetan. Santuen bizitzen inguruko irakurketak ere maiz egiten ziren. Erlijioak garrantzi handia zuen ataundarren eguneroko bizitzan, errezoetatik eta mezatatik aparte, kristau-moralak beste hainbat esparrutan ere baldintzatzen zituen herritarrak:

«Bezperataa juten baziñen oso ondo, baiño bezperataa junbe paseatzen bazeintzen ezkutau bearra izaten gendun. San Gregorioko apaizea oso gaiztoa zan gauza oitako, dantzatakota... ». (Adelita Apalategi).

Beraz, elizaren kontrol soziala oso handia zen. Elizak ezartzen zituen jarraitu beharreko arau moralak. Dena den, hiri eta herri handiagoetako jendearekin izandako harremanengatik gauzak aldatzen hasi ziren urte haietan. Honakoa jaso zuen Joxemiel Barandiaranek 1925. urtean:

«Duela oraindik hiru urte, kaminoan edo beste leku publiko batean sexu ezberdinetako bi gazte elkarrekin paseatzeak gaizbide handia sortarazten zuen Ataungo Sangregorion (...). Apaiz Jaunak, era berean, mutil batek lagundua egurasten zen edozein neskatxa Mariaren Alaben Kongregaziotik egoztearekin mehatxatu zuen. Neurriak beronen efek-

tua sortzen zuen. (...). Gaur (...) ez dute Ataungo giroaren pisua hainbeste sentitzen eta Kongregaziotik at irauten dute eta, are gehiago, beste hiriska batzuetan ezein Kongregazioren partaide ez diren, edo Kongregatzaileak izanik, beste sexuzko gaztearekin ostera egin eta “agarraoan” dantzatzen duten balio handiko neskatxak badaudela esanez justifikatu nahi izaten dute beren jarrera eta jokabidea»¹⁵.

Aldaketa bakan batzuk hasiak baziren ere, erlijioak presentzia handia zuen 36ko gerra aurreko Ataunen. Herri kristaua izanik bokazio erlijiosoko herritar ugari ziren. Luis Barandiaranen arabera, (1981)¹⁶Ataunek fama hirukoitza zuen: Mikelete, lapur eta bokazio erlijioso askoko herria izatearena.

Ataungo apaiz, elizgizon eta emakumeei buruzko datuak bildu zituen Joan Arinek *Clero y religiosos de Ataun*¹⁷ liburuan. Liburu hau izan daiteke Ataungo bokazio erlijiosoen lekuko. Arinek jasotakoaren arabera, honela laburtu litezke XVI. mendiaz geroztik Ataungo elizgizon eta emakume erlijiosen kopuruak:

• Apaiz sekularrak:	135
• Apaiz erregularrak:	73
• Klausurako mojak:	35
• Kongregazioko mojak:	91
• Serorak:	42 ¹⁸

Fedearen garrantzia ukatu gabe, erlijioso bizitza hautatzearen atzean egon zitezkeen arazoak aztertzea ariketa interesgarria izan liteke. Erlijioso bizitzak, besteak beste, ikasteko edo toki ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen zuen. Gainera, senide askoko familietan, seme edo alaba baten mantenua aurrezteko bidea zen. Joxe Arratibelek oso ondo azaltzen du nola izan ohi zen fraide edo moja izateko deia:

«Nik uste modu askotara izaten zela deitze hori. Gehienetan frailea joan ohi zen eskolara eta han hurrei hitz egiten zien. Beste batzuetan apaizarengana joango zen eta apaiza gurasoengana; batez ere, famili handi samarra edo zegoen etxera. Eta gurasoek ikusiko zuten, ze abelera zegoen etxean edo umeak joan nahi zuen». (Joxe Arratibel)¹⁹.

¹⁵ *Ibid.*

¹⁶ BARANDIARAN, L (1981). *Op. cit.*

¹⁷ ARIN, J. (1964). *Clero y religiosos de Ataun*. Montepio Diocesano. Gasteiz.

¹⁸ *Ibid.*

¹⁹ ARRATIBEL, J. (1995). *Op. cit.*

Bere kabuz eta behartsuenei laguntzeko asmoz joan zen moja Anttoni Etxeberriaren ahizpa²⁰. Oso gogoan du Anttonik ahizparen erabakiak etxean sortutako giroa. Anttoniren amak ez zuen alaba hain urrun joaterik nahi:

«Monja jun beartzola, “monja jun beartzu? Nobio dauken da!” “Bai esango diot nik motilleri, ta nik monja jun beaet. Motillekikoa eingo det nik”. Preparau ta ala juntzan monja. Ta aizpa monja ez juteko zenbat enpeño aizpa bestek eta amak. “Bai ama an daula premie”, “emendiore zerua jungo zea umea, emendiore”, esate omentzion, “emendiore jun daike zerua” “ez, ez, nik autza jun beaet, an dare aik eta gaixok”. Emendik juntzanen, ni oian lo utzi nittun, oixe dauket gogon. Emendik Sanguesaa juntzien, geo Sanguesatik Madrida eta Madrildik artu zuen beste lekutaa». (Anttoni Etxeberria).

Elizaren egutegiak markatzen zituen **fiesta egunak**. San Martin, San Gregorio eta Santa Ixabel egunak izaten ziren herriko hiru auzoetako jaietako egunik garrantzitsuenak. Parrokiaren zaindariaren jai eguna zela eta, sendi bakoitzak bazkaria prestatzen zuen, beste auzo edo herrietako familiartekoa-ak gonbidatuz.

San Joan eta San Pedro egunak ere data seinatuak izaten ziren ataundarrentzat. San Pedro egunez, Ataungo gazteak, Urdiain eta Altsasuko muga San Pedrori eskainitako ermitan ospatzen zen erromeriarantz joaten ziren. Joan-etorria Bernoko mendi-lepotik egiten zuten. Erromeria izaten zen orduko festa, udako jai arratsaldeetan.

Horrelakoa zen, oro har, 30eko hamarkada hasierako ataundarren bizimodua; gizarte industrializatu baten atarian baserria bizibide eta lanbide zuten ataundarrek. Lana, familia eta erlijioa ziren beraien lehentasunak. Hala ere, apurka-apurka galtzen ari zen Joxemiel Barandiaranek pasarte honetan deskribatutako herriaren bizimodua:

«Aurreko mende amaierako eta honen hasierako Ataungo biztanleen bizimodua tradizioz jasotako egitura instituzionaletan oinarritzen

²⁰ Mercedes Etxeberria Aierdi: Frantzisko Etxeberriaren eta Frantziska Inazia Aierdiren alaba. San Gregorioko Larrunza etxean jaioa 1894ko uztailaren 5ean. 1914ko urriaren 5ean sartu zen Mariaren Alaben Kongregazioak Zangotzan zuen komentuan. 1915eko martxoaren 13an Zangotzako etxea utzi eta aipatu Kongregazioak Madrilen zuen nobiziadura joan zen. Madrilgo Sanjurjo auzoko etxean denboralditxo bat egin ostean Valentiako Sueca herrira destinatu zuten; bertan lau urtez irakasle egon ostean, Puerto Ricora joan zen. 1926ko ekainaren 3an hil zen gibekeko gaixotasun batek jota. ARIN, J. (1964). *Op. cit.*

zen. Nekazaritza eta abeltzaintza zituzten ogibide. Etxeak eta bazterrek, zegozkien familiarekin, neurri batean autonomoak ziren unitate ekonomikoak osatzen zituzten: etxekoei garaiko elikadura gartsua ziurtatzen zien baserriak; jantziak, oinetakoak eta lanerako tresneria sortzeko lantegia zen baserria; gelek tenplu ezaugarriak zituzten eta etxea familiaren panteoia zen. Noizbehinka ematen ziren ikazkin, basagizon eta segalarien elkarteek, osagarri bat ekartzen zuten familiaren aurrekontura. Lanbide eta ofizioak estuki lotuak zeuden Jainkoaren tresnatzat ematen edo hartzen ziren elementu naturalekin. Erljioaren eta etikaren ezagutza eta praktika lehenik etxean jasotzen ziren, eguneroko bizimoduan; ondoren elizan. Hizkuntza –euskara– gainerako elementu kulturelekin erlazionatua zegoen. Horrelakoak ziren antzinarako kultura eta gizartea osatzen zuten ezagutza eta balioak»²¹.

²¹ Joxemiel Barandiaranek Joan Arinen *Clero y religiosos de Ataun* libururako idatzitako hitzaurretik jaso. Jatorrizko gaztelaniazkoetik euskaratua.

*«Gerrea? Oain esangoizut:
Gerrea etorri zan Santio eunez»*

(Joxe Erauskin)

GERRAREN HASIERA

1936ko uztailearen 18an hasi zen gerra. Tropa nazionalak bezperan altxatu ziren, Melillan, Espainiaren menpeko ziren Marokoko lurretan. Altxamenduarekin bat egin ala Errepublikari leial izaten jarraitu, bietarik bat erabaki beharra izan zuten kuartel militarrek. Altxamendu militarrek ez zuen Espainiako armada guztiaren babesa izan, baina, bestetik, Errepublikako Gobernuak ez zuen asmatu altxamendua baretzen. Horrek gerra ekarri zuen. Eta Espainia bitan zatitu zen, baita Hego Euskal Herria ere: Gasteizko eta Iruñeko militarrek (eta Araba eta Nafarroa osoak) altxamenduarekin bat egin zuten segituan, Bizkaiak Errepublikaren aldeko jarrerari eutsi zion, eta Gipuzkoan egoera nahasia izan zen lehen egun haietan: Donostian altxatu ziren militarrek segituan baretu zituzten errepublikarrek, baina bi hilabeteren buruan menperatu zuten eskualde osoa tropa nazionalak.

Gerra hasi eta astebetera sartu ziren erreketek Ataunen. Astebete horretan ataundarrak ez ziren gehiegi mugitu, ez zuten antolatzeko astirik ere izan. Nabarmenago izan ziren, batetik, Beasain aldetik eskopetaz armaturik zetozen errepublikarren joan-etorriak eta, bestetik, Olaztitik eta Altsasutik ihesi zetozenena. Joan Eskisabelek *Nondik* aldizkariari²² kontatu zionez, behin talka egin zuten batekoek eta bestekoek:

«Hoietako egun batean txoke bat izan zen, Baztarrika aldean, errepublikanoen artean. Beasaindik zetozen batzuk eta Nafarroa aldetik besteak, kontraseina ezin ulertua izan omen zen eta hoietako bat hil egin zen». (Joan Eskisabel).

²² NONDIK aldizkaria 17. zenbakia 1987ko martxoa. *Gerra Zibila Ataunen*.

Halakorik berriro gerta ez zedin, eta kanpokoan joan-etorriak kontrolatzeko asmoz, Ataungo nazionalistek Defentsarako Junta antolatu zuten, eta goardiak egin zituzten.

Gerra hasi eta astebetara, Malcamporen zutabea sartu zen Atauna, Mola jeneralak zuzendurikoa. Mola jeneralak hiru zutabe bidali zituen Gipuzkoara. «Ortik naparrak etorri zien, reketek; Jeneral Mola zan ortio», gogoratzen du Sabino Auzmendik. Lezaungo bikarioa eta Lazkaoko Markesaren semea tropekin zirela gogoratzen dute herritarrek. Nafarroatik Etxarri Aranazen barrera sartu ziren tropak; Lazkao eta ondoren Beasain zituen jomuga zutabeak. «*Venimos a defender la misión, a defender la religión. ¡Viva Cristo Rey!*», esanaz sartu zirela akordatzen da Felix Eskisabel.

Santiago eguna zen. Eta asko eta asko bezperetara zihoazen, elizara. Arratsaldean sartu ziren San Martina. Lizarrustitik San Gregoriora eta handik San Martina ezin izan zuten jaitsi tropek, Kaxeta parean bidea moztuta baitzuten, zubia botata.

«San Martiña menditi pasau zien, da batzui aindu zien bidea eakusteko, bestela il eingo zittuela. Eze esateik etzeon, jendea estu eontzan emen, bai». (Joxe Agirre).

Gerra bizi izan zuten guztiek dute gogoan egun hura:

«Gerrea? Oain esangoizut: Gerrea etorri zan Santio eunez. Gu bi anaiok, Patxi zaarrena ta ni, aitte jaunekin bezperetaa jun giñen. Ta Agerreko gañen ikusi giñuzten nola zetozen soldaduk, mendiz etoi zien». (Joxe Erauskin).

«Bai, bai, gerrea nola allau zan akordatzen naiz. Gauen, illuntzen, gizonak alde intzuen etxetik. Gero, urrengo goizen, jakin gendun Nafarroa beste aldetio pasau ziela». (Teresa Agirre).

«Nik gerrea etorri zanen hamar urte eitteko neuzken, Santiago eunen sartu zien onea, oaindio gogon dauket». (Sabino Auzmendi).

«Goatuko enaizpa! Zazpi urte neuzken. Santiago atsaldea zan reketek etorri zienen. Emengo gazte danak Usategiko kobaa juntzien». (Felix Eskisabel).

Adin bateko ataundarren memoria kolektiboan Santiago Eguna egun esanguratsua da, zama historikoa duena, eta, era berean, Agerre baserria ere ez da esanahirik gabeko gune bat, alderantziz, 36ko gerra esplikatzen hasteko erreferentzia da askorentzat, batik bat, San Martingo auzotarren kasuan.

36ko gerraren samina gune zehatz bati eta egun zehatz bati lotua dago ataurdarren memoria kolektiboan²³.

«OLLOK GEA GU». ERRESISTENTZIA EZA

Bidea moztuta egotea izan zen erreketeeek Atauna sartzeko aurkitu zuten oztopo bakarra. Ataundarrak zuhaitzak bidean gurutzatuta saiatu ziren Nafarroatik zetozen erreketeei kaminoa mozten. Beasaindik etorritako errepublikarrek, berriz, Kaxetako zubia bota zuten, Lizarrustitik behera San Gregoria sar ez zitezen:

«Arbolak erriko jendek botako zittun, arbolak bertan zeren ta arbolak botatzea xamurre zeon, aizkorea artu ta jo ta bota, ta kamiñun kruzauta jarri». (Joxe Erauskin).

Zuhaitzak bidean gurutzatuta nahikoa ez, eta «beasaindarrek» Kaxetako zubia bota zuten, dinamitarekin. Gertakari horren lekuko izan zen Markox Jauregi:

«Beti kezkea. Goizen bota in beartzuela zubie, eta nearrez, gue ama gaixok esantzien or bazala zubi geiau, ta emen etxeri zerbait ingo zitzaiola bestela... ta juntzien gora, baiño beela bueltau zien, beste zubik motxagok zielata entorpezimendu gutxi zalata, nunbait errezagot arreglauko zuelata, au bota zuen beasaindarrak. Gue ama gaixoa nearrez. Gu or ata giñen maldaa, ta ikusi non nola sartu zittuen explosiok, ta ixkiñaik ixkiña eroi zan zubie. Zubie bota ta petrille gelditu zan, orren gaiñetio nola pasau zien presentziau non nik». (Markox Jauregi).

Bide mozketa horretako partaideetako batzuk ataurdarrak izan zitezkeela ere zabaldu zen:

«Urkuelakok zien bi anai, bat Antonio zan ta bestek eztaiz izena zertzon, Kaxetako zubie botatzen ue ibili omentzan. Gu goiko belardi baten ai giñen belarretan, ue bota zuenen». (Joxe Mari Apalategi).

Lizarrustitik Agautzik behera Erremediora, Erremediotik Bedamako zelaira, Itaundietatik Agerrera eta Agerretik Iztatorrera jaitsi ziren tropa nazionalak, Mola jeneralaren agintean, Lezaungo apaiza buru zutela.

²³ ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, J. I. (2007) *Memoria y trauma en los testimonios de la represión franquista*. Anthropos. Bartzelona.

Agerretik Arratetara iristean alkate-ordea atera zitzaien bidera, Iztatorberrikoa; inori ez zietela okerrik egingo eta sartu ziren herrian erreketek. Bidebieta hartu zuten kuarteltzat. Tiro hotsak ere izan ziren bertan:

«Bidebietan esiñako tirok izantzien. 17 urteko soldadue esantzuen zeola goardiñ, ta kotxeat etorri zan ta onek alto in... beintzet mutill onek urratun bat izan beartzon balekin, ta kotxekok alde in omentzuen, kotxea utzita. Urrengo eunen etxek, sorok eta metak danak registrau zittuen, gue etxeare bai». (Joxe Erauskin).

Ez zen tiro hots handiagorik izan. Ataundarrek ez zuten ez muniziorik, ez antolamendurik defentsarako. Oso bakanak izan ziren tropei aurre egiteko ahaleginak. Azentzio Zeberiorena kontatzen du *Nondik*²⁴ aldizkariak:

«Naparrak hemen diela. Ollok gea gu, ollok, lau eskopeta nahikoatuk hoik bialtzeko». (Azentzio Zeberio).

San Martindik gero igo ziren San Gregoriora tropak:

«Santiago eune zan, ta orduntxe bezperatatio etxeaka. Ta bi rekete jetsi zien, naparrak, ta '¡Arriba España!', ta guk zer gendikiun, gora o beera zer esan bear gendun». (Adelita Apalategi).

Herrian sartu eta berehala, miaketa lanak egin zituzten erreketek. Luze gabe, Batzokia itxi zuten. Lau urte zeramatzan Batzokiak irekita, 1932. urtetik. Hango altzari, tresna eta traste guztiak saldu egin zituzten, pezeta batean aulki bakoitza. Batzokiko irratia Nafarroara eraman zuten. Tropak herrian sartu eta zortzi egunera nekazarien sindikatuan sartu ziren nazionalak eta, Pilar Barandiaranek Joxemiel Barandiarani kontatu zionez, 17.000 pezeztan saldu zituzten sindikatuan zeuden generoak:

«Bazen nekazaririk, egun batzuk lehenago gari uzta guztia sindikatuari entregatu zionik, eta sindikatua miatu ondoren, bere ondasunengatik batere kobratu gabe gelditu zenik»²⁵.

Sindikatuan zegoen San Isidoren irudia Nafarroara eraman zuten.

Hauteskundeetan ezkerreko alderdien alde bozkatu zituztenen etxeetan ere sartu ziren erreketek. Baina ez zituzten aurkitu.

²⁴ NONDIK aldizkaria. *Op. cit.*

²⁵ GAMBOA, J. M. eta LARRONDE, J.C. (2006). *La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Editions Bidasoa, Milafranga.

ARGIA PIZTU GABEKO GAUA. EZKUTATZEAK ETA IHESALDIAK

Miaketak egiterako, jende askok egin zuen ihes etxetik. Gizon gazteek gerrara eramango zituzten beldurrez egin zuten ihes. Beste asko eta askoren artean zegoen Benito Arruabarrena, eta 71 urte geroago gogoan zuen 23 urterekin eta hainbat lagunekin bizi izandako ezkutaldia:

«Leendabizi Usategiko kobaa jun giñen, iru gau eman giñuzten an, alde inda koadrillek, beste gau bat Dorronsoko belardin eman gendun». (Benito Arruabarrena).

Hain gazteak ez zirenak ere ezkutatu ziren, badaezpada ere. Orduan hamar urte izan arren, ondo gogoan du ordukoa Felix Eskisabelek:

«Gue etxen aitte bizi zan, treinta y nueven iltzan, ta etxen esatenzien: “Iñixio, jun ai ba”, ta “eon ai isilik neska, nereana zea etorriko den!” Azkenen Saltzeko ollategia juntzan gaue pasatzea, Estraberriko Felipe zana ta bik». (Felix Eskisabel).

Aian gizonek mendira alde egin zuten, Joxe Agirrek dioen moduan, «aaltzuen lekutaa». Teresa Agirre arrebak gogoratzen du «emakume jendea ta umek» Aldaburura joan zirela: «Argie piztube pasau genun gaue danok, bildurrez». Bibiana Munduatek gogoratzen du Aia auzoko hiru gizon nola ezkutatu ziren:

«Nazionalistak zien. Ta iruek, mantak artu ta bazpare kobataa juntzien, an Larbu gaineko kobataa. Eamango ote zittuen beldurrez. Olako asko pasau zan ordun. Majiñat iltzuen ordun, kulpa aundipe». (Bibiana Munduate).

Egun gutxitako ezkutaldi horiek baino luzeagoak izan zen ihesaldirik ere gertatu zen, Felix Eskisabelek kontatzen duenez:

«Asintxio zan komunis... gorrie, ta karo arren billa zeitzen. Kommerik zien emen. Aalarra aldein ementzon. Eta geo orren andrea, Joana, gue etxea etorri zan, aber Aalarra jungo altzien gue aitte zanai ta Estraberriko Felipei, arren billa zeiltzela ta ez azaltzeko esatea. Pentsau ze konpromisokin juntzien gurek Aalarra». (Felix Eskisabel).

Gerrarekin beldurra sartu zen Atauna. «Oixe beldurre ematentzuela, gu gaiñea eze ikusibekok giñen! », nabarmentzen du Sabino Auzmendik.

«PURGA RÁPIDA Y EFECTIVA». FUSILATZEAK

Gerrak beldurra ekarri zuen. Eta gerrak heriotzak ekarri zituen. Eta heriotzek beldurra. Ataunen ez zen izan erresistentzia handirik gerra hasieran, baina bai hildakorik.

36ko gerran hildako lehen ataundarrak Urkuelako bi anaiak izan ziren. Francoren tropak sartu eta gutxira atxilotu zituzten, beren aurka eta II. Errepublikaren alde armak hartu izana leporatzen zieten. Urkuelakoei gertatutakoa horrela kontatu zion Markox Bidegorrietak *Nondik* aldizkariari²⁶:

«Urkuelako bi anai hauek, Donostiatik zetozela harrapatu zituzten, beraien brazalete eta guzti, uste dut pistolak ere bazeramatzatela. Gizarajoak ustekabea, etxera zetozela detenitu zituzten, ezertan parte hartu gabeak ziren». (Markox Bidegorrieta).

Urkuelako bi anaiak Iruñera eramán eta bertan fusilatu zituzten. Apaolazatarrak ziren, 19 eta 20 urtekoak.

Gerran hil ziren lehen herritarrak izan ziren Urkuelakoak. Baina herrian beste hainbat ere hil zituzten, gerra hastearekin batera. Lizarrustin fusilatzeak ugaritu egin ziren tropa frankistak Beasainen eta Ordizian sartzearekin batera. Ez bat eta ez bi, «auskalo zenbat» hil zituzten Lizarrustin, Joxe Agirrek gogoratzen duenez:

«Nik iru ikusi nittun nola zeren Kaxetatik goragon kamiñu bazterren. Garotaa gindoazen ni ta Teresa, biok giñen... eta esan nion “ez etorri geiau onea”... ikatu giñen gu. Ta guardian zeon txapelgorri bateke ala esantziun: “Alde emendio, ez beidau oi!”». (Joxe Agirre).

Markox Jauregik ere ondo gogoan du gertakari hura:

«Ni mendia nijon goiz artan, basagizonak lanen zeren ta beti eamaten giñun emendio jatekoa; kaballerikin nijon ni, or rebueltea pasau ta kunetan iru pertsona ikusi nittun. Kaballerie izutu zan ak ikusi zittunen ola. Oi salbajadea zan». (Markox Jauregi).

Lekuko izan ala ez, herrian berehala zabaltzen ziren fusilatzeen berriak, denen belarrietara iristen ziren:

«Iru billau zittuen Kaxetatik gora Kamio muturre esaten diu guk, Errondo paren goiko zeon mandokin zijozela, mandoa geldittu omen-

²⁶ NONDIK aldizkaria. *Op. cit.*

tzan da, beida jarri die ta iru laun ilda. Iru zien. Bat Ordizikoa zan, ezautzen non, Ordiziko Samaniego». (Joxe Mari Apalategi).

Fusilatua Aiako hilerrian lurperatu zituzten.

«Emen Kaxetatik gora nik badakit bi nun enterrau zittuen. Geo, andik denboakin, Aieko kanposantua eamantzittuen. Erriko aintamentuk autorizauta». (Joxe Mari Apalategi).

Gertaera hura Joxemiel Barandiaranek ere jaso zuen:

«Gau batean hiru gizon fusilatu zituzten (bi Ordiziakoak eta bat Itsasondokoa) Erroiondo baserriaren gainetik doan errebueltan. Haiek zekartzaten guardiak ez ziren ausartzen hiltzera. Horregatik Ataun San Martinen gaueko goardia egiten ari zirenen artean boluntario bat eskatu zuten, gizon gizarajo haien exekuzioa burutu zezan. Ariketa kriminal hartarako bere burua aurkeztu zuen Joxe Antonio Urdangarin gazteak, Zeferino Urdangarinen semeak, Auzmendi baserriko bizilagunak. Eta hala burutu zen erailketa hirukoitz hura».

Joxe Antonio Urdangarin bera gerrako lehen lerroan hil zen gerora.

Baina ez ziren haiek Lizarrustin fusilatutako bakarrak: «Makiñat gizon» hil zituztela du gogoan Adelita Apalategik; «auskalo zenbat, auskalo zenbat», dio Joxe Agirrek. Ikusi ez zuenak entzun zuen fusilatzeen berri; asko, gainera, eza-gunak ziren:

«Nere koñatan koñado bat, Amerikan izandakoa: eamantzittuen bost laun gauez; etorri etxea, ta jeiki oitik, oiñetakok jantzi bearrik etzeukela, galtzerdi utsen eamantzittuen Lizarrastia. Ue iltzeako, abixue Beasaindio, ue ez iltzeko. Ta bizik ata zan. Bizik utzi zuen. Beste lauek, antxe il. Kulpa aundik etzuen izango». (Bibiana Munduate).

Joxemiel Barandiaranek jaso zuenez²⁷, frankistek hildako zortzi lagunak gorpua agertu ziren Ataunen. Haietako batena Lizarrustira doan bidean, Beltsuatseko sasietan agertu zen. Olaberriako beste gazte bat Lizarrustiko Quifosa produktu kimikoen fabrikaren ondoko errepidean hil zuten. Gorpua lurperatu zuten lekua haritz artean markatua egon zen, errepidearen gainean.

Fusilatzea altxamenduaren bezperetatik aurreikusten zen baliabidea izan zen, aurrez idatzi baitzuten jazarpena nola bideratu: «*Purga rápida y efectiva, con castigos ejemplares y serias en su realización, para reducir lo antes*

²⁷ GAMBOA, J.M. (2006). *Op. cit.*

posible al enemigo»²⁸. Mola jeneralak gerra hasi aurretik garbi adierazi zuen zer-nolako indarkeria baliatuko zuen: «*Acción en extremo violenta para reducir lo antes posible al enemigo...*»²⁹ Oso sonatua izan zen Molaren esaldi horren zentzu berekoa zen Ignacio Arrieta erreketen tenientearen pentsamendua; honela deskribatu zituen erreketek:

*«Fieras sedientas de sangre humana. El espíritu que los anima se condensa en estas frases que se oyen en cada momento: “Hay que matar a todos los rojos, a todos los nacionalistas vascos y simpatizantes, a todos los sospechosos”»*³⁰.

Beste hainbat ataundar ere inplikatu ziren fusilatzeetan nahiz eta beren borondatearen kontra izan. Honela dakar Barandiaranek *La guerra civil en Euzkadi* liburuan, Pilar Barandiaranek kontatua:

«Eugiko mendietan Ataungo basamutil batzuek egiten zuten lan 1936ko udan. Gau batean lau falangista etorri zitzaizkien, lau atxilotu-ekin. Beren fusilak eskainiz, atxilotuei tiro egiteko gonbita egin zieten basagizonei. Basamutilek uko egin zioten hiltzeari. Orduan falangistek, agindua bete ezean, bertan hilko zituztela meatxu egin zieten. Bel-durturik basagizon gizarajoeak, azkenean hura zela justiziak agindutakoa ikusirik –haiek ez baitzuten matxinada justu eta injustuetaz ulertzen–, obeditzea erabaki zuten bizia galdu aurretik. Haietako bat, Joan Galparsoro (Peruneberria baserrikoa), zorabiatu egin zen arma hartzean. Besteek, Joan Aierbek (Tellerietxea baserrikoa), Fermin Barandiaranek (Goikoetxeakoa), Joxe Migel Goikoetxeak (Arinetxeberriakoa), atxilotuei tiro egin zieten, haietako hiru hilez. Laugarrenak ihes egin zuen, eta gauaren iluntasunean ezkutatu zen, bizkortasunez autoen faroek argitzen zuten gunetik ihes egitea lortuz, han izan baitzen ekintza triste hura, autoen faroek argituriko eszena hura. Falangistek hiru fusilatutako lurperatzeko agindu zieten basamutilei: hala egin zuten. Falangistak joan zirenean, ihes egindako atxilotua basamutileen aurrean agertu zen, eta Gasteiza zihoala azaldu zien. Basamutilek, behin beren herrian, Ataunen, ez zuten gertatutakoa kontatu, hiru fusi-

²⁸ LASA, X. (2006). *Ahozko historia: Oroimenean lokartutako ahotsa. Gerra Zibilaren (1936-1939) eragina Gipuzkoako herri bateko bizitza sozialean. Andoain: Askatasunaren alde eta frankismoaren aurka borrokatu zutenak oroituz. Oroituz Andoain* 36. Andoain.

²⁹ AIZPURU, M. (zuzendaria) (2007), *1936ko Udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Albedania Memoria. Irun.

³⁰ GAMBOA, J.M. (2006). *Op. cit.*

latuak lurperatzera behartuak izan zirela besterik. Geroago ezagutu ziren gainerako xehetasunak»³¹.

Beste herritar batzuei ere Ataundik kanpo egokitu zitzairen fusilatzeen lekuko izatea. Hori izan zen Joan Eskisabel zenaren kasua, frontean izan zen gertakari honen lekuko:

«...Hor preso egindakoak (16 lagun) fusilatzeke, beste konpainian boluntarioak eskatu zituzten (3 konpainia genbiltzan gu), baina inor boluntario ez zen atera eta azkenean konpaini osoa obligatu zuten herritarrak afusilatzeke. Poliziek apuntatzen zituzten soldaduak, gizarajo haiek afusilatzen zituzten bitartean, herritarrak “asesinos” deitzen zitelarik poliziei»³². (Joan Eskisabel).

Lizarrusti fusilatze ugariaren eszenatoki izan zen. Baina Ataunen hildakoez gain, etengabe etortzen ziren herrira Urbanan fusilatutako jendearen berriak. Urbanan, Balcon de Pilatos deituriko tokitik behera botata zehazki, ehunka lagun erail baitzituzten 36ko gerrarekin frankistek:

«Asko kamionen artu ta Urbanan eamaten zittuen, Balcon de Pilatosea, ta andi bera bota: ta-ta-ta». (Felix Eskisabel).

Gerra hasi berrikan fusilatzeak ugariak eta doakoak izan ziren. Inolako epaiketarik gabe eta errepede izkinetan hil zituzten herritarrak, Ataunen bezala Hego Euskal Herri osoan eta baita Espainian ere. Zigorra, mendeku pertsonala, besteei beldurra eragitea... nahikoa motibo izan zitekeen jendea fusilatzeke. Eta fusilatze haiek herrietako jauntxoek edota Guardia Zibilek antolatzen zituzten normalean. Bi garai bereizten dira 36ko gerran fusilatzekei dagokienez: batetik, gerraren hasieran, inolako prozedura legalik gabe egiten ziren hilketak. Fusilatua izango zenaren aurkako salaketa sekretismo osoz egiten zen, salatzailea zein zen eta ze argudio zituen publiko egin gabe. Geroago, arautu egin ziren, nolabait, fusilatzeak. 1936ko urriaren 17an Pro-bintziako Ordena Publikoko Junta sortu zen Gipuzkoan, eta fusilatzeen nolabaiteko kontrola hartu zuen erakunde horrek. Gerra kontseilu horiek ezarri zituztenean hala-moduzko epaiketetan erabakitzen zuten heriotza zigorra ezartzea. Gerra kontseiluaren arabera, gatibu guztiak epaitu egin behar ziren, eta epaiketa gehienak Donostiako Loiolako kuartelean egiten ziren. Hildakoen kopuruak ikusita, hala ere, argi dago errepresio militarren ondorioz

³¹ *Ibid.* Jatorrizko gaztelaniazkoetik euskaratua.

³² NONDIK aldizkaria. *Op. cit.*

hildako euskal herritar gehienak gerra kontseilurik gabe hil zituztela. Hala, ezin konta ahalako errepublikar kopurua, gerra gatibuak, euskal apaizak edota abertzale ugari hil zituzten nazionalak.

Ataundik kanpo, baina Gipuzkoan bertan, Hernanin, Oiartzunen, Getarian, Orion eta Altzolako bainuetxean hamaika fusilatze izan ziren.

Fusilatzeek zuzeneko eragina izan zuten batzuegan: heriotza zekarren, baina beste batzuen kasuan, gehien kasuan, fusilatzeak zeharkako indarkeria dira, hau da, beldurra eragiten dute. Ondorioz, fusilatzeak atzeko lerroa kontrolatzeko baliabide zorrotza izan ziren nazionalentzat. Fusilatua izateko beldurrak jarrera aldaketa dakar, nazionalak atzeko lerroaren jarrera kontrola zezaketen fusilatzeen bidez eragiten zuten beldurrarekin³³.

Fusilatzeak, alabaina, ez ziren nazionalen kontua bakarrik izan. Elizgizon eta emakumeek ere jasan zuten jazarpenera errepublikarren aldetik ere. Alabaina, Espainiarekin alderatuz, Hego Euskal Herrian elizgizon eta elizemakume gutxi hil zituzten errepublikarrek; Gipuzkoan guztira lau hil zituzten. Bi ataundar, baina, Gipuzkoatik kanpo hil zituzten. Iparragirreko Justa Maiza Goikoetxea, Karitateko karmeldarra, errepublikarrek hil zuten Madrilan; baita Telleriazpiko Joxe Manuel Arin Dorronsoro ere. Bien berri zehatz-zehatz jaso zuen Joan Arinek *Clero y religiosos de Ataun* liburuan.

«Askok sufritu zuen erlijiosoen aurkako jazarpenera, beraiantzat 1931n hasi zen jazarpenera. 1936ko hauteskundeak emaitzek Fronte Popularrari eman zioten garaipena, eta, data horretatik aurrera, ugaritu egin ziren irainak eta egoera jasanezina bihurtzen ari zen. Mojak, kamaradek ordezkatu zituzten eta Erruki-etxe santutik atera ziren eta Cambios kaleko pisu batean jarri ziren. Haietako hamabi, eta beraien artean zegoen Justa ahizpa, atxilotu egin zituzten 1936ko azaroaren 17an eta F.A.I.-ko komisaldegira eraman zituzten (Gravador kalea, Esteve, 4), eta banan-banan deklarazioa hartu zieten, eta hilaren 19an Epailaren sententzia entzun zuten. F.A.I.-ko komisaldegitik atera, eta Alascuasko emakumeen kartzelan sartu zituzten hilaren 24an, goizaldeko 5etan, Paternako Hezitokia (Picadero) deituriko lekura eraman zituzten kamioiz, eta han, beste 11 mojarren konpainian, Justa Maiza ahizpa exekutatu zuten, 39 urterekin».

³³ BLAIR, E. (2005) "La violencia frente a los nuevos lugares y / o los otros de la cultura" in *Nueva Antropología Revista de Ciencias Sociales*, nº 65.

«Gerra hasi zenetik, marxistek molestatu egin zuten. Bera, gainera, Felipe Arin 11. epailearen anaia zen, gorriek atxilotu nahi zuten magistratuaren anaia. Behin epailearen etxean sartu ziren eta bulegoan familiako argazki bat ikusi zuten, epailearekin batera bere osaba Felipe Arin Zurutuza apaiz agurea; bere beste osaba bat Fr. Andres Ataungoa kaputxinoa, eta bere hiru anaia, Ataungo Hilario kaputxinoa, Txileko Santiagon misiolari zena, Jose Manuel Arin jesulaguna eta Don Joan Arin apaiza. –Begiraiozue, esan zuten, bere anaia guztiak apaizak eta fraideak dira; ze justizia egin behar du epaile honek. Argazkia, toga eta bastoia hautsi zizkioten. Geroago, Jose Manuel anaia atxilotu zuten, Jesusen Konpainiako beste elizgizon batzuekin batera, eta Modeloko espetxera eraman zuten lehenengo, eta San Antongora ondoren. Epailearen aurrean bere sinesmen kristauen eta jesuita izatearen inguruko berri eman zuten. Herri Auzitegiak heriotza zigorrera kondenatu zuen. Hurrengo egunean exekutatu zuten. Heriotzaren lekuko izan zirenen arabera, oso goiz atera zuten kartzelatik. Bere izena San Antongo kartzelatik azaroaren 27, 28 eta 29an atera zituztenen artean dago, Jaramako Paracuillon exekutatu zituztenen artean, Madrildik 12 kilometrorra. Bere heriotza akta Madrilgo Erregistro Zibilean agertzen da, 214. liburuan, 325. orrian, 1002 zenbakidun akta da»³⁴.

Justa Maiza Goikoetxea beatifikatu egin zuen eliza katolikoak 2001eko martxoaren 11n, «inolako inplikazio politikorik izan gabe, Jainkoagatik bere bizia eman zuelako»³⁵.

36ko gerrako fusilatuen zenbaketa zehatza egitea ziurrenik ezinezkoa izango da. Heriotza asko eta asko epaiketarik gabe gauzatu zirelako eta, ondorioz, ez zirelako inon erregistratu. Errepresioa zuzentzen eta agintzen zuten erakunde ofizialek ez dute gaur egun errepresio horien gaineko agiririk gordetzen, hala nola, Gobernu Zibil, Militar, Justizia Jauregiak, ezta Falangeak edo Gerrako Junta Karlistak ere.

1936ko udazkena Gipuzkoan lanaren arabera, 5.000 exekutatu inguru airtortzen dira Hego Euskal Herrian, erdiak baino gehiago Nafarroan izan ziren³⁶.

³⁴ ARIN, J. (1964) *Op. cit.*

³⁵ www.archivalencia.org. Valentziako artzapezpikutza. Valentzia, 2007.

³⁶ AIZPURU, M. (2007). *Op. cit.*

Euzko Jaurlaritzak 1938ko martxoan egin zuen errepresio frankistaren ondorioak zenbatzeko lehen ahalegina, *La represión franquista en Euzkadi* lanean. Bertan agertzen diren datuen arabera, Euzko Jaurlaritzak Bizkaian ari zuen hilabeteetan hogeitaz hamar heriotza zigor onartu ziren, eta frankistek 20.000 lagun inguru hil zituzten (horietatik 15.000 Nafarroan). Hurrengo hilabeteetan datu hauek eman zituen Jaurlaritzak³⁷:

Euskal herritarrek kartzelatan	30.050
Kontzentrazio-esparruetan eta langileen brigadetan	30.000
Beste zapalkuntza-mota batzuek eraginda: espetxe-zigor arindua, ondasunen bahiketa, 10.000tik gorako isunak, kargugabeteak, atzerriratzeak...	50.000
Herritik aterarazitakoak	120.000
GUZTIRA	230.050

Fusilatuen datuak ere eman zituen txosten horretan Euzko Jaurlaritzak:

Gipuzkoan	2.500
Arabian	400
Nafarroan	10.000
Bizkaian (legez)	453
Bizkaian (legez kanpokoak edo paseatuak)	500
GUZTIRA	13.853

Iñaki Egaña historialariaren arabera, berriz, Gipuzkoan 1.000 lagun inguru hil zituzten frankistek gerra garaian eta gerra ostean, fusilaturik. Heriotza-zigorrera kondenatuen araberrako zenbaketa egiten du, bestalde, Pedro Barrusok, eta honen arabera, 1936ko udatik 1945eko uztaile bitartean, 639 lagun kondenatu zituzten heriotza-zigorrera eta horietatik 485 hil zituzten³⁸. Fusilatze gehienak 1936ko udan izan ziren³⁹.

³⁷ *Ibid.*

³⁸ *Ibid.*

³⁹ Baina 1963an ere errepresio horren zantzuak erakutsi zituen Francoren Gobernuak. Urte horretan Julian Grimau komunista fusilatu zuen Espainia frankistak. Eta gerra hasi bezala amaitu zuen Francok bere errejimena, fusilatzeekin. 1975ean, Francisco Franco hil bezperetan, 1975eko irailaren 27an, ETako militante Anjel Otacgi eta Juan Paredes Manot *Txiki* eta FRAPeke Jose Luis Sanchez Bravo, Ramon Garcia Sanz eta Humberto Baena Bravo fusilatu zituen gobernu frankistak.

Fusilatuekiko fusilatzaile batzuek eta besteek hartu zuten jarrera desberdina izan zen oso. Frankisten aldeko hildakoek aitorten nazionala izan zuten, garaileen aldekoak ziren. Frankistek hildakoak, berriz, isiltasunean eta ahanzturan gelditu dira, denbora luzean. Frankisten aldeko biktimei gorazarre egiteko 1938ko azaroaren 20a dolu-egun nazional izendatu zuen Francok, eta «Espainiaren eta Kristoren alde hildakoak» goraiatuko zituen horrela. Besteek, ordea, ez zuten inolako ospakizunetarako aukerarik izan, ezta haien senitarteko eta lagunek ere dolurako eskubiderik. Askok eta askok hiruzpau hamarkada itxaron behar izan dute beren senideen gorpuak berreskuratu ahal izateko.

«Ir, tirar y todo reventar»

(Manuel Aierbek Benito Arruabarrenari)

*«Markox, ok dittuk ibillarok,
ez altzak iruitzen
obe gendukela ilda
zerun bageunde?»*

(Joxe Zeberioek Markox Jauregiri)

*«Geo esaten due:
“Gerrea, ze ein dizue ba gerrek?”
Ze ezto ein gerrek!»*

(Sabino Auzmendi)

GERRA LEHEN LERROTIK

Errepublikaren kontrako altxamendua 1936ko otsaileko hauteskundeetan ezkerreko alderdiek, Fronte Popularrak, irabazi eta berehala hasi ziren presatzen eskuindarrak. Altxamendu militarren monarkikoen, karlisten, Falange Españolaren eta Comución Tradicionalistaren babesa eta laguntza izan zituen. Hasiera batean Sanjurjo jeneral nafarrak izan behar zuen altxamenduren buru, baina gerra gidatzera Burgosa zihoala hegazkin istripu batean hil zen, eta Mola jenerala eta Franco agertzen ziren gidari posibleen artean, baina Emilio Mola jenerala bera ere hegazkin istripuan hil zen⁴⁰, 1937ko ekainean, Hego Euskal Herria bereganatu ostean. Francok hartu zuen, hortaz, gerraren eta ondoren ezarriko zen erregimenaren gidaritza.

Altxamenduak Italiaren, Alemaniaren eta Portugalen laguntza izan zuen. Mussolinik armak eta tropak bidali zizkion Francori eta Hitlerrek Kondor Legioa. Alemaniatik eta Italiatik etorritako laguntza, batik bat, militarra izan zen.

Sobiet Batasunetik jaso zuen Errepublikak laguntza. Laguntza militarra baino gehiago, zibila izan zen, 100.000 brigadista inguru etorri ziren atzerritik Espainiako Errepublika defendatzera. 36ko gerra iristear zen Bigarren Mundu Gerraren atariko izan zen nazioartean.

Euskal Herriari zuzenean eragin zion altxatuek atzerritik jasotako laguntzak, alemaniarrek bonbardatu zuten Gernika. Alderantziz, ez zen asko narritu Sobiet Batasunetik etorritako brigadisten laguntza.

Frantziako Gobernuak eta Erresuma Batuak *Ez Esku Hartzeko Hitzarmena* sinatu zuten, gerraren aurrean jarrera neutrala gordeko zutela berretsiz.

⁴⁰ 1937ko ekainaren 8ko Ataungo udal bilerako lehen oharrean Molaren heriotzagatik dolua agertzea onetsi zuen udal batzak. L-46 liburukia.

Abertzaleen jarrera, Euzko Alderdi Jeltzalearena hain zuzen, ez zen bate-ratua izan gerraren hasiera hartan. Nafarroako EAJk, bere ideologia katoli-koa eta foruzalea argudio harturik, ez zion leialtasunik agertu Errepublikako Gobernuari, eta ez zuen altxamenduaren aldeko adierazpenik ere egin. Nafar abertzale askok altxamenduarekin bat egin zuten, Iruñetik Somosierrara edo-ta Gipuzkoara etorriz, armak hartzera. Beste batzuk euskal gudariengana ba-tu ziren, Bizkaian Errepublikaren alde borrokatuz. Manuel Irujo eta Jose Mari Lasarte EAJren Madrilgo diputatuak izan ziren Errepublikaren aldeko jarrera argia erakutsi zutenak. Euzkadi Buru Batzarrak Donostian egin zuen bilkura uztailaren 18an bertan, eta zalantza agertu zuen zeinen aldeko jarre-ra hartu. Azkenean, Errepublikaren alde lerratu ziren.

Testuinguru nahasi horretan, 1936ko urriaren 1ean, Euskadiko Autono-mia Estatutua onartu zuten Madrilgo Gorteek, Errepublikako Gobernuak la-gundurik. Jose Antonio Agirre izango zen Euzko Jaurlearitzako lehenengo le-hendakari, 1936ko urriaren 8an Gernikako juntetxean jabetu zen bere karguaz. Euskadiko Autonomia praktikan Bizkaira mugatuko zen, Gipuzkoa eta Araba nazionalen esku erori baitziren berehala, baina aukera eman zuen hilabete batean 40.000 soldaduko Euskal Armada osatzeko. Autonomia Es-tatutuak lotu zuen EAJ Errepublikarekin.

Eusko Abertzale Ekintza –Accion Nacionalista Vasca– Fronte popularra-ri batu zitzaion berehala, komunistek, sozialistek eta errepublikarrek osatu-tako ezkerreko fronteari.

ATAUN PASABIDE

Nafarroatik zetozen tropa nazionalentzat eta errequeteentzat Gipuzkoara sartzeko bide izan zen Ataun. Gerrako lehen egun haietan ikaragarri ugaritu zen errepedeko mugimendua, bi norabideetan. Batetik, Beasaindik, Ordizia-tik, Tolosatik eta beste hainbat herritatik Nafarroarantz zihoazen kamioien bide zen Ataun. Kamioi haietako askok nazionalisten etxeetako altzariak ze-ramatzaten. Eta hala zabaldu zen Iruñea altzariz gainezka zegoela zioen esa-mesa, eta Nafarroako tradizionalistak gipuzkoarrei lapurtutako ondasunekin aberastu zirela.

Altzarien trafikorako bezala, Ataun Nafarroatik Gipuzkoaranzko ihesbide izan zen errepublikar askorentzat. Nafarroak altxamenduarekin bat egin eta karlista asko altxatu ziren arren, ezkerreko eta Errepublikaren aldeko jende asko zegoen Nafarroan, eta errepresiotik ihesi edo Errepublika defendatzera

joanak, Altsasuko eta inguruko ehunka herritarren pasabide bihurtu zen Ataun. Izan ere, Altsasun eta Olaztin bertan, ikaragarritzko errepresioa jasan zuten errepublikarrek. Haurtzaroko xalotasunarekin gogoratzen du mugimendu hura Adelita Apalategik:

«Eun atan, zubie bota zuenen eta gerrea etorri zanen, gu gustoa bizi giñen ordun, 13-14 urte euko nittun nik, eta bueno... Ergonen jendea ikusten gu pozak eoten giñen, gora eta beera jende asko, falangek eta reketek eo zer... da gu danai adios iñez, gutzako ue festea izantzan. Gero Muñoko goiko puntatik Altsasuko asko jetsi zien, danak koadrillan, komunistak ola izango zien. Beasaiña etortzen zien ak asko. Geo urrena asi zien emakumak jexten, gizonan billa, ake pilloa jexten zien. Gerrea sartu zaneko eun atan zan». (Adelita Apalategi).

«Naparro aldetik etorri zan jendea, bueno... dana beten, saillek e! Etortzetzien 40 laun igual, danak batea, iesi! Gorrik. Altsasun bertane jende asko eaman ta il eittentzittuen leizetaa eamandata». (Joxe Mari Apalategi).

ARMAK HARTZERA

Ataundarrak luze gabe eraman zituzten frontera. 1936ko uztailaren 30ean frankistek osaturiko udal-batza berriak 16 urtetik 40 urtera bitarteko mutil eta gizonak armetara deitu zituen. Udaletxean neurtzailearen eta medikuaren azterketa pasatu eta alde ala kontra egon, tropa nazionalen bandoan borrokatu beharko ziren.

23 urterekin eraman zuten soldadu frontera Benito Arruabarrena, besteak beste, Eskitxalgo Manuel, Urezandiko Joan eta Joan Espillakoarekin:

«Eman tropak sartu eta andik sei bat eunea abixue allau zan, aintamentutik. Aintamentun duroat eman, ta fuera, ala eaman ginttuen koadrillea. San Gregorioko Lasak eaman giñuzten Pamplonaa kamionetan, beste batzuk kotxez, ta beste batzuk autobusez juntzien. Etxe paren danak nearrez». (Benito Arruabarrena).

Izan zen udaletxetik zetorren deiari erantzun ez eta armetara agertzen ez zenik, haiek iheslaritzat (prófugo) hartzen ziren. Iheslari horiek bilatzeko eta harrapatzeko agindua ematen zuen udal-batzak eta behin harrapatuta bilaketak ekarritako gastuak ordainarazten zizkieten iheslariei, eta hiriburura bidaltzen, han erabakitzeko iheslariarekin zer egin.

Soldaduskatik eszedente atera eta instrukziorik ez zutenez, Lizarrara joan ziren Arruabarrena eta koadrilla, eta handik Montejurrara, instrukzioa egitera. Instrukzioa egina zutenak zuzenean frontera joango ziren. Berehala irakatsi zieten egin beharrekoa. Hala gogoratzen du Benito Arruabarrenak Manuel Eskitxalgoaren esana: «*Aquí no hace falta, ¡ir tirar y todo reventar!*».

Izan ziren gerrara beren borondatez joan zirenak ere. Markox Jauregi izan zen horietako bat, eta oraindik gogoan du 17 urterekin gerrara joan bezporetako garaia:

«Karlitate emengo ona nai, or difentzie eontzan nazionalistakin... karlistak fuerok bai, baiño separatismo oi etzuen nai... Karlismoa Aien beti izan da... monarkikok, Alfonson aldekok... gu kontajiau giñuzen naparrak...*a defender la patria*, ta oaiñ apartau einai!». (Markox Jauregi).

Erreketek karlista boluntarioen Gipuzkoako lehen tertzioa Beasainen antolatatu zuten, Oriamendi tertzioa, hain zuzen ere, uztailearen 27an. Bi hilabetean prestatzen aritu ziren instrukzio militarrek eginez. Ordurako San Ignacio tertzioa sortua zen Azpeitiko eta Azkoitiko karlistekin, eta urrian Zumalakarregi tertzioa sortu zuten, hura ere Goierri⁴¹.

Hala ere, nazionalen bandoan borrokatu ziren ataundar gehienak beren borondatearen kontra eraman zituzten. «Beharturik» Julian Munduatek esaten zuen bezala. Abertzaleen batzarretan parte hartu, Batzokia sortu⁴²... eta gero nazionalen bandoan borrokatu ziren asko. Norberaren ideien kontra egiteak ekar zezakeen kontzientzia eragozpenerako ez zegoen orduan astirik, ezta aukerarik ere. Beldurraren estrategiak emaitza «onak» izan zituen, eta altxamenduak nahi bezala kontrolatu ahal izan zuen herria:

«Bai idean kontra, baiño... beste erremedioik etzeon... aitzentzan bat leizea eaman zuela, bestea tiroz iltzuela...». (Joxe Mari Apalategi).

Denei eraman zieten norbait gerrara:

«Nee bi anai zaarrenak eamantzittuen; batek zeuzken 19 urte ta beste 18. Bat Seguran zeon, ue eamantzuen aurrena, ta geo bestea». (Sabino Auzmendi).

⁴¹ AIZPURU, M. (Zuzendaria). (2007). *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko Fusilatzeak*. Albedania Memoria. Irun.

⁴² Miraballesen egindako bilera baten ondoren sortu zuten Batzokia, 1932. urtean.

«Gue anaie eamantzuen. Noa eamantzittuen arrastoipe juntzien gurek. Eaman da antxe euki. Ta bost urte ta bost illabete pasau bear». (Teresa Agirre).

«Soldaduskatik libre ata giñen, baiño gero gerrea etorri zanen artu giñuzten ta Estellaa. Ataundarrak asko giñen, dozenan bat bai». (Benito Arruabarrena).

«Osoa Joan zana Segovin eontzan, retaguardin atzetik bezela, baiño osoa Rogelio, aitte zanan anaie, frentea eaman zuen, arrek esaten zion ue bein Teruelen ill o bizi eontzala». (Felix Eskisabel).

«Gue etxeakoik etzan jun gerraa. Gizona gerrabe librau zan, suertea izantzan etxen. Ingurukok bai, eamantzittuen, Itzatekoa, goitxe ortakoa, ta emen Tellazpikoare bai». (Anttoni Etxeberria).

Euskal Herritik kanpo Espainian zeuden Ataungo fraide eta apaiz asko ere armetara deitu zituzten. Beren borondatez joango ziren batzuk, ez hainbeste besteak. Armadako alferez izan zen Joxe Luix Lekuona Eskisabel; Joxe Etxeberria Aranburu Enlazeetako batailoian egon zen mobilizaturik; Joxe Frantzisko Auzmendi Tolosa (Nazareno de Auzmendi) Armadako kapilau izan zen gerarak iraun zuen bitartean eta Madrilgo frontera mobilizatu zuten Joakin Lizarraga Barandiaran 1937tik 1939ra⁴³.

Hamaika herritan egin zuten gerra ataundarrek nazionalen bandoan. Lizarran batu zituzten lehenengo, handik Asturiasera, Santanderrera, Burgosera, Teruelera, Toledora, Madrilera, Torrelavegara etabar eramane zituzten zenbait. Gipuzkoan bertan (Arrasaten) eta Bizkaian (Urduñan) borrokatu zenik ere izan zen.

Nahiz eta batzuk gerraren lehen egunetan ez zituzten soldadu eramane, georago iritsi zitzaizen garaia. Arbilletako Joxe Agirre, esate baterako, 1939an eramane zuten, eta bost urte egin zituen soldadu:

«Gerrea bukatzeko denboran junintzen, mil novecientos treinta y nueven. Bukau ordun intzan eta etorri nintzen mil novecientos cuarenta y cuatron. Erriti etorri zan abisoa. Trimestreka eaman giñuzten, primer trimestre, segundo y tercero, eta gu laugarrenekok giñen, azkene kok. Leku askotan ibilli giñen. Ataungok bazien: Joxe Tolosa Aitzaundietakoa, Felipe Urbistondo beste bizitzakoa, Aitzioko Joan, Aietio Felipe Begiristian leendabiziko trimestrekoa, Aitzondoko Fer-

⁴³ ARIN, J. (1964), *Clero y religiosos de Atun*. Montepio Diocesano. Gasteiz.

min, Kalikaseneko Zelestino, Joxe Arrese Sutegikoa... Gauen allau giñen, eta seittun goardin tokau nintzen, etzien bi ordu aik beela pasau! Beiñe eonbe neon goardin, eta bildurre!». (Joxe Agirre).

Arbilletakoa Lizarran, Toledon, Biasterin, Manzanarezen, Madrilen –«Francori omenajea itteko instrukzioa ikasten»–, Calabacan (Murtzia), Burgosen, Urduñan, –«an lizentziau in giñen ta denbora pixkaten etorri in giñen eta etxen eiñgendun eta atzea beize bazala zerbait ta mobilizau giñuzen»–, Santanderren eta Torrelavegan egon zen. «Auskalo zenbat erritan eon giñen!».

Gerraren gogortasuna ez zuten sumatu hiltzeko zuten arriskuagatik bakarririk, baita aldamenekoa hiltzen ikusteko beldurragatik eta beren burua salbatzeko bestea hiltzeko beharragatik ere. Baina gerra gogortu egiten zuten bizimodu prekariorik, goseak, baliabide eskasiak, bakardadeak:

«Eamandako erropak zazpi illabeteako izitentzien aik, txukiñek eongo zien! Ta asieran jana bai, denboa pixkaten, baiño geo txartzen asi zien, konpaiñiko kapitanak asieran obeto, baiño gero kanbiau zan, ogiere gutxi, ta jane... diruere gutxi, tabernaa ta juteko. Komerik! Ta geo banaka genden. Guk ezkendun iñor ikusi, iñorre ez. Bakoitze alde banatan. Bat regimentu baten, eta bestea, besten. Geo gu geienok euskaldunek giñen elkarrekin, Azkoiti, Azpeiti, Oñati, Beasaingok eta Ordizikoke bai». (Joxe Agirre).

«Edozeinekin ez zegoen hizketan hasterik. Gainera, duda-mudako jendea garbitu egiten zuten, deskonfiantza izugarria baitzegoen. Gogoratzen naiz behin, frentean geundela, hotz ikaragarria zegoen eta bati goardia egitea tokatu zitzaion eta egiten ari zela, tiroak alde egin zion eskuko dardarizoagatik eta hankan jo zion beste bati; ba arazo dezente izan zituen bere inozentzia frogatu ahal izateko, ia-ia fusilatu zuten. Militarren diziplina gogorra. Niretzat oso tristea eta negargarria hainbeste denbora egon behar izan genuen zain, izan ere. Goizetan eguna zabaldu orduko han hasten dira kamioiak, hegazkinak, metrailak, zarata, eta gainera beti etsaiaren bila joan behar dugu eta gu han aurrera! Hil arte! esaten zigutela, hura zen tristura. Lagunak ikusten zenituen lurrean hilda, lagunak edo... haiek ere pertsonak ziren behintzat! Aurrera joan behar genuen beste erremediorik ez baitzegoen. Gero, adibidez, mendi puntara heltzean apur bat lasaitzen zinen gauerako, baina bestela oso gogorra da. Behin gertatu zitzaigun egun guztia borroka batean ibili eta gaua iristean gau guztia jarraitu beharra, ez jan, ez edan eta ezer ez. Heriotzaz ere, maiz pentsatu nuen... izan ere, egoera hartan ez zen harriztekoa... trantze hartan». (Julian Munduate).

Lehen lerroko borroka gordinak ezagutu zituzten ataundarrek. Bizkaiko frontean, Teruelgo borroketan, Ebroko guduan eta Madril hartzeko borroketan ibili ziren, besteak beste, ataundarrak. Gerrako unerik latzenetan. Ataundarren bizipenak jarraituz, hau da, mikrohistoria eginez, Hego Euskal Herriaren historiaren zati baten eta 36ko gerraren historia azter daiteke, makrohistoria eginez. Azken batean, bizipen indibidualak historia orokorra ezagutzeko baliabide baitira.

GERRA GIPUZKOAN

Behin herria nazionalen esku zegoela, Ataunen barrena Beasaina sartu zen Gipuzkoa hartzeko erreketeen zutabeetako bat. Beasaina iritsi arte erreketek ez zuten ia erresistentziarik topatu bidean, eta han, Beasainen, Cayuela, Albizu eta Malcamporen tropak batu ziren. 1936ko uztailaren 27tik 28rako gauean erreketek horiek 30 besaindar hil zituzten, Cayuela komandantearen aginduz.

Gipuzkoaren zati handi bat, besteak beste, Ataun, altxamendua eta berehala berenganatu zuten tropa nazionalek, uztailaren 23tik abuztuaren 17ra iraun zuen lehen erasoaldian. Abuztuaren 15etik irailaren 13ra arte iraun zuen erasoaldian, Bidasoako gudua deiturikoan, Irundik Donostia bitartekoa hartu zuten, eta irailaren 14tik urriaren 6ra luzatu ziren Gipuzkoako gainerako zatia, besteak beste, Ormaiztegi, Zumarraga, Azpeitia, Oñati, Bergara, Elgoibar, Zumaia, Deba eta Arrasate hartzeko borrokak. Behin ia Gipuzkoa osoa harturik, Eibar eta Elgetako mugetan ezarri zen fronteko lerroa, Eibar eta Elgeta errepublikarren eskuetan baitzeuden artean.

Gerra Gipuzkoan sartu zenean, errepublikarrek ez zuten ezer egiteko aukerarik izan; batetik, arrazoi militarrengatik: artileria, teknika eta esperientzia askoz eskasagoa zuten errepublikarrek nazionalek baino; bestetik indar errepublikarren arteko koordinazio falta baliatu zuten nazionalek Gipuzkoa berenganatzeko. Atzeritik munizioa eskuratzea eta Autonomia Estatutua lortu eta errepublikarrak politikoki antolatzea funtsezkoa izan zen abertzaleek gerran parte hartzeko. Baina ordurako Gipuzkoan ez zegoen zereginik, eta Bizkaian egingo zuten ahalegina.

GERRA BIZKAIAN

Gerra Bizkaira iritsi zenerako, Gipuzkoa hartua zuten nazionalek, eta baita Nafarroa eta Araba ere, berehala egin baitzuten bat azken bi herrialdeok

altxamenduarekin. Bestalde, Bizkaiak bezala, Madrilek, Asturiasek eta Kataluniak Fronte Popularraren gobernupean jarraitzen zuten.

1937ko martxoaren 22an, tropa nazionalak Madril hartzeko asmoa alde batera utzi behar izan zuten, eta iparraldeko armadak hartu zuen protagonismoa, Mola jeneralak, hain zuzen. Nazionalen Nafarroako dibisioak baliatuko zituen Mola jeneralak Espainiako Iparraldea eta Bizkaia bereganatzeko, 18.000 bat gizonezkorekin. Lehen borrokan Armada errepublikarra eta Euzko Gudarostea izango zituzten aurrean nazionalak, 30.000 bat gudari. Gipuzkoan ez bezala, abertzaleak gerran sartu ziren Bizkaian. Tropa nazionalak ez bezala, gudariak ez zuten ez tankerik, ez artileriako piezarik, ezta hegazkinik ere.

Gerrak Bizkaian utzi zuen arrastorik gogorrena 1937ko apirilaren 26koa izan zen: Gernikako bonbardaketa. Azoka eguneko astelehen hartan, Condor Legioko 40 hegazkinak bonbardatu zuten Gernika, herria erabat kiskali arte. Ehunka zibilen heriotza eta euskal foru-berezitasunaren sinboloa suntsitu zuten Gernika bonbardatzearekin batera. Baina Gernika ez zen izan Euskal Herrian bonbardatu zuten lehen herria, Durango 1937ko martxoaren 31n leher-tu zuten; herri zibila bonbardatuko zuten Europako lehen herria izan zen Durango, eta, era berean, nazionalak Bizkaia konkistatzeko ofentsiba hasi zutela esan nahi zuen. Otxandio eta Legutio ere bonbardatu zituzten.

Bilbo besterik ez zitzairen gelditzen gudariei. Eta burdinazko gerrikoa eraiki zuten, hiriburua babesteko zuen lubaki eta bunkerrez osaturiko defentsiba. Baina alferrik. Ekainaren 19an Bilbo ere nazionalen esku gelditu zen. Bezperetan, Euzko Jaurlaritzak zibilak ebakuatu eta haurrak Ingalaterran errefuxiatu zituen. Jose Antonio Agirrek berak abuztuan egin zuen ihes. Burdinazko gerrikoa erori eta berehala eroriko zen Euskadiko Autonomia. Euskal Herriko gerra amaitu zen.

Miel Imaz izan zen Bizkaian borrokatu zirenetako ataundar bat. Nazionalistekin borrokatu zen:

«Nik gudarietan Bilbo hartu arte borrokatu nuen. Gero entregatu ginen Laredon nazionalistak». (Miel Imaz)⁴⁴.

Imazekin batera, ataundar gehiago borrokatu ziren Euzko Gudarostean. Amaiur batailoian borrokatu ziren Markox Aierdi, Akilino Aierdi, Hilario Munduate eta Joxe Miel Urrestarazu ataundarrak. Jeltzaleen batailoia zen

⁴⁴ NONDIK aldizkaria, 17. zenbakia, 1987ko martxoa. *Gerra Zibila Ataunen*.

Amaiur, Euzko Gudarosteko batailoietako bat. Jose Antonio Agirre lehendakariak sortutako Euskal Armadako parte zen Amaiur batailoia. Debabarrenako batailoia zen izatez Amaiur. Euskal Armadaren barruan alderdi politiko-koen arabera bereizten ziren batailoiak. Sacco y Vanzetti batailoi anarkista, ELA sindikatuaren San Andres Batailoia, Euzko Mendigoxale Batzaren Zergatik Ez? batailoia (lehendabiziko batailoia osatu ostean bigarrena antolatu ala ez erabakitzean jarri zioten izen hori) eta EAJren batailoiak (Euzko Gudarosteak) osatzen zuen, besteak beste, Euskal Armada.



Amaiur batailoiko gudari ataundarrak. Markos Aierdi, Akilino Aierdi, Hilario Munduate, Miel Imaz eta J.Antonio Urrestarazu. (Atauniker taldeak utzitako argazkia).

Bizkaitik harago, Espainian ere borrokatu ziren gudariak. Amaiur batailoia Asturiasen borrokatu zen Kandido Saseta komandantearen gidaritzapean, UGTko eta EAE-ANVko beste bi batailoirekin batera.

TERUELGO GUDUA

36ko gerrako borrokagune gogorrenetakoan aritzea egokitu zitzaien hainbat ataundarri: Teruelen. Joxe Zeberiori eta biei bizitzea egokitu zitzaien gogortasun hura gogoan du oraindik Markox Jauregik:

«Denbora txarra tokau zan, otza ta... jendea anakak izoztuta... alkarrena juntatzen giñen, ta arek (Joxe Zeberio)k “Markox, ok dituk ibillarok, ez altzak iruitzen obe gendukela ilda zerun bageunde?”». (Markox Jauregi).

Teruelen 1937ko abenduaren 15etik 1938ko otsailaren 22ra luzatu zen borroka. Milaka hildako izan ziren, bai errepublikarren bandoan eta baita nazionalen bandoan ere. Kopuruak nahasiak diren arren, nazionalen alde 20.000 soldadu borrokatu zirela dago jaso, 52. Dibisiokoak, armaturiko 6.000 zibilen laguntzarekin, 140 hegazkinekin, artilleriako 500 piezarekin. Errepublikarren bandoan 80.000-90.000 soldadu borrokatu ziren, 120 hegazkin eta 100 tankerekin. Espainiako iparraldea eta Bizkaia berenganatu ostean, Madril hartzeko ofentsiba prestatzen hasi ziren tropa nazionalak.

Armada errepublikarrak abenduko lehen hamabostaldian Teruelen batu zituen gizonak eta armamentua, eta fronteak, ziri baten antzera, 60 kilometroko luzera zuen. Armada nazionala joko kanpo harrapatu nahi izan zuen Errepublikak. Borroka gogorrak izan ziren. Tropa errepublikarrek garaipena erraza izango zela uste izan zuten, soldadu, baliabide eta armamentu aldetik ikaragarriko nagusitasuna baitzuten. Errepublikarrek berehala inguratu zuten Teruel, eta denbora gutxian sartu ziren hirian, ethez etxeko borrokaren bidez. 1937ko abenduaren 26rako Errepublikak bizitza zibila antolatzeko agindua eman zuen Teruelen. Teruel izan zen errepublikarrek menderatu zuten lehen eta azken hiria. Teruelgo hiria errepublikarren esku zegoen, apaiztegia eta komandantzia izan ezik. 1938ko urtarrilaren 8a arte, orduan erori baitziren apaiztegia eta komandantzia ere errepublikarren esku. Hala idatzi zuen Fernando Llorenz Perez Artilleriako kapitainak, bere egunerokoan 1938ko urtarrilaren 8an:

«Cuatro días sin comer ni beber las tropas, como no ignora, ha hecho que el desfallecimiento físico haya ascendido a desfallecimiento moral, a pesar de las sanciones duras impuestas. 350 muertos y más de 700 heridos y con unos pocos combatientes y unas ruinas evocadoras, a última hora, son el resultado de una defensa épica de la que me siento orgulloso. Esto ha terminado. Abrazos a todos. Fernando».

Teruelgo borroketako faktore garrantzitsuenetakoa hotza izan zen. Zero-petik 18 gradutan borrokatu ziren eta ikaragarritzko elurteak jasan zituzten. Errepublikarrak hobeto prestatuak zeuden hotzari aurre egiteko, eta hori faktore oso garrantzitsua izan zen lehen garaipena eskuratzeko garaian.

Teruelgo gudua amaiturik, Errepublikak bere tropa onenak atera zituen hiritik; Levanteko (Herrialde Katalanak) defentsa prestatzea zuen hurrengo helburua. Baina nazionalak ez zuten etsi. Francok ez zuen azken hitza esan. Urtarrilaren 17an hasi zen kontraofentsiba. Ordu arteko hegazkin bidezko bonbardaketarik gogorrenak egin zituzten errepublikarren gainean, Condor Legioaren bidez. 100.000 soldadu batu zituzten nazionalak Teruel hartzeko. 500 hegazkinekin hiria hartzea lortu zuten, nazionalak ziren oraingoan sitiatzaile eta errepublikarrak sitiatuak. Urtarril bukaeran buruz buruka borrokatu ziren soldadu errepublikarrak eta nazionalak. Ehunka baja izan ziren bi aldeetan.

Otsailaren 20an tropa nazionalak Teruelen sartu ziren, ez zegoen erresistentziarik. Errepublikarrek ezin izan zuten ihes egin hiritik, eta 14.000 soldadutik gora preso hartu zituzten nazionalak⁴⁵.

EBROKO GUDUA

Teruelgo eta Jaramako borrokekin batera, Ebrokoa izan zen 36ko gerrako gogorrenetakoa. Hala pasa da historiara. Martxial Barandiaran izan zen han borrokatu beharra izan zutenetako bat. Hala kontatu zion *Nondik* aldizkariari han bitzitakoa, Kataluniako Terra Altako Sierra Cavallseko gertaera⁴⁶, hain zuzen ere:

«Han hiru mendi koxkor zeuden eta erdiko mendira sarrarazi gintuzten gu. Sartu ginen haruntza eta, zeinek han aguantatu! Bi aldetatik tiroak. Garai hartan mallorkino asko geneuzkan guk batailoian eta mallorkinoak painuelo zuriak atera eta gorrietara errenditu ziren. Beste batzuk berriz, atzeraka jo genuen, beste asko eta asko hil egin ziren, beste batzuk prisionero egin zituzten. Eta hala atzera etorri nintzen ni, ni bezala beste gehiago, asko ez baina. Eta han, ze Kristo! Batailoien arrastorik ez.

»Lau egunean egon nintzen han, eta halako batean, batailoia han herrian zegoela jakin nuen. Ordurako lehen komandante eta genituen

⁴⁵ MARTINEZ BANDE, J. (1974) *La batalla de Teruel*. Ed. San Martin, Madril.

⁴⁶ NONDIK aldizkaria. *Op. cit.*

guztiak han gelditu ziren, lehen esan dudan Sierra Cavalls hortan, eta hala komandante berri bat etorrita zegoen, extremeño bat, legionarioa gainera, tipo ona! Eta hark formatu arazi gintuen eta 30 lagun... batailoiak izan ohi dira 1.000 bat, 800dik 1.000 bitartekoa, tarte horretan. Eta hala, 30 lagun horietatik, komandante horrek, etorri zen berri horrek, hartu zuen bat, gallego bat, eta beste 29ak harekin batera hango herri hartako kanposantura joan behar genuen fusilatzerara. Beldurra sartzeagatik, retrozeditu genuelako eta han esan zigun, kanposantuan, hura hil behar genuela, hura fusilatu behar genuela, beste 29ak eta hark serbituko zuela *“para el escarmiento de los demás”*, *“que nunca había que dar la espalda al enemigo, sino siempre frente, adelante había que ir, que la justicia militar hacía eso”*. Beste edozeinek adina kulpaz izango zuen gallego haretzek ere baina. Gizonak *“militarmente”* zer balio duen... batere ez du balio». (Martxial Barandiaran).



Martxial Barandiaran Zaragozan. Barandiaran-Furundarena familiak utzia.

Barandiaranek deskribatutako Sierra Cavallseko borroka hura Ebroko guduaren barruan izan zen. 36ko gerra osoko gudurik odoltsuena bizi izan zuen Barandiaranek, hain zuzen ere.

Ebroko gudua estrategikoa izan zen. Espainiatik kanpora begiratuta izan zen bereziki estrategikoa. Europa krisian zegoen. Nazioartean Hitlerren eta potentzia demokratikoen artean gerra aurreikusten zen (Bigarren Mundu Gerra izango zena), eta errepublikarrek Francoren autoritarismoaren aurkako gerra faxismoaren aurkako gerra bezala aurkeztu nahi zuten nazioartean, hau da, 36an hasitako gerra mundu gerra bihur zedin nahi zuten. Asmo horrekin prestatu zuten errepublikarrek Ebroko gudua. 1938ko uda zen.

Vicente Rojo jeneralak Ebron erasotzea proposatu zuen, asmo handinahi-tsu eta irreal batekin: errepublikarren esku zeuden bi guneak lotu nahi zituen. Horretarako Ebroko Armada sortu eta prestatu zuen, 18tik 40 urtera bitarteko Kataluniako gizonetakoak militarizatuz, iheslari eta desertoreak amnistiatuz. 80.000 bat soldadu bildu ziren errepublikarren tropetara. Bi hilabetez hezi zituzten soldaduak, ezkutuan.

Gudua 1938ko uztailearen 25ean hasi zen, 24tik 25erako gauean errepublikarrek Ebro ibaia alderik alde zeharkatu zutenean, hain zuzen ere. Sierra Cavallseko borroka gorriena abuztuaren 14an izan zen. Alonso Vega erreketaren Dibisiok 840 soldadu galdu zituen, 5.712 zauritu zituzten errepublikarrek eta 2.600 erreketete gaixo erori ziren. Hurrengo gauean, Joaquin Rodriguezen tropa errepublikarrek 4.800 baja izan zituzten. Sierra Cavallseko azken eraso 1938ko urriaren azken egunean izan zen. Artilleriako 300 pieza baliatu zituzten, kainoi, mortero eta obusekin eraso zieten lau orduz Francoren tropek errepublikarrei. Azaroaren 18an Yague Ribarrojan sartu zen, eta Ebroko gudua amaitu zen, nazionalen garaipenarekin⁴⁷.

116 eguneko eta gauko borroka izan zen Ebroko guduan.

Ebroko guduaren garaipenak indarra eta izugarrizko moralala eman zien tropa nazionaleri, eta betiko hondoratu zituen kolpea izan zen tropa errepublikarrentzat. Higadura honek zenbat hildako utzi zituen jakiten ez da erraza.

Francok soldaduen arteko aurrez aurreko borrokaren alde egin zuen, desgasteak ekar zezala bataren edo bestearen garaipena. Historialariek ez dute bat egiten alde bateko eta besteko baja kopurua zehaztean. Gehienek diote

⁴⁷ PERINAT, S. (1972) "La batalla de Ebro" in *Historia mundial del siglo XX*. Editorial Vergara. Lau-garren liburukia.

alderdi bakoitzean guztira 50.000-60.000 baja izan zirela, eta bando nazionalean baja horien artean 4.500 soldado hil zirela eta 10.000 eta 15.000 artean errepublikarren lerroetan.

MADRIL HARTZEA

Katalunia galtzea kolpe gogorra izan zen Errepublikarentzat: batetik, moraliki suntsitu zituztelako nazionalek eta, bestetik, fisikoki isolaturik gelditu zelako Errepublikaren kontrolpean zegoen gunea. Madril eta Espainiako hego ekialdea errepublikarren esku zeuden, baina azken hauek ez zuten Frantziako mugara iristeko biderik, ez industriako lehengaiak, ez elikagaiak eskuratzetik, Errepublikako guneek ez zuten hornidurarako biderik.

Errepublikaren Gobernuaren barruan gero eta handiagoak ziren anarkista, sozialista eta komunisten arteko liskarrak, beraien artean borroka armatuak izateraino. Errepublika indarrak galtzen zihoan neurrian, handitzen ari zen Francoren boterea. Bigarren mundu gerraren leherketa zen Errepublikaren itxaropen bakarra, munduko demokraziak Espainiako Errepublika salbatzera joango zirela pentsatzen baitzen. Alabaina, 1939ko otsailaren 26an, Frantziako eta Ingalaterrako gobernuek Francoren gobernuaren legitimitatea onartu zuten, nazioarte mailan Juan Negrinen Errepublikako Gobernuaren boterea ukatuz.

Ordurako, 1939ko otsailaren 13an, Francok kartzela zigorra ezarri zuen 1934ko urriaren 1etik 1936ko uztailaren 18ra Armadari eta geroztik Mugimendu Nazionalari erresistentzia agertu edo aurre egin zien guztien aurka. 1939ko martxoaren 23an, berriz, errendizioko akordioa aurkeztu zien Francok errepublikarrei. Lau egunera su-etena izan zen fronte guztietan, eta agintari militarrek bandera zuriak zabaldu zituzten, eta armak utzi. «Garaipenaren aldeko ofentsiba» hasi zuten Francoren tropek 1939ko martxoaren 27an. Madril hartu zuten, Cuenca, Ciudad Real, Albacete, Jaen eta Almeria ere ondoren erori ziren. Ihes egitea lortu ez zuten errepublikar guztiak atxilotu egin zituzten, eta kontzentrazio esparruetara eraman.

1939ko apirilaren 1ean idatzi zuen Francisco Francok azken gerra agiria:

«En el día de hoy, cautivo y desarmado el Ejército Rojo, han alcanzado las tropas nacionales sus últimos objetivos militares. La guerra ha terminado».

Garai haietan Madrilen zen soldadu Joxe Agirre. Lizarran eta Toledon ibili ondoren iritsi zen Espainiako hiriburura.

«Gerrea bukatu zala, ta andik Manzanaresa jun giñen. Manzanares. Ta andik jun giñen Madrida, Francoi omenajea eitteko instrukzioa eitte. An gaizki ibilli giñen, autse naikoa artu gendun, geok atatzen gennun autse. Desfilatzeko ikasi gendun». (Joxe Agirre).

Elkarren berri ez izanagatik, Joxe Agirre bezala, ataundar bat baino gehiago izan zen Francoren garaipenaren lekuko Madrilen. Han zen, baita ere, Joakin Lizarraga Barandiaran fraidea⁴⁸.

GERRAN HILDAKOAK

36ko gerrak utzi zuen hildako kopurua kontaezina da. Ziurrenik sekula ezin izango da zehazki kontatu. 190.000 hildako aipatzen dituzte iturri batzuek. 50.000 errepublikarren atzeko lerroan hildakoak, eta 100.000 frankisten erretaguardian; beste 40.000 gerraren ondoren etorri zen errepresioari eransten dizkiete. Horiei goseak eta errepresioak eragindakoak gehiturik, 500.000 zenbatzen dituzte beste batzuek. Hildakoen kopuru horien artean ataundarrak ere badaude, 36ko gerrara joan edo eraman zituzten ataundar guztiak ez baitziren itzuli.

«Emen ordun Ataungok majo iltzien: Ainberrikoa, Andiaingoa, Prantxiko Aierdi, Ertzilleiko bate bai, Uelaingoa, Aldarreta-azpikoa, Astiarretxekoa... Ustatxokoare bai, bizarra kentzen ai zala frenten, bason tiro galdu batek jo ta fuera! Ataungok iltzien gerran». (Joxe Erauskin).

«Asko iltzien. Ni akordatzen naizena, Lauztiturrietako bat [Bernardo Aierbe], gue osoa Joanek esaten zon, Segovin ba gorritakok kale eskiña atea tiroka ai ziela ta beste oni esantziela, “ez ai pasau or, zeatio balak zetoze orrea”, da pasatzen asi zala, ta tak, bea arrapau. Ue an iltzan». (Felix Eskisabel).

«Ergonen Joxe Antonio iltzan, etxen iltzan baino gerran gaixotuta etorri zan». (Adelita Apalategi).

Batzuk tiroz hilko zituzten frontean, baina garbitasun eza, gaixotasunak tratatzeko medizina eta bitarteko eskasiak... hamaika gertakarik ekar zezaketen heriotza. Eritasuna tratatzeko baldintza eskasengatik galdu zuen anaia bat Sabino Auzmendik gerran, eta beste bat larri zauritu zioten:

«Santanderrea erretiau zien gerrea bukauta, ta or granon batzuk atea zitzaiola ta indizion bat emantzien, ta indizio txarra tokau zala, ta ziplo!

⁴⁸ ARIN, J. (1964). *Op. cit.*

Gerrea bukauta, Alto de Aragonen ustet zerela, kuartelen. Etzan bueltau, 21 urtekin. Abisue etorri zan, aitte jun autza zuzenen, eta orduntxe intzan emen entierroa.

»Inazio [beste anaia] gerran ibili zan, horrek Teruel alde ortan bukau zon. Ta geo tifusekin eontzan gerrea bukau zanen, lau illabete Burgozen. Gaizki zeola ta abisue etorri ta aittek jun einai, ta meikuk kotxea Fiata zeuken, beltz oitako bat, kotxea su baten jun omentzan, 68 duro eo *ida y vuelta* kotxena, kilometroa ainbeste, garai artan. Gero ia ospitalen eontzan, lau illabeten eontzan illea ta dana junda, ta larri-larri eontzan. Meikuk beittu omentzion ta, “ateakoa, ateakoa. Zean bat bauke baiño likido asko eatea ta ateakoa”. Geo esaten due: “Gerrea, ze ein dizue ba gerrek?” Ze ezto in gerrek!». (Sabino Auzmendi).

Honako ataundar hauek gerran edo gerraren zuzeneko ondorioz hil zirenetako batzuk dira: Prantxiko Aierdi, Bernardo Aierbe (Lauztiturrietakoa), Inazio Auzmendi (Urdangaringoa), Ustatxoko Bixente, Errotako Tomas, Lukas Erroiondokoa, Ergoneko Joxe Antonio, Joxe Etxeberría Zabala Aiakoa, San Martingo Joxe Martin Arruabarrena Imaz, Andiaingoa, Arinberrikoa, Ertzillegikoa, Ubelaraingoa, Astigarragaetxekoa, Artzatekoa, Larburukoa, Txulokoa, Itzatekoa...

Askó izan ziren gerran zaurituak. «Mortera-zokin» zauritu zuten Markox Jauregi.

KARTZELA

Garaipenez garaipen, konkista bakoitzean lurak menderatzeaz gain, garaileek aurkariak gatibu hartzen zituzten. Ebroko guduan bertan, 20.000 soldadu errepublikar hartu zituzten preso nazionalak. Gatibu harturiko batzuk exekutatu egiten zituzten zuzenean, beste zenbait bando garailera armatzen zituzten eta azkenak kartzelatu egiten zituzten. Horrela, bai Hego Euskal Herrian bertan eta baita Espainian ere, hamaika aldiz ugaritu ziren kartzelak, nonahi.

Gerra garaian gatibu harturiko ataundarrak ere izan ziren. Julian Erauskinen kasua izan zen hori. Teruelgo frontean preso hartu zuten errepublikarrek. Bere iloba Joxe Erauskinék kontatzen ditu osabaren ibilerak:

«Gerran iru urte intzittun. Esiña Asturias aldeá juntzan, geo Teruelen frenten eintzittuen beste kontrariok, prisionero. Geo kartzelan eontzien, kartzelan eontzien, gosek. Esango luke gaurre, erremolatxa soróá junda

artuta jate omentzuen, oain beiei emateko da, goseik. Ta borda baten omentzeren, da aurreko eunen pentsau: “Alde in bear diat emendio”. Ta aldein do, ta borda baten sartua ta belar pillan azpin. Gosek tripak orruka. Ta gero sartu die kontrariok borda ortan, arek etzittun ikusi, baiño kontrariok izango zien, bere aldekok ez, ta tripai ezin eutsi, aik otsik ez atatzeko. Gero beintzet, salbau da andio, geo pasatua bee alderdikotaa, ta aren gosekin eman omentzien konejue naikoa saltsan, jan do geiegi, ta urrengo eunen Zaragozaa ospitalea». (Joxe Erauskin).

MILITARIZATUAK

Beste batzuk, ordea, gerratik atzera herrira itzuli ziren, kasu honetan, beren enpresak militarizatu eta lanera. Militarizatu ziren enpresen kasuan, ohiko produktzioa baztertu eta armamentua ekoizten zuten; lan horretan jardun zuen Beasaingo CAF enpresak, eta baita inguruetakoa beste zenbaitek ere, Legazpiko Patrizio Etxeberriak, esate baterako. Bertan egiten zuen lan Benito Arruabarrenak gerrara eraman aurretik:

«Gerra junintzenen, Legazpin neillen ni lanen, eta militarizau inittuen. Frentetik ekarri nittuen, jendea beartzuen txapea estirau eta bonbak itteko. La Granja, Segovian genden soldadu, dana txikittuta zeon, asieratio atake aundik izantzien. Motill bat bialdu zon ni ekartzea: “*Arruabarrena, si te avisan de la fábrica*”. Aiba!, beste launek serio, Tablako Fernando-ta. Patrizioa bueltau nintzen, militarizauta». (Benito Arruabarrena).



Francisco Franco Beasaingo CAFen izan zenekoa. ITURRIA: Kutxako Fototeka

CAF militarizatu zenez, bertan lan egiten zuten askok ez zuten gerrara joan beharrik izan. Bibiana Munduateren osabaren kasua izan zen hori:

«Gue etxen etzan iñor jun gerra, nik amar urte ta senidek gazte-gok. Osaba bat, ez jutekatik, fabrikan sartu zan. Fabrikan nola bonbak itten zittuen, an zeillenik etzuen eaman soldadu». (Bibiana Munduate).

CAFeko langile guztiek ez zuten Bibiana Munduateren osabaren zorte be-
ra izan:

«Beasaingo Fabrika Handian genbiltzan gu, eta Beasaingo fabrika egin zuten militarizatu, eta han zebiltzanak ez omen ziren gerrara joango. Jarri ziguten brazalete urdin bat, artileriako enblemarekin, eta hura poza! Ez ginela joango eta... baina handik urtebetera, *3 de junio* edo horrela zen, gure kintari hots egin zioten»⁴⁹. (Martxial Barandiaran).

⁴⁹ NONDIK aldizkaria. *Op. cit.*

*«Amar urte neuzken,
baiño ba al dakizue miñe emantziala?»*

(Bibiana Munduate)

*«Kartak etortzentzien,
ta eskritzen gendun»*

(Felix Eskisabel)

GERRA ATZEKO LERROTIK

Gerrara soldadu eramandakoek zuzenean sufritu zuten, baina atzeko lerroan, herrian, gelditu zirenei ere eragin zien gerrak. Eta asko, gainera. Historia-tzat hartu ohi da aurreko lerroetan, guduetan, gertatutako borroka. Baina hantzat hartzen diren gertakari horiek bakarrik ez dute osatzen historia, egunerokoa gertatzen diren gauzak ere historia dira. Azken batean, egunerokotasuna, eguneroko bizimodua, giza harremanen abiapuntu eta iturri da⁵⁰, eta egunerokotasunean sortzen, desagiten eta berregiten dira harreman sozialak⁵¹.

36ko gerra ezin da ulertu borroka lerroetan gertatutakoa bakarrik aztertuz, atzeko lerroaren historia ere egin behar da. Eta horretarako, norbanakoen historiak dira iturri. Norbanakoek egiten baitute historia. Eta era berean, memoria kolektiboa berreskuratu nahi bada, memoria indibidualetik hasi beharko da. Historia hierarkizatu baten aurka, beraz, kontramemoria beharrezkoa da, behetik, oinarritik egiten den historia behar da, Historian lekurik ez duten ahotsak dauden lekutik, hain zuzen ere. Foucaultek defendatzen duen moduan:

«Eredutik askea izango den historia egitea da helburua, historia kontra-memoria bilakatzea»⁵².

Ataungo eguneroko bizimoduan berehala ekarri zuen aldaketa gerrak. Mugimendu nazionalaren aldeko erreketek sartu, herria hartu eta erregimenaren aldeko udal gobernu berria bost egunetan ezarri zuten Ataunen. Don Perpetuo Lara Esparza teniente komandanteak eta Don Martin Aznarez Lopez Guardia Zibilen komandanteak legezatu zuten udal gobernu berria.

⁵⁰ LEON, E. (1999). *Usos y discursos teóricos sobre la vida cotidiana*. Anthropos, Bartzelona.

⁵¹ LINDON, A. (2000). *La vida cotidiana y su espacio-temporalidad*. Centro Regional de Investigaciones multidisciplinares. Mexiko.

⁵² FOUCAULT, M. (1977). *Nietzsche, Genealogy, History*. In BROUCHARD, F. *Language, Counter-Memory, Practice*. Ithaca. New York.

Zaindegiko Flabio Larrakoetxea alkate nazionalistaren lekua Errotaberriko Joxe Antonio Aiestaran karlistak hartu zuen.

1936ko otsaileko udal hauteskundeetan demokratikoki aukeratutako kideen lekuan ondorengo hauek sartu ziren, Joxe Antonio Aiestaran Loinazekin batera:

- Joan Urdangarin Aierbe
- Joxe Antonio Arratibel Imaz
- Frantzisko Agirre Baztarrika
- Frantzisko Dorronsoro Barandiaran (alkateordea)
- Joxe Antonio Apalategi Garmendia (erregidore edo prokuradore sindikoa)
- Fermin Arana Navarro (erregidore sindikoaren ordezkoa)
- Migel Zurutuza Arratibel (bigarren alkateordea)
- Joxe Inazio Munduate Agirre

1936ko uztailaren 30eko udal aktak jasotzen duenez, hamar lagun horiek izendatu zituzten alkate eta zinegotzi, eskuindar eta espainiazale izateagatik. Gobernu berria osatzeko egindako bilkura *Viva España, Viva Cristo Rey* eta *Viva Euskal Herria* oihuekin bukatu zuten⁵³:

⁵³ *“Sesión extraordinaria. Acta de constitución del Ayuntamiento. Día 30 de julio de 1936.*

1ª. En la sala consistorial de la villa de Ataun, a veinte de julio de mil novecientos treinta y seis, siendo las diez horas de la mañana y previa convocatoria en forma de efecto se constituyó el Sr. Teniente Comandante de esta plaza antes referido, acompañado del Sr. Comandante del puesto de la Guardia Civil de la misma Don Martín Aznarez López, así como el Sr. Alcalde en funciones Don Martín Dorronsoro Barandiaran, hallándose presente el infrascripto Secretario, al objeto de dar el cese al mencionado Sr. Alcalde en funciones y posesión al nuevo Ayuntamiento para ocupar los respectivos cargos por los expresados Sres. del margen. Acto seguido el Sr. Teniente Comandante militar hizo uso de la palabra manifestando que por órdenes militares se había encargado de constituir una comisión gestora de 2º. carácter derechista que cooperara con todos sus esfuerzos a la causa que se defendía por España por las fuerzas militares quienes podían darse por constituidas en el mando supremo de la Nación como autoridad legítima. Exhortó a los presentes en la referida cooperación que por el momento debía preocuparse a la ayuda eficazísima de las fuerzas militares para el sostenimiento del orden y fin que se perseguían en defensa de España con el objeto de destruir a las tropas que no tienen otro fin que la destrucción de la Nación Española. Expuso a continuación que daba infinitas gracias al Sr. Alcalde en funciones por su buen comportamiento y actividad demostrados en los pocos días que a su presencia ha estado ejerciendo el cargo, pudiendo considerarse que sus servicios han sido con celo y actividad cual hubiera sido con toda la voluntad presta al alcance. El Sr. Alcalde en funciones dio las gracias por las elogiosas palabras del 3º. Sr. Teniente Comandante militar manifestando que no había hecho otra cosa que cumplir con su deber y deseando al Ayuntamiento entrante el mejor acierto en la difícil misión conferida a su cargo, dándose con ello terminada esta primera parte de la sesión con las palabras pronunciadas por el que es Concejal de elección popular Don José Antonio Ayestaran Loinaz gritando Viva España, Viva Cristo Rey y Viva Euskal Herria, que fue coreado por todos los presentes cuya actu que firman los asistentes de que certifico yo el secretario”.

Sinadurak: José A. Ayestaran, Francisco Dorronsoro, Miguel Zurutuza, José Apalategui, Fermin Arana, Joan Urdangarin, José Munduate eta José Antonio Arratibel. *Idazkaria:* José Mancisidor.

Sesión extraordinaria, Acta de constitución del Ayuntamiento.
 Día 30 de Julio de 1936. 1ª Parte.

Proclamación del 29 de Abril de 1933.

Don José Antonio, Regatario Sinar.
 " Juan Medangarin, Regatario.
 " José Antonio, Regatario Sinar.
 " Francisco Aguirre, Regatario.

Concejales interinos designados por el Sr. Teniente Comandante Militar de esta plaza Don Perpetuo Lara España.

Don Francisco Dorronsoro, Barandiarán.
 José Antonio, Abatibiel, Armendia.
 " Fermín Alfaro, Barandiarán.
 " José Medangarin, Barandiarán.
 " Eliseo, Armendia, Armendia.
 " José Aguirre, Armendia, Aguirre.

En la Sala Constitucional de la villa de Aram, a treinta de Julio de mil novecientos treinta y seis, siendo las diez horas de un mañana y previa convocatoria en forma

al efecto se constituyó el Sr. Teniente Comandante de esta plaza antes referido, acompañado del Comandante del puesto de la Guardia Civil de la misma Don Martín Dorronsoro Barandiarán, así como el Sr. Alcalde en funciones, Don Martín Dorronsoro Barandiarán, hallándose presente el infrascripto Secretario, al objeto de dar el pleo al mencionado Sr. Alcalde en funciones y posesión al nuevo Ayuntamiento para ocupar los respectivos cargos por los expresados Regatarios. A lo seguido, el Sr. Teniente Comandante Militar hizo uso de la palabra manifestando que por ordenes militares se había encargado de constituir una Comisión gestora de



carácter desechista que coope-
para con todos sus esfuerzos
a la causa que se defendía
por España por las fuerzas
militares. Si alguien podía
darse por conatado en el
mundo supremo de la Nación
como autoridad legítima. In-
honor si los pactos en la
referida cooperación que por
el momento debía preponderar
se a la ayuda eficazísima
de las fuerzas militares pa-
ra el mantenimiento del or-
den y fin que se perseguía
en defensa de España con el
objeto de destruir si las tur-
bas que no tienen otro fin
que la destrucción de la
Nación Española. Expuso a
continuación que daba in-
finitas gracias al Sr. Al-
calde en funciones por su
buen comportamiento y acti-
vidad. Concluyó en los pocos
días que a su presencia ha
estado ejerciendo el cargo, pu-
diendo considerarse que sus
servicios han sido con celo y
actitud cual hubiera sido
con toda la voluntad puesta
al alcance. El Sr. Alcalde
en funciones dio las gracias
por las elogiosas palabras del

97

Sr. Jefe Comandante militar manifestando que no habia hecho otra cosa que cumplir con su deber y desearlo al Ayuntamiento en frente el mejor acierto su ia difícil misión confiada a su cargo dandose con ello terminada en la primera parte de la sesión con las palabras pronunciadas por el jefe es Comisario de elección popular Don José Antonio Arstegui y Mat. quedando viva la patria, viva el Rey y viva Justo el Goria que se coreado por todos los presentes cuya acta firmaron los asistentes de que certifica el secretario.



José A. Arstegui y Mat. Comisario

Miguel Lantara Jefe Protoc. *José A. Arstegui y Mat.*

Fernán Cerano

Juan Velazquez José A. Arstegui y Mat.

José Arstegui y Mat. *secretario*

Hamar lagun horiek boterea hartu aurretik, gerra hasi eta berehala Martin Dorronsoro Barandiaranek hartu zuen behin-behineko alkatetza eta herriaren gidaritza, nazionalen mesedetan.

Udalbatza berria osatu eta hurrengo batzarrean, Ogasuneko, Sustapeneko eta Gobernutzako sailak banatu zituzten⁵⁵, eta hilabete baino lehenago Francoren aldeko armada diruz laguntzeko diru bilketa antolatua zuten herrian. Lehen bilketan 2.157 pezeta jaso zituzten, eta ez zen egingo zuten bilketa bakarria izango:

«Seguidamente a propuesta del Sr. Primer Teniente de Alcalde Don Francisco Dorronsoro Barandiarán hace constar el Ayuntamiento que la primera recaudación por suscripción verificada en Agosto último en favor del Ejército al servicio de España importó 2.427 pesetas y 40 céntimos, aplicando de esta recaudación para la ropa adquirida para las mudas para las tropas del Ejército local al servicio de España 270 pesetas con 25 céntimos, cuyo remanente de 2.157 con 15 céntimos fue entregado en 8 del citado Agosto a D. Miguel Conde»⁵⁶.

Armada diruz laguntzarekin bezala, etengabe erakusten zion Ataungo udalbatza berriak Francori leialtasuna eta mirespena. Besteak beste, *caudillo*-aren argazkiak eskatu zituen, herrian jartzeko, 1936ko azaroaren 22an. Gipuzkoako Karlisten Gerra kontseiluaren gomendio eta aginduak jarraituz, udalbatza ez zen bidetik ateratzen.

Baina bestelako erabakiak ere hartzen ziren udalbatzan, gerra aurretik bezala. Lursailen gainean, auzolanei buruz, baimenak eman edo ukatzea, pobrezia laguntza ezartzea edo kentzea... erabakitzen zuen udalbatzak. Baina gerra aurretik ez bezala, erabaki haiek ez ziren legitimoak, udalbatza bera ez baitzen legitimoa. Herriak aukeraturiko ordezkariak kendu eta erregimen baten ezarritakoez egunean egunean hartzen zituzten erabakiek, handienek zein txikienek, ez zuten herritarren babesik. Gerra piztu eta nazionalen boterea eskuratzearekin batera, herritar zenbaitek koiuntura baliatu zuen nagusikeriaz gobernatzeko.

Gerraren ondorioz, udalbatza aldatu eta alkatetza karlistek hartu baldin bazuten ere, Ataunen gehiengoa nazionalista zen artean:

⁵⁵ 1936ko abuztuaren 9ko udal akta. L-46 liburukia.

⁵⁶ 1936ko irailaren 6ko udal akta. L-46 liburukia.

«Emen gorrik gutxi izango zien, republikanok ta sozialistak, bakarren bat bai, baiño bestela karlistak ta nazionalistak». (Joxe Erauskin).

«Besteik etzan, karlistak eta PNVkok» gogoratzen du Isidora Eskisabelek, eta Benito Arruabarrena senarrak zehazten du: «Gu nazionalistakok giñen ordun».

«Aien karlismoa beti izan da». (Markox Jauregi).

Eta Ataunen bezala, Gipuzkoan ere abertzaleek zuten nagusitasuna, abertzale eskuindarrek. Gerra bezperan Euzko Alderdi Jeltzaleak zuen gehiengoa, II. Errepublikako hauteskundeetan datuek erakusten duten moduan:

HAUTESKUNDEAK GIPUZKOAN II. ERREPUBLIKAN

URTEA	1931		1933	1936	
Eskuindarrak	Lizarrako blokea	% 57,7	% 24,6	% 32,9	
EAJ			% 45,5	% 36,9	
ANV	Ezkertiar blokea	% 41,0	% 1,6	Frente Popularra	% 30,2
Errepublikarrak			% 10,7		
Sozialista			% 15,7		
Komunistak			% 0,5		

Iturria: De la Granja 1986. Aizpuru (zuz.) 2007tik jasoa.

Herrian bereizia eta markatua zegoen zein zen nazionalista eta zein karlista. Eta gerrarekin muturrera eramán zituzten posizionamenduak, hainbeste ze herritarren arteko harremanak baldintzaturik zeuden:

«Amar urtekin, neskame, Ergoneko Saltsea, Andralizetara junintzen. Ta aik zien karlistak. Ta gu giñen nazionalistak, gu ez, baiño gue aitte zanata nazionalistak... Ta ni neskame neola, soron ola ai giñen, ni beintzet an, ta nausie atzen, ta auzoko gizon bat, Tomas Sartekoa: “Neskato au nungoa dezue?”, “au Artzateberrikoa diau, nazionalistatakoa aue”. Ta amar urte neuzken, baiño ba al dakizue miñe emantziala?». (Bibiana Munduate).

Gerrak zigorrak ekarri zituen, zigorrek beldurra, eta beldurrak isiltasuna. Karlismoak gerrarekin hartu zuen indarrak nazionalisten isiltasuna ekarri zuen:

«Nazionalistan kontuik etzan eze aipatzen. Danak karlistak ordun, pentsauzazue. Ta karlistak ordun aindu ittentzuen, Zirkuloare bazuen. Señalek eamantentzittuen, ordun karlistak etzien eozin!». (Bibiana Munduate).

«MOTXAILEA JARRI ZIEN IZENA». ZIGORRAK

Uztailaren 25aren ondoren 26a etorri zen bezala, gerraren atzetik zigorrak iritsi ziren. Eta Kaxetako zubia berregin eta Markesaneke bidetik sartu ziren tropa frankista gehiago, kamioietan. Besoa jasota «¡Viva España!» oihu egiten zieten soldaduek herritarrei, eta bi neskatoen aldetik gustuko erantzuna jaso ez eta, Lizarragabengoako apaiza buru zuten erreketek hiltzeko keinua egin zioten neskatoetako bati. Ez zuten, ordea, neskatoa aurkitu eta Lizarragabengoako apaizak haren etxea erretzeko agindua eman zuen. Frantzisko Zurutuza karlistak umearena asmo txarrik gabeko keinua izan zela azaldu eta lasaitu zituen pixka bat gauzak. Hala, kontuak beste batean argituko zituztela aginduz alde egin zuten erreketek herritik.

«Karmen zan, Sutegikoa. Ilea moztu zien eta *motxailea* jarri zien izena», gogoratzen du Adelita Apalategik berak 13 bat urte zituenean gertatutakoa. 1936ko irailaren 7an argitu zituzten Sutegiko Karmenekiko gauzak erreketek. Martzelino Jauregi Etxarri Aranazko alkate karlista etorri zen Atauna, erreketek batekin. Emakumeei ilea mozteko agindua zekarren. Sutegiko Karmen deitu zuten, Karmen Arrese, eta, errepidera eramanda, guraizeekin moztu zion ilea Etxarri Aranazko alkateak, erreketek neskatoari pistolarekin mehatxu egiten ziola; ilea arrasera moztu zioten herriko karlisten aurrean.

Ilea moztea umiliazio zigor bat zen, zigor sexista. Hego Euskal Herri osoan moztu zieten ilea emakume askori zigor bezala, eta baita Espainian ere. Ile-mozteak ez zuen min fisikoa bilatzen, baina markatu egiten zuen zigortutakoa. Emetasunarekin loturiko umiliazio zigorra zen, ile luzea gizarte honetan emetasunaren sinboloetako bat baitzen; baita egun ere. 36ko gerran erabilitako zigor hau Bigarren Mundu Gerran Frantzian baliatu zuten alemaniar okupatzaileek.

Emakumeei ilea moztea ez zen izan tradizionalistek ezarri zuten zigor matxista bakarra. Emakumezko nazionalistak edo nazionalista nabarmenduen emazteak erreketen atorrak jostera behartzen zituzten. Ataunen Gabrieleneko andreak agintzen zuen nork josi behar zituen erreketen atorrak. Andre hori bertako apaizaren koinata zen⁵⁷.

Jazarpenak eta zigorrak pixka batean iraun zuten. Erregimen berriak bere aldekoak ez zirenak zigortu zituen. 1936ko urrian, gerra hasi eta hiru hilabetera, Martzelino Errezola San Gregorioko apaizari mila pezetako isuna jarri zioten, gerra aurreko azken hauteskundeetan euskal nazionalisten alde bozkatu izanagatik. Martzelino Errezola ia fusilatu zuten frankistek, gerraren lehen egunetan, Nafarroako erreketen «*¡Viva España!*» oihuari ez ziolako erantzun, San Gregorioko bikarioarekin zihoala. Errekete horiek bere isiltasunagatik kontu hartu zioten, eta armaz apuntatzen zutela «*¡Viva España!*» oihukarazi zioten. Handik zortzi egunera bere etxea miatu zuten. Go-goan dute hori ikusi zutenek:

«Iru apaiz zeren ordun San Gregoriotio, “*¡Arriba España!*” esan omentzian, ta bikariok seittun jaso zon, karlistea zanda. Ta bestek, nazionalistea zan da, ta ak ez da kasoike. Ta ordun bestek, “*¡Arriba España o disparo!* Ta ordun jaso zon». (Adelita Apaletegi).

Horrez gain, beste hamaika isunen eta zigorrren berri jaso zuen Joxemiel Barandiaranek⁵⁸:

- Joxe Paskasio Bikuña, Aiako erretoreari mila pezetako isuna jarri zioten. Euskaltzalea —«vasquista»— izatea leporatzen zioten, eta, ondorioz, euskal nazionalisten aldeko izatea.
- Joan Arin Dorronsoro San Martingo apaizari mila pezetako isuna ordainarazi zioten, euskaltzalea izateagatik.
- Migel Kortabarría botikarioari mila pezetako isuna ezarri zioten, eta bere koinatari 250 pezetakoa.
- Flabio Larrakoetxea alkate izandakoari 750 pezetako isuna.
- Jose Izaga San Martingo medikuari 500 pezetako isuna jarri zioten, eta kargugabetu egin zuten.
- Nikolas Zurutuza zinegotzi nazionalistari 500 pezetako isuna.

⁵⁷ GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J.C. (2006). *La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Editions Bidasoa, Milafranga.

⁵⁸ *Ibid.*

- Mantxitoneko Joxe Antonio Barandiarani 500 pezetakoa, eta irratia kendu zioten.
- Mantxintxuko Manuel Aierbe zinegotzi nazionalistari 300 pezetako isuna ezarri zioten.
- Pedro Zurutuzua Lauztiberri baserrikoari 200 pezetakoa.
- Joxe Antonio Dorronsoro Zelabear baserrikoari 200 pezetakoa.
- Artzateberriko Frantzisko Munduate zinegotziari 200 pezetakoa.
- Joxe Mari Auzmendi Larbu baserrikoari 175 pezetakoa.
- Joxe Antonio Olaluzeagakoari 150 pezetakoa.
- Lauztigarako Joxe Inazio Mujikari 150 pezetakoa.
- Olatzaberriko Frantzisko Antonio Aierberi 150 pezetakoa.
- Lauztiazpiko Joan Inaziori 100 pezetakoa.
- Joan Tomas Arreseri, San Gregorioko irakasleari, 100 pezetakoa.
- Felipe Arin San Gregorioko apaizak 50 pezetako isuna jaso zuen, hauteskundeetan abertzaleen alde bozkatu izanagatik.

Artzateberriko Frantzisko Munduate zinegotziaren alabak, Bibiana Munduatek, gerra etorri zeneko egun hartan bertan aita zigortuko ote zuten beldur zirela goratzen du zazpi hamarkada geroago:

«Mendittik etorri zien, Lizarrostitik, Maomenditik ortik. Gue aitte ordun aintamentuko zeon, ta bazkarin bat o bazuen ordun, ni akordatzen naiz. Etzan ageri etxea, ta beldurrez, osoba bat genduken gue aittonan anaie etxen, ta ue nola etorri zan aitten billa onea akordatzen naiz. Orratik, paken juntzien bik, eta etzon ezer izan. Don Danielek salbau zittun. Ala esatentzuen, arek salbau zittula. Kalteik etzuen in, aintamentukok izatea». (Bibiana Munduatea).

Goian aipaturikoez gain, hamaika herritar izan zen isunak jaso zituenik, bost, hamar eta hogeina duroko multak jaso zituenik. Hauen guztien berri eman zion Pilar Barandiaranek Joxemieli: Arbotonetakoek, Elomendietxekoek, Ugazaundikoek, Mantxintxukoek, Muñokoek, Perunearrekoek, Etxetxokoek, Goikoetxeakoek, Telleriazpikoek, Peruneberriko Mariak eta Joana Joxepak, Elizondokoek, Ezkalunekoek, Arratetakoek, Ugaldetxikikoek, Perutxonekoek, Lauztiazpiko Joan Joxek, Tellerietxeko hiru familiek, Lauzti-Iturritzako bi familiek, Lauzti-Iturritzaberrikoek, Urrutsuko Salantongoek, Sorozabalgoek, Bordagaztelukoek, Iparragirrekoek, Iturriotzekoek, Iturtxo-

koek, Aietxeberrikoek, Felipenekoek, Aiarrekoek, Iberondokoek, Joananeakoek, Urkillagakoek, Mendiurkuilukoek...⁵⁹.

Isun horiek guztiak ordaintzeko eguna iritsi zenean, Zirkulu Tradizionalistakoek Joxe Goikoetxeaundia San Martingo erretoreari kontsultatu egin zioten milaka pezeta haien ordainketa nola egin. Erretoreak zorra herritar guztien artean ordaintzea proposatu zien, bakoitzaren diru-ahalmenen arabera. Zirkulukoek ez zuten ondo ikusi erretoreak proposatutakoa. Karlisten iritzia nagusitu zen, beraz, eta multak nazionalistek ordaindu behar izan zituzten, beren euskaltzaletasunagatik nabarmendu ziren herritarrek⁶⁰.

Bestelako zigorrik ere izan zen. Askok gogoratzen dute Arratiñeko Nikolasek nazionalisten ikurrinarekin pintatu zuela etxeko balkoi-begiralekua eta zigorra jaso zuela.

Zigorra izan zuten udaleko langileek ere. 1937ko apirilaren 28an kaleratze edo purga ugari gertatu zen. Migel Kortabarría Ruiz Palacios farmazialaria, Joxe Izaga Goikoetxeaundia medikua, Migel Imaz Peña administraria, Joxe Kerejeta Izagirre mekanografoa eta Patxi Mujika Zeberio atabalaria beren lanpostuetatik bota zituzten,⁶¹ «*por simpatías con el nacionalismo vasco*». Kaleratze erabaki horrek, beste behin, erregimenak maila guztietan zeukala kontrola erakusten zuen, funtzionarioen lanerako gaitasuna gutxietsi eta jarrera politikoa lehenesten baitzuen:

«La comisión de Hacienda municipal que suscribe a quien por acuerdo del Ayuntamiento de 8 de Noviembre último se encomendó el estudio de las sanciones que debieran aplicarse en virtud de la disposición de 13 de Septiembre de 1936 publicada en el Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España y cumpliendo dicho acuerdo y en vigor dicha disposición sobre aplicación de sanciones a funcionarios públicos cuando aconsejen tales medidas sus actuaciones antipatrióticas o contrarias al Movimiento Nacional, ha examinado las diversas disposiciones sobre la materia teniendo a la vista las circulares del Excmo. Sr. Gobernador Civil General de Guipuzcoa y de Vizcaya y ateniéndose a la última del 8 del mes actual, tiene el honor de someter a la consideración del Ayuntamiento la proposición siguiente: Que se suspenda temporalmente de empleo

⁵⁹ *Ibid.*

⁶⁰ *Ibid.*

⁶¹ 1937ko apirilaren 28ko udal bileran hartutako erabakia. L-46 liburukia.

y sueldo hasta que se tramite el expediente individual cuyo resultado resolverá en su día el Ayuntamiento con la obligación de ejercer el cargo respectivo en el interior se promueva, se tramite y se resuelvan dichos expedientes individuales a los siguientes funcionarios:»

Langile horietako gehienek beren kargua berreskuratu ahal izan zuten; horretarako, zenbaitek txosten horietan agertzen zen guztia eskutitz baten bidez gezurtatu beharra izan zuten, abertzaletasunarekin inolako loturarik izan zutela ukatu eta mugimendu nazionalaren aldeko zirela erakutsiz. Udal aktetan farmazialariak eta mekanografoak idatzitako gutunen berri jasotzen da.

Farmazialariaren gutunarekin hiruzpalau orri bete zituen udaleko idazkariak, eta hau da bere «leialtasuna» agertzen duen pasarte esanguratsua:

«Consciente de mi derecho y seguro de poder demostrar de modo palmario mi inculpabilidad intereso se amplie y tramite de nuevo el expediente de forma debida, a fin de poder probar en el aparte de otros extremos los siguientes: No haber estado afiliado jamás al Partido Nacionalista y menos los que integraron el llamado del Frente Popular; mi adhesión más sincera al Movimiento Nacional Salvador de España desde el primer momento, presentándome el 25 de julio de 1936 a las tropas liberadoras, en el momento mismo, en que entraron en Ataun, y colaborando con ellas; el haber contribuido con cantidades superiores a las de los demás vecinos de Ataun en las suscripciones para el Ejército Nacional y haber acompañado al Jefe Tradicionalista de la villa a los domicilios de los vecinos con objeto de recaudar fondos para dicha suscripción; mi profunda adhesión a los marxistas; el haber estado suscrito a revistas netamente de derechas y mi simpatía profunda y sincera por el triunfo Salvador de España; el tener un hijo en primera línea desde la iniciación del Movimiento y otro como voluntario haber prestado idénticos servicios hasta que por su delicada salud fue dado de baja»⁶².

Farmazialaria, medikua, administraria, mekanografoa eta atabalaria bezala, geroago Joan Dorronsoro Zeberio albaitaria eta Migel Maria Imaz Peña alhondigeroa kargutik kendu zituzten, aurrekoak bezala, ustez mugimendu nazionalaren aldeko jarrera beharrean abertzaleen aldekoa erakutsi zutelako. Agindua iritsi zen unean bertan, albaitaria frontean zen, tropa nazionaletan borrokatzen. Bestetik, alhondigeroak bere lanpostua berreskuratzeko egini-ko ahaleginak ikaragarriak izan ziren, aktetan gordetzen denez:

⁶² 1937ko azaroaren 25eko udal akta. L-46 liburukia.

«... con respecto a mi persona más si se tiene en cuenta que por mi escasa cultura y significación no tuve actividades personales en política ni ejercí la menor influencia en tal sentido, limitándome al cumplimiento de mi cometido de alhondiguero y de tamborilero municipal que continuó desempeñando, siendo de notar precisamente por esa sumisión de mis cargos fue por lo que se repartieron por igual en las últimas elecciones los votos de mi familia entre tradicionalistas y nacionalistas, cuando éstos iban separados del Frente Popular y nos hicieron creer que eran de Derechas. Por otra parte es bien patente mi derechismo y mi censura al nefasto contubernio de los separatistas con los rojos y mi adhesión al Glorioso Movimiento Nacional»⁶³.

Bestela, kargutik kendutako langileen hutsunea betetzeko egingo ziren oposizioetan, erregimenari leial izan zitzaizkion langileak edo gerran frankismoaren bandoan borrokatutakoak izan behar zuten.

Ataungo udaleko langileekin bezala, 1936an Gipuzkoako Diputazioko langileen artean ere garbiketa egin zuten; hala, Diputazioko 972 langileetatik 598 kaleratu egin zituzten; gehienak, mikeleteak, bidezainak eta telefonistak ziren. Diputaziotik kaleraturikoek beren lanpostua berreskuratzeko espediente garbi bat aurkeztu beharra izan zuten. Nafarroan purga edo garbiketa hauek ikaragarriak izan ziren; Iruñeko Udalean eta Diputazioan nabarmenak izan ziren, baina Mendabian, adibidez, alkatea, zinegotzi gehienak eta udal funtzionario asko exekutatu egin zituzten.


GERRAN HILDAKOEI EGINDAKO OHOREZKO EKITALDIAK

Ataunen gerra altxamendua izan eta berehala amaitu baldin bazen ere, 1936an hasitako gerra hura hiru urtez luzatu zen. Gerra aurrera zihoan, eta lehen lerroko «garaipenak», Francoren garaipenak, hain zuzen, atzeko lerroak ere «ospatzen» zituen. Hala, 1937ko otsailean tropa nazionalak Malaga hartu zutenean, estatuburu izendatu berriari, Queipo del Llanori, telegrama bat bidali zion Ataungo udalbatzak, garaipen horregatik zoriontzeko⁶⁴.


⁶³ 1939ko maiatzaren 30eko udal akta. L-47 liburukia.

⁶⁴ 1937-2-9

“A propuesta del Sr. Alcalde el Ayuntamiento por unanimidad acuerda transmitir por conducto al Excmo. Sr. Gobernador Civil General de Guipúzcoa y Vizcaya un telefonema de felicitación a su Excelencia el Generalísimo y Jefe del Estado Español Don Francisco Franco y al Excmo. Sr. General Don Gonzalo Queipo de Llano, así como a todo el Ejército a sus órdenes por el triunfo brillantísimo y grandísimo obtenido con motivo de la ocupación de la ciudad de Malaga”. L-46 liburukia.

	<p>El propuesta del Sr. Valde, el Ayuntamiento por unanimidad acuerda transmitir por conducto del Excmo. Sr. Gobernador Civil General de Guipúzcoa y Vizcaya una telegráfica de felicitación a Su Excelencia el Generalísimo y jefe del Estado Español Don Fran- cisco Franco y al Excmo. Ge- neral Don José Luis de Liano, así como a todo el Ejército a sus órdenes por el triunfo bri- llantísimo y rapidísimo obtenido con motivo de la ocupación de la ciudad de Malaga.</p>
---	---

Horrez gain, handik hilabete batera, 1937ko martxoaren 14an, Francori leialtasuna agertze aldera, Santiago kalea eta Avenida de Navarra kaleak izendatu zituen udalbatzak⁶⁵:

<p>Punto 2º:</p> 	<p>a personas, alguna.</p> <p>El Ayuntamiento con objeto de seña- lar a la Provincia de Navarra el merecido elogio por su actuación al iniciar el glorioso movimiento nacional al servicio de España, acuerda por u- nanimidad poner un cartel en la casa Iztatorzarra a la entrada de este casco del pueblo en que diga "ave- nida de Navarra" que comprenderá desde dicha casa hasta la de Bi- debietta.</p>
--	--

⁶⁵ «El ayuntamiento con objeto de señalar a la Provincia Navarra el merecido elogio por su actuación al iniciar el glorioso movimiento nacional al servicio de España, acuerda por unanimidad poner un cartel en la casa Iztatorzarra a la entrada de este casco del pueblo, en el que diga "Avenida de Navarra" que comprenderá desde dicha casa hasta la de Bidebietta».

Era berean, 1937ko uztailaren 20an udalbatzak Ataunen gerra hasi zene-ko urteurrena ospatzea erabaki zuen.

«El ayuntamiento acuerda facultar al Sr. Alcade para los trabajos preparatorios de celebración de varios actos de celebración en conmemoración al día de Santiago Apostol y del primer aniversario de la entrada en este pueblo procedente de Navarra de las fuerzas del Ejército al servicio de España»⁶⁶.

Ospakizunak Francoren propaganda kanpainaren parte ziren. Garaipenak arrazoia ematen zuen. Propaganda kanpainaren barruan, Francoren aldekoak aintzatzea eta goraitpatzea bezain inportantea zen aurkaria hondoratzea eta zanpatzea, ankerrik ankerrenaren pare jartzeko, nahiz eta horretarako gezurra baliatu beharra izan. Aurkaria hondoratzeko eta zanpatzeko helburuarekin, Gernikako eta Durangoko bonbardaketen berri nahasiak iritsi ziren Atauna, Francoren erregimenak zabaldu zituenak, hain zuzen ere, eta ez benetan gertatutakoa.

«Urte honetako (1938ko) Corpus egunean, Arteaga jaun bikarioak Administratzaile Apostolikoaren zirkular bat irakurri zuen, Durango, Gernika eta abarreko elizak berregiteko limosna eskatuz; berak esan zuenez, gorri-separatistek suntsitu zituzten eliza horiek. Jendea elizatik atera zenean, Ezkurdiako neskatoek, Gernikan bizi izan zirenek eta orain Sutegin daudenek (eta han zeuden suntsiketa gertatu zenean) ahots goran esaten zuten: “Gorriek suntsitu zutela Gernikako eliza? Ez, ez; frankistak izan ziren erre zutenak; gure etxea ere erre zuten”»⁶⁷.

Herriak lehen lerroko garaipenak ospatzen zituen bezala, frontean hildako soldaduei ere gorazarre egiten zien udalbatzak, beti ere beren aldean borrokatu zirenak baziren, noski. Izan ere, Francoren aldeko «kausa justuaren alde» borrokatu eta bizia eman zutenak, aurreko lerroarentzat bezala atzekoarentzat ere izan behar ziren. Heroi. Martiri bilakatu ziren Francoren alde borrokatu zirenak. Eta martiriei gorazarre egiten zitzaien, ohorezko ekitaldiekin.

«Lazkauko markesan semea gerran iltzan, eta ekarri zuen Lazkaua. Eta gero jun giñen pelaiok –reketek bezela, txikik, gaztek–. Gue etxen

⁶⁶ 1937ko uztailaren 20ko udal-akta. L-46 liburukia.

⁶⁷ GAMBOA, J.M. (2006). *Op. cit.*

nazionalistak zien, baiño jun einbear derriortuta. Desfilek eitten giñuzten pelaiok. Emantzizkiuen egurrezko fusillek ta aikin instrukzion ibiltzen giñen. Karlistan baten entierroa baldin bazan, desfilau itten gendun pelaiok. Txataineneko Miele gerran iltzan, ta Bernardo Aierbe Lauztierrekakoare bai. Ta guk desfilau itten gendun. Kanposantun geo tirok ittentzittuen, *con honores*». (Joxe Mari Apalategi).



Francoren aldeko borroketan hildakoen omenaldia Beasainen. ITURRIA: Kutxako Fototeka

Ataungo udalbatzak 1936ko ekainaren 8an erabaki zuen frontean nazionalen alde hildako soldaduen aldeko hileta elizkizunak ordaintzea:

«Seguidamente acuerda el ayuntamiento que por este municipio sea abonado el gasto de entierro de primera clase a todo soldado sea del ejército o de milicias al servicio de España que siendo naturales o vecinos de esta villa con residencia en la misma mueran en los frentes de combate defendiendo la Santa Causa de la salvación de nuestra amada Patria España⁶⁸».

⁶⁸ 1936ko ekainaren 8ko udal akta. L-46 liburukia

Era berean, frontean hildako soldadu horien omenez oharra hartzen zen udalbatzan, aktan idatzirik. Hala, besteak beste, Joxe Martin Arruabarrena Imazen, Bailengo 24. batailoiko sarjentu izanik Legution hil zenaren, heriotzaren albistea agertzen da aktetan, udalaren dolumina agertuz.

Hileta ospakizunak talde nortasuna sendotzeko eta partekatzeko erri-tuak dira, are gehiago gatazka giro batean eta lehen lerroan hildakoen ka-suan. Karlistek beren balioak partekatzeko eta sendotzeko baliatzen zituz-ten hileta ospakizunak, heroizismoarekin batera, ohorea eta prestigioa emateko erritu bilakatu ziren hiletak. Era berean, propagandarako balia-tzen ziren errituok, eta herrian zegoen bereizketa areagotu egiten zuten ekitaldi hauek:

«Ni ordun neon neskame, amar urtekin, ta aik zien karlistak. Ge-rrako garaie zan ori, ta Aieko gizon bat iltzan, Aieko Errotakoa, Tomas. Rekete jantzi, ta etxeko alaba ta aitte, bik, txapel gorrikin juntzien bik, Errotaa, mutill orren etxea. Alaba illuntzen etorri zan etxea, eta aitte ez. Izoa soltera bat zeon etxen, ta galdetu zion: “Aitte ez al dator, umea?”; “Ez, izoa, ue goardin geittua”. Goardin. Nik aurpegie baneu-ken. Goizen nausie etorri zan ta bakizue... galdetu nion: “Gizon oi ie-si abittu zatzue, o?” Galdetu nion, ta nausik etzian ezer esan, baiño ala-bak esantzin: “Umea, oi emen esanatik etzazu ezerre pasauko, baiño zenbait lekutaa eamango ziñuztean”. Alaxe zien garaiek». (Bibiana Munduate).

Kultura eta gizarte guztietan heriotzaren inguruko errituak bereziak iza-ten dira, direnetan sakratuenak baitira. Eta gerra garaietan, nork bere hilda-koak goratzeak garrantzi berezia hartzen du. Horregatik hainbeste monu-mentu eta oroitikur; El Valle de los Caidos, esate baterako. Bestetik, nork bere hildakoak ezin goratu izateak frustrazioa dakar gizarte horretara, eta are gehiago hildakoak non dauden ez jakiteak.

Gerran hildako soldaduei, esan bezala, gorazarre egiten zitzairen. Baina soldaduek tratu berezia izaten zuten atseden egunetan etxera etortzen zire-nean ere. Ataungo Udalbatzak mimoz zaintzen zituen tropa nazionaletan borrokatzen ziren herritarrak. Eguberrietan, esate baterako, diruz saritzen zituen soldaduak. Udal aktetan irakur daitekeenez, 50 pezetako saria ema-ten zitzairen soldaduei. Garai hartan gizarte laguntza eskatzen zuten askori udalbatzak egunean pezeta bat ematen ziola kontuan izan behar da, konpa-razioa egin ahal izateko. Gerrako lehen hilabeteetan bezala, hurrengo urte-

etan ere erregimenaren aldeko soldaduek tratu berezia izan zuten udalbatzaren aldetik⁶⁹.

Punto 2º. Dada cuenta por lectura de la orden del 25 de octubre último del Ministerio del Interior referente a la recaudación en especies y en metálico del Aguinaldo del soldado hasta el día 10 del próximo mes de diciembre y el envío de dicha recaudación antes del día 20 de diciembre en la forma y lugar que indica dicha orden Ministerial, el Ayuntamiento acuerda su cumplimiento y a cuyo fin acuerda encabezar esta Corporación el referido Aguinaldo con 50 pesetas, acordando se lleven las listas respectivas, o sea, una de especies y otra de metálico o billetes correspondientes, dando la debida publicidad al efecto de esta recaudación para conocimiento general del vecindario en la forma acostumbrada.

GERRAKO AGIRI EZ-OFIZIALAK

Gerrako agiriak idazten eta zabaltzen zituen Francok. Gerrako agiri ofizialak ziren bereak. Komunikazioak garrantzi handia zuten, aurreko borrokaleroaren berri ematen zuten atzean, baina komunikazioaz gain, propaganda kanpaina ziren agiri haiek. Herrira agiri haien bidez iristen zen borroka-guineetako berri, baina baita zuzenean ere, soldaduen gutunen bidez. Era berean, herriak frontekoen berri izaten zuten bezala, soldaduek etxekoen eta lagunen berri ere izaten zuten. Gutunen bidez komunikatzen ziren etxekoak eta frontekoak:

⁶⁹ 1938ko uztailaren 12ko udal akta: «El ayuntamiento acuerda subvencionar con 25 pesetas la suscripción para la corrida de toros del día 27 del mes actual que ha tener lugar en San Sebastián en homenaje al Ejército Nacional». L-47 liburukia.

– 1938ko maiatzak 8: «Dada lectura al escrito del Secretario Provincial de F.E.T. y de las J.O.N.S. de Guipúzcoa, solicitando un donativo para el homenaje que ha de celebrarse en San Sebastián con motivo de las insignias de la Cruz Laureada de San Fernando otorgada por el Generalísimo a los componentes de la heroica 62 División, 5ª Bandera de Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S., el Ayuntamiento acuerda contribuir a dicho homenaje con la cantidad de diez pesetas y comunicar a dicho Sr. Secretario que lamenta no poder contribuir con más cantidad por el momento a dicho homenaje». L-47 liburukia.

«Kartak etortzentzien, ta eskritzen gendun». (Felix Eskisabel).

«Nik nittun batzuk, eak etxen ez zekienak eskribitzen eta nei eskribitzentzien, Mitxelenekoa eta nee lengusue Diego oire bai, ta ola bi, ta nik berriz, kontestau. Amak esanez, “ene, eskribittuion orri beintzet, etxetik etzeuke kartaik orrek”». (Adelita Apalategi).

*«Ahora empiezo a comprender
que el pan del destierro es amargo»*

(Joxemiel Barandiaran)

«ERBESTEKO OGIA MINGOTSA DA» ERBESTEA

Ez aurreko lerrotik, ez atzekotik, gerra erbestetik sufritu zuenik ere izan zen Ataunen; Joxemiel Barandiaran izan zen horietako bat: «Judeo-mason, rojo separatista» zela salatu zuten, eta erbestera ihes egin zuen.

Gerra lehertu zen egunetan Debako kobak ikertzen ari zen Barandiaran Telesforo Aranzadirekin.

«Espainian guda gizon asko gobernoaren aurka asi direla entzun degu, artzulora geren (sic) lanean ari gerala⁷⁰».

Luze gabe, Aranzadi eta biak Bilbora joan ziren, eta, han, bi ikertzaileak betiko banandu ziren. Aranzadik Bartzelonara egin zuen Bilbotik, bere familia bizi zen kaleari eraso ziotela entzun zuenean. Ez zuten gehiago elkar ikusi bi lagunek.

Bilbotik Lekeitiora, Lekeitiotik Saturrarana; 36ko Gerraren gogortasuna bere egunerokoan jaso zuen Barandiaranek:

«31.n eguna: Iñaki Deunaren eguna. Egun tristia Gipuzkoa'n: guda gogorra dabil Beasain'en, Ordizia'n, Tolosa-inguruan, Errenderi'n eta Oiartzun'en. Euskalerrian ez dala sekulan, juan dan egunetan Beasain'en egin dana aña gizon-iltze egin, esan digute: Ze ikuskizunak guda au ekarri diguten gizonena!⁷¹».

Barandiaranen biografiak, gerraren eta erbestera ihes egin beharraren gogortasunaz gain, elizaren barruko banaketa erakusten du, antropologo eta apaizaren

⁷⁰ BARANDIARAN, J.M. *Diario personal. Volumen I (1917-1936) Desde los primeros trabajos científicos hasta el inicio del exilio*. Barandiaran Fundazioa. Ataun.

⁷¹ *Ibid.*

barruetan ezinegona eta samina sortzen duen banaketa, hain zuzen ere. Euskal elizgizon eta emakume erlijiosak ataka berezian jarri zituen gerrak. Elizgizon eta emakume erlijiosa ziren aldetik, errepublikarrek etsai moduan ikusten zituzten, baina, euskaldun ziren aldetik, tropa nazionalak eta erreketeeek ere ez zituzten beren aldean nahi. Frankismoak argi zuen zein ziren bere etsaiak: «*El judaismo, con sus secuelas de masonería y comunismo, y el separatismo*».

Lekeitioko Jentiletzetako koban egiten ari zen ustiaketa lana bertan behe-
ra uzteko agindua eman zion Joxemiel Barandiarani Mutrikuko Fronte Po-
pularrak eta denbora gutxian Saturrarango apaiztegia Euzko Alderdi Jeltza-
leak kuartel bihurtu zuen. Hala idatzi zuen irailean bere egunerokoan:

«Día 16: En Saturrarán estamos un conglomerado de gente de guerra y de paz: sacerdotes, seminaristas, milicianos, miqueletes, encarcelados o detenidos (hoy traen desde Zarauz ocho), un peregrino, y, al lado, carabineros y metereólogos⁷²».

Giroaren berotasunean, apaiztegia uztea erabaki zuen Barandiaranek, eta han zeuden 20 gazteentzat lekua bilatu zuen. Manuel Irujo Gerra Departamentuko buruarekin hitz egin zuen horretarako, Loiolan. Inguru guztiak hartuak zituzten gudariek:

«Día 17: (...) Nadie que no sea miliciano puede acercarse al santuario desde medio centenar de metros, a cuya distancia está situada la guardia. Allí le detienen al visitante. Un par de milicianos, simpáticos muchachos que hablan vascuence, hacen guardia en cada una de las avenidas que conducen al cuartel general. Entregamos una tarjeta solicitando entrevistarme con D. Manuel Irujo. Más de media hora aguardamos la contestación. Nos conducen al Santuario. Después de otra media hora me recibe el Sr. Irujo a quien expongo nuestro deseo de trasladar a Alava a los alumnos de Saturrarán. Irujo opina que éstos deben pasar la línea o frontera de los combatientes por la región de Salinas de otra análoga por el lado de Álava, comunicándoselo el mando a los milicianos que hacen guardia por el lado de acá, y encargando a uno de éstos que vayan al otro lado, provisto de bandera blanca a anunciar la llegada de una colonia escolar. Me ha agradado que el asunto será tratado en la próxima reunión de la Junta de Defensa».

⁷² *Ibid.*

1936ko irailaren 20an muga igarotzeko urratsak egiten hasi zen Barandiaran:

«Día 20: (...) Me entrevisto con el delegado del puerto de Motrico, y acordamos salir hoy para Francia en una embarcación tres de los que habían solicitado por mi mediación, y pasado mañana otros catorce. (...) A las nueve de la noche vamos al puerto de Motrico los tres señalados para hoy. La consigna es "Itziar". Nos salen a despedir Arruti (seminarista de Motrico), Abaitua (el comisario del puerto de Zumaya), el alcalde Sr. Andonegui y mi sobrino Felipe Auzmendi. En el puerto se aglomera mucha gente. Aquello es un hervidero, y buen ejemplo de desorganización. Una lancha lleva penosamente a la gente que puede a los vaporcitos que, a causa de la marea baja, nos esperan más allá del muelle. Por fin, nosotros embarcamos en el vaporcito "El ángel de la guarda". Somos unos 45 fugitivos. Con nosotros embarcan cuatro o cinco mendigoizales armados con fusiles, por si hiciera falta defendernos contra los que intentaran estorbar nuestra travesía. Salimos al destierro a las once h. menos cinco minutos. Las estrellas siguen su curso silenciosas. Vamos dejando atrás el grupo de lucecillas, que continúan denunciando a Motrico. Después divisamos grupos análogos de Ondárroa, Deva, Itziar, Lequeitio, Zumaya, Gueztaria... Vamos lejos, a alta mar, para torcer después a la derecha, rumbo a San Juan de Luz. No llevamos luces para no ser vistos. Irigoyen enciende un chisqueo para prender fuego al cigarro; una lluvia de protestas caen sobre él de todos los lados de la embarcación. Llegamos a Socoa a las cinco de la mañana. Viaje triste: con nosotros van muchos jóvenes de Motrico que huyen de la guerra y no saben qué harán, dónde se albergarán, ni a dónde deben encaminarse una vez arribados a San Juan de Luz. A mi lado va una señora que, a ratos, llora amargamente. Todos lamentan su propia suerte»⁷³.

46 urterekin, erbestean, bizi berri bati ekin behar izan zion Barandiaranek. 17 urte iraungo zuen erbestealdiari hasiera eman zion. Une gogor eta nahasiak bizi izan zituen:

«En el destierro, fuera de nuestro país y desconectado de los cargos y funciones que desde hace 22 años desempeñó».

«Aquí me tiene en este simpático monasterio. ¿Hasta cuándo? No lo sé. Desde luego, no puedo pensar en volver a Vitoria por ahora. Me

⁷³ *Ibid.*

dice además que ya no puedo entrar en el Seminario. Me cuesta creerlo, porque yo nunca me había metido en política, ni entendía de tales cosas, sino que tan sólo, en connivencia de colegas de otros países, intenté realizar estudios de Historia primitiva del hombre, Sociología y Sicología de los pueblos, escogiendo para ello como terreno de investigación el país donde nació y donde he vivido y a esta labor dediqué mis energías y mis ahorros»⁷⁴.

Belloc-eko monasterioan lehenik, Dop senar-emazteen etxean ondoren, Saran. Berehala, erbesteko apaizgaien komunitateko arduradun egin zuten Barandiaran. Hego Euskal Herriko berriak, ordea, iristen zitzaizkion, eta, batez ere, elizak gerraren aurrean harturiko jarrerak arduratzen eta kezkatzen zuten. Erbestea gogorra gertatu zitzaion:

«Mi hermana Micaela me visita [Angelun zegoen moja] y me dice que ha hablado con la M. General acerca de su deseo de hospedarme en el convento de Anglet. Con tal motivo, las MM. han tenido Capítulo, y han resuelto no recibirme, pues teniendo que ser mi estancia por largo tiempo, no quieren imponer a los capellanes, con quienes tendría que convivir, mi compañía; preferirían darme dinero para que pueda hospedarme en alguna casa. Con esto comprendo que soy un indeseable para los capellanes. Ahora empiezo a comprender que el pan del destierro es amargo. ¡Y cuántos se encuentran peor que yo! Sólo estoy desterrado y viviendo de la caridad o de limosna, lo que me hace la impresión de que estorbo en todas partes»⁷⁵.

Erbesteratuak ugaritzen ari ziren, eten gabe. 1937ko udan 500 haur ebaquatu zituzten Bilbotik, eta haien ardura hartu zuen lehen unean Barandiaranek. Hego Euskal Herritik gero eta apaiz gehiago ari zen iristen Ipar Euskal Herrira, 110 zenbatu zituen Barandiaranek. Elizaren hierarkiaren eta euskal apaizen artean bizi zeuden gauzak:

«Esto va mal. Un gran sector del clero vasco está perseguido. En los medios eclesiásticos el ser vasco es pecado original. En un gran sector de la población vasca la Jerarquía eclesiástica está desacredi-

⁷⁴ BARANDIARAN, L. *Barandiaran. Patriarca de la cultura vasca*. Sociedad de educación Atenas. Madril.

⁷⁵ *Ibid.*

tata. Hace unos días recibí la visita de tres eclesiásticos que me proponían lanzar un manifiesto invitando al clero y a los fieles a un cisma: rotura con la Jerarquía eclesiástica⁷⁶».

Barandiaranek behin eta berriz esaten zuen ez zuela politikan sartu nahi:

«Los más dignos –los santos– han permanecido con más frecuencia en el anonimato. El remedio no es el cisma sino no pensar la religión políticamente y tratar de intensificar nuestra vida interior y ser caritativos».

Pio XII.a aita santu izendatzeak ez zien batere lagundu euskal apaizei. Erbestearen gogortasunari gehitzen zitzaion beren komunitatean onartzen ez zituztenaren sentimendu gazia.

Hego Euskal Herriak bizi zuen 36ko gerratik ihesi, Ipar Euskal Herriak jasan zuen Bigarren Mundu Gerrak harrapatu zuen Barandiaran. 1939ko irailaren leian Alemaniak Polonia inbaditu eta bi egunera Ingalaterrak eta Frantziak Alemaniari gerra deklaratu ziotenean, Normandian barruratu zuten Barandiaran, Pedro Mentxakarekin batera. Erbestearen barruan, beste erbeste bat bizi izan zuen.

1946. urtea arte, egoera ez zen baretu Barandiaranentzat. Orduan 36ko gerra eta Bigarren Mundu Gerra gaindituta, beste aro emankor bati hasiera eman zion. Ordurako Saran zen berriro. Eta lau urtera, Ataunerako itzulera hasi zen prestatzen; 1950ean egin zituen bere iloba Pilarrek itzuleran egoitza izango zuen etxea eraikitzeko gestioak. 1953ko azaroan Ataunen zen.

«30 de noviembre. Por la tarde paseo por Gaztiñerre e Igartua y luego, pasando por Keñuestrata, llego a San Gregorio. Cuántos recuerdos se me agolpan en la memoria a lo largo de todos esos caminos!»⁷⁷.

Ez zen, beraz, erbestean bizi izan zen ataundar bakarra Joxemiel Barandiaran. Bere ondoan denbora luzean egon baitzen Pilar Barandiaran.

Ataundarrok bezala, ehunka edo, areago, milaka euskal herritar ebakuatu zituzten erbestera 36ko gerra garaian. Haurrak eta emakumezkoak gehien

⁷⁶ *Ibid.*

⁷⁷ *Ibid.*

bat. Ipar Euskal Herrira bezala, Frantziara, Belgikara, Erresuma Batura, Errusiara eta, areago, Amerikara (Mexikora) erbesteratu zituzten hainbat eta hainbat.

Erbestea, Joxemiel Barandiaranen kasuan bezala, beste askorenean ere pausatua izan zen. Gerra lehertzean nazionalen kontrolpean zeuden eremuetatik errepublikarren kontrolpean zeuden guneetara egin zuten lehendabizi ihes: Bizkaira. Antolamendu zehatzik gabeko ihesaldiak izan ziren hauek. Eta behin Bizkaia eta batez ere Bilbo iheslariz bete zenean, beste pauso bat eman zuten: itsasoz «muga» pasatu zuten, Hego Euskal Herritik Ipar Euskal Herrira. 1936ko uztailaren 30etik irailaren 1a bitartean, 3.000 bat lagunek gurutzatu zuten beste aldera.

1936ko urriaren 7a arte, Euzko Jaurlaritzak ez zuen ebakuazio politikaren gidaritzara hartu; hurrengo urteko otsailean Errefuxiatuen Laguntza eta Ebakuaziorako Bulego Nagusia ireki zuen Jaurlaritzak, eta ebakuazioak koordinatu zituen. 16.000 bat lagun joan ziren mugaz bestaldera; horietako 6.000 haurrak ziren⁷⁸.

Ebakuazioak ez ziren arriskurik gabeko bidaiak izaten. Trenez eta kamioiz egiten ziren ebakuazioetan bonbardaketen eta erasoen arriskua izaten zen, eta itsasontziz egiten ziren bidaietan, berriz, Cervera izenekoa bezalako ontzi frankistak mehatxu izan ohi ziren. Ebakuazioak modu egokian egin ahal izateko, herrialde hartzaileen laguntza ezinbestekoa izaten zen, bai bidaietan zehar eta baita iritsi ondoren ere, ebakuatuen horniketa eta osasuna bermatzeko⁷⁹.

Herritarren artean ebakuazioaren inguruko zalantza ugari izan zen. Gertratik babesteko haurrak gurasoengandik bereizteak izan zitzaizkeen onurak zalantzarriak baitziren askorentzat. Ebakuazioak gauzatu zitezten, Espainiako Errepublikaren Gobernuak eta Euzko Jaurlaritzak ebakuazioaren aldeko kanpaina propagandistikoa egin zuten, ebakuazioa gerra galtzarekin lotu ez zedin:

«Ebakuazioak ez du esan nahi herriak galdu egin duela, baizik eta kontrakoa; esan nahi du garaipenerako baldintzak prestatu nahi direla,

⁷⁸ ALONSO CARBALLE, J. et al (2003), *El exilio de los niños*. Fundación Pablo Iglesias, Fundación F. Largo Caballero, Madril.

⁷⁹ DREYFUS-ARMAND, G. (2000), *El exilio de los republicanos españoles en Francia: de la guerra civil a la muerte de Franco*. Crítica. Bartzelona.

zeren eta dena baita erabilgarri gerran, eta Armadaren mugimenduak oztopatzeko izan baitaitezke. Gudariok... egin dezagun Madrilén egin dutena, utz ditzagun albora sentimendu txepelak eta bidal ditzagun gure familiak leku lasaiagoetara...! Gerragatik eta gure ospe iraultzaileagatik, onar dezagun ebakuazio agindua!»⁸⁰.

Joxemiel Barandiaranen kasuan bezala, erbestealdiak ez zuen gehienek kasuan uste bezain gutxi iraun. Atzerriko norberaren familietan, adopzio familietan, errefuxiatuen kolonietan, kolonia-eskoletan eta babeslekuetan egon ziren ebakuatuak. Itzuleraren zain⁸¹.

⁸⁰ LAVIANA, J. C. (2005), *La Guerra Civil española mes a mes; Los niños de la Guerra*, Unidad Editorial, Madril. Lan honetarako euskaratua.

⁸¹ BARRUTIABENGOA, U. et al, (2007), *Galdakaoko emakumeen eskutik, 1936-1960*, Galdakaoko Udaleko Berdintasun Saila, Galdakao.

*«Gerrako garaien euskerea
oso-oso-oso kastigauta zeon:
“Castigado por hablar el vasco,
cien reglones”»*

(Felix Eskisabel)

ERREGIMENA EZARTZEN

Altxamenduaren aldekoek ezarri nahi zuten estatu berri hura zerotik erai-ki behar zuten, eta lehenengo ekintza beren ikurrak ezartzea izan zen, bandera aldaketa egin zuten: hala, 1936ko abuztuaren 15ean bandera errepublikarraren ordean monarkikoa jarri zuten Francok eta Queipo de Llanok Sevillan.

Bandera aldaketa izan zen erregimenak bultzatu zituen hamaika aldaketatan lehenena. Apurka-apurka hainbat neurri hartu ziren gizartearen funtzionamendu orokorra aldatzeko asmoz.

Erregimen frankistak izan zuen eragina ulertzeko, erregimenaren aurreko gizartetik ondorengora jazotako aldaketak aztertu behar dira, baita aldaketa hauek eragiteko erabili zituzten mekanismoak ere.

Gizarte egituraren eta aldaketaren analisia oinarritzko gai izan dira gizarte zientzietako ikerketetan. Aldaketaren jatorriaz hitz egin duten egileek gizarte barneko aldaketa eta kanpotik bultzatutako aldaketa bereizi dituzte sarritan. Bereizketa honen gaineratik, gizarteko barne mugimenduen eta kanpo gertakarien artean dauden loturak azpimarratu beharko lirateke, batzuen eta besteen beharra izaten baita ulertuak izango badira. Robert Nisbet-ek, 1972. urtean jada, defendatzen zuen gisan: «Gizarte aldaketak ikertzeko ahalegin guztiek porrota izango dute ondorio, gertakari historikoak kontuan izaten ez badira». Beraz, gertaera historikoen aldaketa garrantzitsuak bultzatzen dituzte gizartearen funtzionamenduan, jendearen eguneroko bizitzan. Baina, bestetik, eguneroko bizitzan jendeak egiten dituen gauza txikiek ere aldaketa esanguratsuak ekar ditzakete. Ikuspuntu honetatik, pertsonen beren bizitzetan agente aktibo izateko gaitasuna aitortzen zaie, hau da, testuinguru historiko eta kulturalak gertatutako eszenatokian aktore izateko gaitasuna.

Erabaki asko izan ziren Ataunen eta ataurdarren egunerokotasunean aldaketak eragingo zituztenak. Horietako nabarmenena 1936ko irailaren 21ean

nazionalak Salamancan egin zuten batzarrean Franco izendatu izana, botere erabatekoa har zezan, eta handik astebetera estatuburu izendatu izana, «gerak iraun bitartean». Urriaren 1ean Burgosen egin zuen hitzaldian, bere burua estatuburu eta lurreko, itsasoko eta aireko Armadaren *Generalismo* moduan aurkeztu zuen. *Caudillo*-a sortu zen.

Gerra Atauna iritsi, herriko gizon gazte asko gerrara eramane, abertzaleak zigortu eta legitimoa zen udal gobernu deuseztatzeaz gain, erregimen berriak eguneroko bizimoduan aldaketak eragin zituen. Errepublikak babesten ez zituen balioak ezarri zituen Francoren erregimenak, hala nola, moraltasuna, kristau-katolizismoa edota espainiartasuna goratu eta exijitu zituen. Erregimen berriaren ideologia herritar guztiengana irits zedin, hezkuntza eta eliza izan ziren tresna edo bide nagusiak, eta gizarte eredu zehatz bat zuen jomuga eta helburu.

Franco jeneralak hainbat botere-talderen babes beharrezko izan zuen 1936an altxamendu nazionalarekin hasi zuen gerra garaitzeko: militarrena, elizarena, falangistena eta monarkikoena (karlistena). Eta behin gerra irabazita, faborezko tratua izan zuten botere-talde horiek, Francok diseinaturiko gizartearen eredu bilakatuko baitziren, eskuineko ideologiak bultzatzen dituen eredu.

Botere militarren eredu, esate baterako, Francok bultzaturiko gizarte hierarkizatuaren oinarrian dago. Botere militarra botere faktikoa izan zen Francok gerra irabaz zezan. Errepublikarren hutsune nabarmena artilleria falta izan zen, armamentu eskasia, baina baita ekintza militarretara trebatu gabeko erregimentuak eramatea ere, asko eta asko boluntarioz osatuak baitzeuden. Gerra irabazteko, beraz, militarren laguntza ezinbestekoa izan zuen Francok; ez da ahaztu behar, altxamendua bera militarrek bultzatu eta gauzatu zutela. Horrez gain, behin gerra irabazita, frankismoak ezarri zuen gizarte eredu militarrena izan zen, hierarkia militarren eredu, hain zuzen ere.

Elizak altxamendu nazionala Espainian (eta Hego Euskal Herrian) katolizismoa berrezartzeko baliatu zuen. Eta berak hobesten zituen balioak arau bilakatu zituen Francoren Gobernuak. Eliza bera eta elizak kontrolaturiko hezkuntza sistema izan ziren horretarako tresna. Elizaren babesarekin, Francok Gurutzada Santu gisa aurkeztu zuen 36ko gerra.

Falange Españolaren zeregina, bestalde, gizarte eredu bat ezartzea izan zen. 1937ko apirilean, Falangeko buru nagusiak desagertuta (1936an hil zuten Jose Antonio Primo de Rivera) eta karlisten eta altxamenduan parte hartu zuten beste talde batzuetako buruak erbestean zirela, Francok alder-

di politiko guztiak Falange Española Tradicionalista y de las Juntas Ofensivas Nacional-Sindicalistas (FET-JONS) alderdian batzeko dekretua eman zuen. Franco buru eta zuzendari zuen Movimiento Nacionalaren gune politikoa zen Falange Española Tradicionalista y de las JONS.

Alderdi guztiak partidu bakarrean biltzea (FET-JONS zeritzon) Alemaniako Hitlerren eta Italiako Mussoliniren faxismoaren ezaugarrietako bat bereganatzea izan zen. Beste diktaduren ezaugarriak jarraituz, Francok bere burua izendatzeko titulua asmatu zuen, *caudillo* titulua hain zuzen ere; Hitlerrek *führer* titulua sortu zuen berarentzat, eta Mussolinik *duce*.

Karlistak monarkiko klerikalak ziren, eta, altxamendu militarren bidez, beren lerro dinastikoa ezarri nahi zuten. Alfonso Karlos errege-gaiak⁸² Vientatik egin zien karlistei altxamenduarekin bat egiteko deia, uztailaren 18an bertan. Manuel Fal Conde izan zen karlisten buruzagi, eta, gerra amaitu eta berehala, Francok bizkarra eman eta erbesteratu egin zuen. Karlismoak erlijioa, monarkia eta tradizioa defendatzen zituen Errepublikaren aurrean; gerra bezperetan foruen aldarrikapenak ez zuten halako indarririk karlisten artean.

Honela babesten dute gaur egun nazionalen altxamendua Euskal Herriko karlistek:

«Elizak eta komentuak eten gabe erretzen zituzten bitartean eta indarkeria politikoak bakean bizitzea ezinezko egiten zuten bitartean, II. Errepublikako Gobernua ez zen gauza izan edo ez zuten nahi izan ordena publikoa ezartzeko, eta horrek eragin zuen erreketek (Comunión Tradicionalistako milizianoak, non 10.000 gizonetik gora batzen ziren) eta Armadaren sektore bat (Sanjurjo buru zuena) altxatzea, elizaren askatasuna eta elkarbizitza politiko berriro ere posible izan zitezkeen; altxamenduaren asmoa behin-behineko Gobernua osatzea zen, elkarbizitza politiko berrezartzeko, eta, behin hori lortu ondoren, hauteskunde libreak deituko zituen»⁸³.

Altxamenduak, ordea, jakina den bezala, huts egin zuen eta gerrari bidea ireki zion. Horrekin batera, karlismora krisia iritsi zen: batetik, Alfonso Karlos hil zen, azken «errege legitimoa» Karlos V.aren oinordekoa. Bestetik, altxa-

⁸² Ataungo Udaleko alkate eta zinegotziek Alfonso Karlos errege-gaiaren heriotza gogoratu zuten 1936ko urriaren 11n, otoitz baten bidez: «*El Ayuntamiento por unanimidad hizo constar en acta el sentimiento de la Corporación del fallecimiento de su Alteza el Príncipe Don Afonso Carlos de Borbón y de Austria Este*».

⁸³ www.eka-partidocarlista.com/evolucion.htm.

tzen bazan bikarioa... kongregaziotik kanpoa! Bein bikarioi emantzio-
en abixoa beste emakuma batzuk eta... San Gregorioko apaiza oso
gaiztoa zan gauza oitako». (Adelita Apalategi).

Elizaren aurrean emakumeak eta gizonezkoak oso desberdinak ziren. Be-
reizketa egiten zuen Elizak. Hasteko, bereizita jarri behar zuten elizan, alde
batean gizonezkoak eta bestean emakumezkoak. Eta batzuekiko eta bestee-
kiko jarrera desberdina zuen. Elizak desberdin ikusten zituen gizonezkoak
eta emakumezkoak:

«Entre el hombre y la mujer existe una diferencia considerable desde el punto de vista de la sensibilidad o excitabilidad sexual. Mientras muchas muchachas y novias no experimentarán quizás ninguna reacción propiamente sexual ante ciertos hechos excitantes (por ejemplo, imaginaciones, ciertas lecturas y miradas, ciertos abrazos y besos), no sucederá lo mismo con la mayoría de los hombres. Las novias deben saber con toda certeza que ciertas actitudes (modales, vestidos y posturas), ciertos gestos y tocamientos (besos, abrazos), ciertas familiaridades que acaso les dejen a ellas sexualmente frías, son normalmente y por regla general para ellos violentos deseos... Ante tales provocaciones graves las jóvenes deben tener una extremada vigilancia y un constante recato en sus actitudes y en sus vestidos»⁸⁶.

Elizaren helburua Espainia (eta Hego Euskal Herria) berriro katolizismo-
ra bueltatzea zen; Francok bere nazioaren kutsadura ideologikoaren oina-
rrian herriak erlijioa baztertu izana zegoela zioen, eta aitzakia hori erabili
zuen bere mesederako. Bere ideologia zabaltzeko baliatu zituen mezetako
sermoiak, moral garbi baten ezarketa abiatzeko, eta, era berean, Espainia be-
rriaren handitasuna eta garbitasuna nabarmentzeko.

Ataun herri kristaua zen eta ez zituen babesten Errepublikaren hainbat
ideia, baina ez zetorren bat, ezta ere, eliza/espainiartasuna binomioarekin.
Honela gogoratzen du Pilar Barandiaranek ataundar askok elizgizonekiko
izan zuen ikuspegi aldaketa:

*«Apaizen kontrako kritika, sutsuak eta orokorrak dira, salbuespenak
salbuespen, gerraren faktore eta laguntzaile gisa ikusten baitzituzten»⁸⁷.*

⁸⁶ DANTEC, F (1964). *Noviazgo cristiano*. El mensajero del corazón de Jesús.

⁸⁷ GAMBOA, J. M. eta LARRONDE, J.C. (2006). *La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Editions Bidasoa, Milafranga.

Gerra aurretik eta gerra ondoren, Elizaren jarrera ez zen berdina izan, ezta Ataunen ere:

«Francoren tropak Ataunen sartu aurretik, elizako sermoia, beti bezala, erlijio gaiei buruz egiten zen. Baina gero, San Gregorioko apaiz Don Jose Antonio Arteagaren sermoien zati handi bat sumintzaldi politiko eta borrokalariak izan dira, Espainiaren handitasunari buruzko aipamen gogorrekin, soldadu frankisten baloreez, Francoren armadaren garaienei buruzko aipamenekin. Jendeak mitin deitzen die jaun honek ematen dituen eliz funtzioei. Honek maiz, engainatutzat eta ezjakintzat hartzen ditu Francoren kontra borrokatu diren soldaduak. Beste behin esan zuen beste batzuk etorkizunik gabe geldituko direla, zorigaitzoko; gureek beraientzat eta beren familientzat laguntzak izango dituzten bitartean. Hau 1938ko maiatzeko hirugarren igandean gertatu zen»⁸⁸.

1938. urteko urtarrileko lehen igandetik Garizumaren erdialdera arte, sermoia gaztelania hutsez egiten zen, Pilar Barandiaranek deskribatu zuenez. Baita errosarioa eta mezaren ondorengo Agur Mariak ere. Bitarte horretan guztian, jende askok meza nagusira joateari utzi zion eta baita bezperetara ere. Jendea errosarioa euskaraz errezatzen hasi zen, etxe partikularretan elkartuz, igande arratsaldeetan.

«Ni arratsalde horietako batean egon nintzen Sutegin, eta beste batzuekin elkaturik, errosarioa errezatu nuen. Elizan egiteko baimenik ez genuenez, ezkutuan egiten genuen etxe partikularretan. Katakunben garaia ematen zuen». (Pilar Barandiaran).

Elizetan errezoak eta sermoiak gaztelaniaz egiten zirenean, Kandelaria eguneko kandelaren entregaren berri ematea, buldak lortzea, eserlekuen ordainketaren berri ematea euskaraz egin zuen Arteaga apaizak pulpitutik. Kantu guztiak ere gaztelaniaz egiten ziren elizan, 1938ko Garizuma erdia arte. Ordutik aurrera, kantuak euskaraz egiten ziren, errosarioa bezala, eta gainerako errezoak latinez egiten ziren. Sermoia bi hizkuntzetan egiten zen: lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.

⁸⁸ *Ibid.*

«Debekatua dago Agur Mariaren testua agur hitzarekin hastea, katekesian agertzen den bezala. Ave Maria latineko hitzekin hasi behar da. Don Martzelino Errezolari Beasaingo apaiz militarrek deitu zion agur hitza Ave Maria errezoan propio debekatzeko. Aiako bikario Bikuña jauna gaizki tratatu zuten, eta zigortuko zutela mehatxu egin zioten erreketek batzuk agurtzean agur hitza esan zielako». (Pilar Barandiaran).

Elizak pisu eta presentzia handia zuen garai hartako gizartearen egunerokotasunean. Frantziska Aierdik gogoratzen du zer-nolako garrantzia zuen orduan erlijioak herrian⁸⁹:

«Bi apaiz eta bikarioa genituen San Gregorion, hiru edo lau apaiz eta bikarioa San Martinen eta bikarioa Aian. Mezetara, orokorrean, igandetan joaten ginen. Goizeko bostetan jaikitzen ginen “matutinarekin” batera. Konfesatzeko txanda eskatzera joaten ginen apaizarengana, konfesioak egin, komulgatu, goizeko sei t’erdietako meza entzun eta etxera itzultzen ginen. Gero, goizeko hamarretan meza nagusira eta arratsaldean bezperetara. Meza osoa latinez izaten zen». (Frantziska Aierdi).

Elizak hezkuntza sistemaren gaineko kontrola eskuratu zuen gerra ondoren, baina, horrez gain, eskolatik kanpoko hezkuntzarekin ere jarraitzen zuen, dotrinarekin, hain zuzen:

«Elizara joaten ginen dotrinara. Garizuma garaia bazen, ordutebe lehenago irteten ginen dotrinara joateko. Zazpi urterekin hasten ginen eta apaizak ematen zigun. Bikarioak 14 urte egitear zeudenei ematen zien dotrina. Beti ere zutik egon behar izaten genuen. Dotrina liburu osoa memoriak ikasten genuen. Zazpi urterekin komunio txikia egiten genuen. Hamarrekin, komunio handia». (Frantziska Aierdi).

Elizaren kontrola zuzenekoa eta zorrotza izan zen. Eliza jendearen sinesmenaz eta fedez baliatu zen Elizarekin zertan zerikusirik ez zuten ideiak zabaltzeko, espainiar abertzaletasunarekin loturikoak, adibidez. Ataungo biztanleen egunerokotasunean Elizak presentzia handia izan zuen eta oso erraz sartzen zen gunetara, familiara, etxera.

⁸⁹ Frantziska Aierdiren familiak gure eskariz egindako elkarrizketatik hartua.

FUSILAK ETA ARKATZAK. HEZKUNTZA

Errepublikak joera ezkertiarra hobesten bazuen irakaskuntzan (irakaskuntza laikoa sustatu zuen), Francoren lehen egitekoa irakaskuntza sistema erabat kontrolatzea izan zen. Erregimen berriaren espiritua zabaltzeko tresna izango zen eskola. Erlijiotasuna eta moralitatea bermatu behar zituzten irakasleek, eta Kristoren eta Francoren handitasuna eta Espainiaren batasuna nabarmendu behar zituen eskolak, proiektu pedagogiko zehatz batekin.

Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlistak erreparatu zion irakaskuntzak gizarte eredia sortzeko garaian zuen garrantzi estrategikoari⁹⁰ eta 15 egunera-ko (1936ko abuztuaren 31n) zehaztua zuen Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlistak irakaskuntzak zer-nolakoa izan behar zuen aurrerantzean:

«...importantísimos problemas de enseñanza, educación y formación de la niñez, base esencial para la reconstrucción de la futura vida de la Patria y germen que ha de hacer fructificar este glorioso movimiento nacional y patriótico transformando hasta en sus más hondos cimientos, cuando hasta aquí ha venido contribuyendo a la degeneración social que hemos padecido».

«Ha de ser en lo sucesivo fundamentalmente católica y netamente española sin paliativos, sin remilgos de ninguna clase (...) conscientes de la decisiva importancia que ella tiene cara a la formación del espíritu de la nueva España. Cuantos obstáculos dificulten este sentido, claro y rotundo, que se quiere dar a la formación de las nuevas generaciones serán apartados inexorablemente»⁹¹.

Patriotismoa, erlijioa, hezkuntza zibikoa eta hezkuntza fisikoa ziren hezkuntza sistema berriaren lau adarrak.

Aldaketa berehalakoa izan zen Ataungo eskoletan ere; espainiartasunaren ikur izan behar zuen eskolak. Udalbatzak, Francoren hezkuntza sistemarekin bat eginez, ume-umetatik Espainiarekiko abertzaletasuna jasotzeko baliatu nahi zuen eskola, *«para que en los tiernos corazones de sus alumnos se arraigue el amor a la Patria»*. Horretarako, «Espainiaren alde» hildako sol-

⁹⁰ LASA, X. (2006). *Ahozko historia: Oroimenean lokartutako ahotsa. Gerra Zibilaren (1936-1939) eragina Gipuzkoako herri bateko bizitza sozialean. Andoain: Askatasunaren alde eta frankismoaren aurka borrokatu zutenak oroituz. Oroituz Andoain 36. Andoain.*

⁹¹ AIZPURU, M. (zuzendaria) (2007), *1936ko Udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Alberdania Memoria. Irun.

daduak heroi gisa aurkeztuko zituzten haurren aurrean, eta haiei gorazarre egin beharko zitzaien. Helburu horrekin, hildakoen argazkiak jarriko zituzten eskoletan, hasieran gerra kolonialetan hildakoen argazkiak eta, geroago, 36ko gerran hildakoenak. Horrekin batera, haurrak Espainiako bandera agurtzera behartuak izango ziren. 1937tik aurrera, Ataungo eskola guztietan Francoren koadro bana jarri zuten, otsailaren 9an estatuburu berriaren sei koadro eskatu baitzituen udalbatzak⁹².

Punto 1^o. Seguidamente acuerda el Ayuntamiento que se saque una relación de los mozos fallecidos de ésta villa durante la guerra de los años de 1936 a 1939 con el fin de poner en un cuadro y colocarlo en la Casa Consistorial y en las Escuelas Nacionales de esta localidad haciendo saber a los Señores Maestros que las regentan para que terminadas las faenas escolares del día evoquen un recuerdo a dichos fallecidos con el rezo de un Padre Nuestro en sufragio de sus almas para que en los tiernos corazones de los niños se arraigue el amor a España.

Espainia osoan bezala, Hego Euskal Herrian irakasleen garbiketa gertatu zen orduan. Errepublikaren aldeko edo abertzale ziren irakasleek ez zuten lekurik sistema berrian; hortaz, beren «garbitasuna» frogatu behar zuten edo kaleratuak izango ziren, erregimenak eskatzen zituen bezalako irakasleek ordezkatzeko. Hala, Antonio Arteaga maisuaren aldaketa nola etorri zen gogoratzen du Felix Eskisabelek:

«Don Antonio Arteaga –begin aurren dauket– etorri zan republikano utse, alavesa zan, republikano utse. Ta urdun eskolan eotentzan sakristaue, Jexux Lasa, aintamentun eotentzana, ta ue eotentzan tercera sesionen umei a, b, c, eakusten. Anjelus garaien *Ave Maria* errezatentzan, eta maisuk ittentzon beidatu bat... bueno! Uuuu letxes! Ta ala ba, gero maisu oi nun kanbiatzen dan frankismoa. Gero guri instrukziok eakusten aitzentzan, or karreteran egurrezko fusil batzugin, eo fusilen tipoko katxarro batzugin». (Felix Eskisabel).

⁹² «Seguidamente acuerda el Ayuntamiento que se saque una relación de los mozos fallecidos de esta villa durante la guerra de los años 1936 a 1939 con el fin de poner en un cuadro y colocarlo en la Casa Consistorial y en las Escuelas Nacionales de esta localidad haciendo saber a los Señores Maestros que las regentan para que terminadas las faenas escolares del día evoquen un recuerdo a dichos fallecidos con el rezo de un Padre Nuestro en sufragio de sus almas para que en los tiernos corazones de los niños se arraigue el amor a España». L-47 liburukia. 1939ko abuztuaren 22ko akta.

Garbiketa prozesuaren ondorioz, Gipuzkoako irakasleen % 27 zigortu egin zituzten, eta horien % 13 lanik egiteko aukerarik gabe utzi zituzten⁹³.

Irakasleen garbiketarekin batera, irakaskuntza liburuen garbiketa gertatu zen. 1937ko otsailean arimak usteltzen ez uzteko araua atera zuen Francok: «*Impedir la corrupción de las almas y de las inteligencias con la propaganda inmoral y escrita del desorden*». Ondorioz, *Xabiartxo*, *Nekazariyen irakurraldiyak*, *Los misterios de la India* edo *La ciudad submarina* bezalako liburuak zentsuratuak izan ziren⁹⁴.

Eliza katolikoak ezarritako hezkuntza sistemak frankismoaren nahi eta helburuen arabera gazteria sortzea zuen helburu. Horregatik, erregimenaren jarrera politikoarekin bat ez zetorren guztia zigorraren bidez apaldu eta deuseztatuko zuten.

Eskolaz gain, haurrak «bide onetik» joan zitezen, gaztetxoak jarduera paramilitarretan trebatzeko taldeak sortu ziren: Flechak eta Pelayoak, Falangearen menpekoak ziren lehenak, karlismoarenak bigarrenak:

«Martin maisue esaten gendun, Martin Barandiaran. Uere reketean zan bea, karlistea, eta guk arek esandakoa ein bear eskolan. Pelayo jantzita, zaarragok eta gaztegorok, emen barriokok instrukzion ibiltzen giñen, ia eunero, atsaldetan. Denboratxo baten iraun gendun». (Joxe Mari Apalategi).

Mutilak Flecha eta Pelayoetan hezten zituzten bezala, neskato eta emakumezkoak Margaritak ziren (karlisten Circulo Femenino de Margaritas-ekoak).

«Karlidak ordun etzien eozin, eta señalek eta eamantentzittuen, bueno... neskatok margaritak izatentzien. Ta ni neskame neon etxeko señoritea txapel gorrikin eta arropa diferentekin jantzentzan, eta neire ba gustau itten zitzaten sobrare, eta esan nion etxeko señoritei, baño ez omen nintzen karlistea, nazionalistea omen nintzen, eta ezin jantzi. Desfilek-eta eittentzittuen». (Bibiana Munduate).

Generoaren arabera hezkuntza sistema planteatzen zen garai hartan, sexuen bereizketan oinarrituriko hezkuntza politika ezarri zen. Hala, nes-

⁹³ *Ibid.*

⁹⁴ LASA, X. (2006). *Op. cit.*

kentzako eta mutilentzako hezkuntza programa bana sortu zuten, beren sozializazioan ere bereizketa markatze aldera. Hezkuntza programa horien arabera, genero bakoitzak jasoko zuen materia mota desberdina zen. Nesken eta mutilen etorkizuna desberdina izango zen, neskak emakume izateko prestatu behar ziren: «*Se las preparaba para la vida del hogar, la artesanía y las industrias domésticas*»⁹⁵. Gizonezkoak kanpoko bizimodurako hezi behar ziren, eta emakumezkoak, etxe barrurako; erregimen frankistak ez zizkion emakumezkoari hezkuntzaren ateak irekiko, garbi utzi zuen bere jarrera Jose Permantin goi-mailako hezkuntzaren garaiko arduradunak:

*«Se debe, en efecto, tratar de encauzar la gran corriente de estudiantes apartándolas de la pedantería feminista de bachilleras y universitarias»*⁹⁶.

Hezkuntza sistemaren kontrola estrategikoa izan zen Francok zabaldu nahi zituen balio eta ereduak transmititzeko eta, era berean, gaitzesten zituenak deuseztatzeko. Ataundar belaunaldi asko markatu egin zituen Francok ezarritako hezkuntza sistema katoliko-espainiarzaleak.

EUSKARA

Hezkuntza pertsona baten nortasuna eraikitzeko elementu funtsezkoa den bezala, hizkuntzak ere identitatea markatzen du. Hizkuntzak talde bateko edo besteko kide egiten du pertsona, batzen duen elementua da. Horregatik, euskararen (eta katalanaren eta galizieraren) aurkako gurutzada izan zen Francorena.

II. Errepublikak Euskadiko Autonomia Estatutua onartu bazuen, bestelako ikuspegia zuen Espainiaren batasunaren inguruan erregimen frankistak. Hala adierazi zuen Francok 1936ko irailaren 1ean irratiz, Espainiaren izae-raren nolakotasuna garbi utziz:

«España se organiza en un amplio concepto totalitario, por medio de instituciones nacionales que aseguren su totalidad, su unidad y con-

⁹⁵ FOLGUERA CRESPO, Pilar. (1998). «El franquismo. El retorno a la esfera privada (1939-1975)» in *Historia de las mujeres en España*. Síntesis. Madrid.

⁹⁶ BENERIA, Lourdes (1977). *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*. Anagrama. Bartzelona.

tinuidad. El carácter de cada región será respetado, pero sin perjuicio de la unidad nacional, que la queremos absoluta, con una sola lengua, el castellano, y una sola personalidad, la española»⁹⁷.

II. Errepublikan Hego Euskal Herriko hainbat herritan lehen hezkuntzan euskararen erabileraren aldeko ahaleginak egiten hasi ziren, baina Francoren erregimenean euskarak ez zuen lekurik. Goikoak bezalako adierazpenak bakarrik ez, debekuak ere sortu zituzten gaztelania ez beste hizkuntzen gainean. Alfonso Velarde gobernadore militarrek 1937an ezarri zuen debekuak garrantzi handia izan zuen euskal gizartearen egunerokotasunean:

«Se proscribe a los nacionales el uso en público de idiomas y dialectos diferentes al castellano. (...) Se denunciará a todo aquel que infrinja lo dispuesto (...) la corrección y el patriotismo de los ciudadanos, en bien de la amada Patria y de ellos mismos, que no den lugar a medida alguna punitiva»⁹⁸.

Frankismoak ezarri nahi zuen batasunaren eta homogeneousazioaren ideiarekin ez zetorren bat Hego Euskal Herrian gaztelania ez zen beste hizkuntza bat hitz egitea, Herrialde Katalanetan eta Galizian katalanarekin eta galizierarekin gertatzen zen bezala. Homogeneousazioa helburu zuen estrategia horrek komunikazio tresna zen hizkuntza bakarra bilatu zuen: gaztelania. Helburu hori lortzeko, debekua izan zuen tresna nagusi frankismoak. Euskaraz hitz egiteagatik, beraz, berehala iritsi ziren debekuak Atauna ere:

«Gerrako garaien euskerea oso-oso-oso kastigauta zeon. “Castigado por hablar el vasco, cien reglones”, ta urrengo euneako eskrittuta eaman bear, ta deskuidatzen baziñen, belarririkinakon bat. Ta gero, euskeraz zekienake etzuen eitten. Kastigue txapa bat izatentzan, ta zuk besta bat arrapatzen bazendun euskeraz itzeitten, zuk arri entregau, eta txapa ue eskolan aitzenen atatzeko garaien zeuken arrek kastigue, “castigado por hablar el vasco, cien reglones”. Oi izatentzan». (Felix Eskisabel).

Hezkuntza sistemak euskararen gainean ezarri zuen debeku eta zigor sistemak eskolumeen arteko harremanetan zuzeneko eragina izan zuen.

⁹⁷ L.A.S.A., X. (2006). *Op. cit.*

⁹⁸ L.A.S.A., X. (2006). *Op. cit.*

Bata bestearen epaile eta salatari bihurtzen zuen zigor sistemak, adiskide beharrean. Horrek haur asko eskolan ez gaztelaniaz hitz egitera, baizik eta isilik egotera bultzatu zuen, eta eskolatik harago, baita atsedean garaietan ere, salatuak izateari eta zigorrari beldur.

Hezkuntzaren eta administrazioaren hizkuntza gaztelania zen erabat, eta Ataunen bertan gaztelania apaizen eta aberatsen hizkuntzat hartzen zen, ilustratuen hizkuntzat, Joxemiel Barandiaranek idatzi zuen bezala⁹⁹. Eta euskarari behe mailako estatusa eman zioten, euskaraz hitz egitea gaizki ikusita egotera ere iritsi zen:

«Ni akordutzen naiz Beasaiña jun emendik motill koadrillea, Arrondoko motill koadrillea, ta guk euskeraz itzeiñ, ta neskak, “*mira, mira, qué caseros hablando en vasco*”, parre eittentzuen, pentsauzu, ze extremo». (Felix Eskisabel).

Euskararen inguruan, Ataungo udalbatzak Espainiako Hezkuntza ministroak Bilbon egindako adierazpen hauek bere egitea erabaki zuen 1938ko azaroaren 22an, Tolosako udalbatzak hitz horien aldeko mozio bat aurkeztu ondoren, Ataungoak ere babestu baitzuen¹⁰⁰:

«*España se siente solidarizada con las Provincias Vascas. Yo espero en breve, que el instituto de España organizará en los institutos el estudio del idioma Vasco, porque la España Imperial siente como suyo lo que es de España*»¹⁰¹.

Francok euskara publikoan erabiltzea ukatzen eta debekatzen bazuen ere, Ataungo udalbatza frankistak bazekien euskara zela herriko hizkuntza. Hala, euskararen erabilera bultzatzen jarraitu zuen, gerra artean pizturik zela, ondorengo baldintzak jarri zituen aguazil kargua betetzeko: Euskaraz jakitea, Fronte Popularra osatzen duten partiduetara afiliatua ez egotea eta Espainiarekiko maitasun handi bat erakutsia izatea.

Debekuak debeku, gerra garaian, frankismoan eta gaur egun bezala, herri euskalduna zen Ataun. Herritarren arteko harremanak euskaraz gauzatzen ziren, bai nazionalisten eta baita karlisten artean ere. Gauzak desberdin izango

⁹⁹ BARANDIARAN, J. M. (1988) (1925). *Elkarteko gertakarien sortze eta azkera*. Antropologiaren Euskal Bilduma. Barandiaran Joxemiel (AEB-Bjm). Kriseilu Donostia. Itzultzailea Nekane Balluerka.

¹⁰⁰ NONDIK aldizkaria, 17. zenbakia. 1987ko martxoa. *Gerra Zibila Ataunen*.

¹⁰¹ 1938ko azaroaren 22ko Ataungo Udal Akta. L-47 liburukia.

ziren herritik kanpora edota hezkuntza sistemaren barruan eta administrazioarekin.

Ataundarrek erdal munduarekin zituzten harremanak –eskolatik kanpo– lan munduan izan ohi ziren, industria enpresetan gizonaen kasuan eta hirian neskame joandako emakumezkoen kasuan.

«Gaiñea erderaz ez gendikiun. Ni 16 urtekin asi nintzen forjan. Balantziñek forjatu, ta geo atornillatu ta rematxek ein... ta ola. Ta ze lan in dezun etortzentzazu apuntea artzea ofizinakoa. An erdez aitzenzien, ta nik “pues” ta olako gauzak aitzenien, ta nik nee arten, “ze ote da oi, ta ze esan nai oteo”... urreau zatenen sobrare esantzin ea zenekin lan einon ta zenbat ordu bakoitzekin, ta “pues” esatenion nik, ta parr eittentzon arek. Gero orratio antzeman zienen o ba forjadoren batek o ayudanten batek zekiñak, ba... “onek orduk esateik! Zeiñekin in dittuan orduk!” joe la ostra! au dek markea au! Nik eze enteittu ez». (Sabino Auzmendi).

Bestalde, gizon askorentzat soldaduska izan zen erdal munduarekin lehen harremanak izateko egokiera.

Frankismoak Hego Euskal Herrian utzi zuen ondarrerik nabarmenetakoa euskararen kontrako jazarpena izan zen, administrazioan eta hezkuntza sisteman gaur arte, 70 urte geroago arte, iraun duena. Hizkuntza kentzea, azken batean, hitza kentzea da.

Falangeak ez zuen dudarik: «*Si eres español, habla español*» leloa zabaldu zuen. Eta kaleak eta komunikabideak bete zituzten lelo horrekin, *La voz de España*, *El Diario Vasco* edo *Unidad* egunkariak ideia horren oihartzun bihurtu ziren¹⁰². Euskaraz ez zegoen komunikabiderik Hego Euskal Herrian, *Eguna* salbu, eta hura 1937ko apirilean bukatu zen.

EMAZTE, AMA, MOJA. GENERO SISTEMA

Erregimen berriak genero harremanetan zuzeneko eragina izango zuten hainbat neurri hartu zituen. Emakumeen kasuan, berehala gelditu ziren bertan behera Errepublika garaiko hainbat eskubide. II. Errepublikak gizon-emakumeen –bereziki emakumeen– egoera hobetu zuten hainbat erreforma egin zituen: botoa emateko eskubidea aitortu, ezkontza zibila, dibortzioa, gi-

¹⁰² LASA, X. (2006). *Op. cit.*

zonen eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna lan eremuan, ama-lan-gileak babesten zituen 36ko legedia, abortu eskubidea, etab. Gizarteko esparru ezberdinetan emakumeen partehartzea bultzatu zen¹⁰³. Aurrerapauso hauek gelditzeko asmoz, emakumeen rolik tradizionalenak bultzatu zituen erregimenak. Jarrera kontserbadore eta antifeminista agertu zuen emakume-ekiko eta gizartearen oinarri tradizionalak berreskuratzea bilakatu zen bere helburu nagusi.

Genero ikuspegitik gizartearen ikerketa egiteko, ezinbestekoa da testuinguru historiko eta kultural konkretuetan sexu rolek eta sinbolismo sexualek daukaten garrantzia ulertzea, eta hauek gizarte egituraren atxikitzean edo aldatetan izan dezaketen tokiaz hausnartzea. Genero harremanaz aritzean, gizon-emakumeen arteko erlazioak izan behar dira kontuan, eta ikusi behar da nola eraikitzen diren harreman hauek testuinguru politiko, ekonomiko eta sozial ezberdinetan. Maria Jesus Izquierdok (1998) erlazio hauek duten garrantzia argitzen du:

«Egiturari loturiko ikuspegia izan behar da, kontuan izanik emakumei gertatzen zaiena gizonei gertatzen zaienarekin loturik dagoela. Neurri handi batean, batzuei edo besteei gertatzen zaiena, desio dutena edo egiten dutena ez da autonomoa, baizik elkarren arteko harremanen ondorioz sortua da»¹⁰⁴.

Francoren erregimenaren ideia moralak familiaren gainean eraiki ziren eta Eliza katolikoak hartu zuen hori gainbegiratzeko ardura. Familia «babesteko» hainbat lege onartu zituzten:

¹⁰³ II. Errepublikara garaian edo 36ko gerran emakumeek izan zuten partehartzea ezagutzeko irakurgai interesgarriak dira ondoren proposatzen direnak; NASH, Mary. (1999). *Rojas. Las mujeres republicanas en la Guerra Civil*. Taurus. Madril. Eta NÚÑEZ-PÉREZ, María Gloria (1989). *Trabajadoras en la Segunda República: Un estudio sobre las actividades económicas extradomésticas (1931-1936)*. Ministerio de Trabajo y Seguridad Social. Madril.

¹⁰⁴ IZQUIERDO, M. A. (1998) "Sexo, género e individuo. El sistema sexo género como marco de análisis" in *El malestar de la desigualdad*. Cátedra. Bartzelona. Jatorrizko gaztelaniazkoetik euskartua.

(1938)

- Dibortzioaren legea deuseztatu zen.
- *Langileen forua* delakoa onartu zen. Honen arabera, Estatuaren arduraren emakumeak soldatapeko lanetik aldentu eta etxera itzultzea.
- Uztailaren 18an, altxamenduaren bigarren urteurrenean, familientzako laguntzak onartu ziren, besteak beste familia ugariantzakoak.

(1941)

- Abortuaren aurkako neurri zorrotzak hartu ziren. Zigor penalak ezarri zituzten abortatzen zutenentzat edo abortua praktikatzen zutenentzat, baita haurdun ez gelditzeko baliabideen propaganda egiten zutenentzat ere.

(1943)

- Jaiotze tasa handitzeko seme-alabako diru-laguntzak onartu ziren.

(1944)

- «Pasiozko krimenak» eta ezkontzaz kanpoko sexu harremanak arautzen zituzten artikulak berriro ere indarren jarri ziren.

(1946)

- Emakume ezkonduak behartuta zeuden senarrari baimena eskatzea etxetik kanpo lan egin nahi izanez gero.

Familia egituraren, funtzionamenduaren eta ideologiaren ikerketa oinarrikoa da gizartearen azterketarako; batez ere, gizartean ematen diren aldaketak ulertzeko. Kasu honetan, frankismoak Hego Euskal Herrira ekarri zuen aldaketa ezagutzeko. Horrela defendatzen du, besteak beste, Martine Segalenek:

«Kulturaren aldaketa prozesuekin erabat loturik dago familia (...). Ondorioz, familiaren eta senidetasunaren azalpen kulturala ezin liteke banandu gizarteko aldaketa prozesuetatik. Era berean, gizartearen azalpen kulturalak ezin du familia esparru pribatura mugatu, ezta senidetasuna tradizioaren esparrura ere»¹⁰⁵.

¹⁰⁵ SEGALÉN, M. (1998). *Antropología histórica de la familia*. Taurus. Madril. Jatorrizko gaztelaniazkoetik euskaratua.

Familia antolakuntza, gizartearena bezala, oso hierarkikoa zen eta aginpi-dea gizonaren esku zegoen. Gizonak eta emakumeak ezaugarri ezberdinak eta osagarriak zituztela uste zen, eta bien arteko elkartasunak familaren armonia ziurtatzen zuela. Gizonaren ezaugarri naturaltzat hartzen zituen erregimenak adimena, hausnartzeko eta gauzak ulertzeko gaitasuna, ausardia, indarra, etab. Emakumeen ezaugarriak, bestalde, mundu afektiboarekin lotzen ziren: sentikortasuna, apaltasuna, errukia izateko gaitasuna, sena, etab. Familia ulertzeko modu honek lanaren banaketa sexuala indartu zuen. Falangearen diskurtsoetan hasieratik egiten zen gizonen eta emakumeen arteko bereizketa. Horrela ikus liteke Jose Antonio Primo de Riveraren hitz hauetan:

«El Hombre –siento muchachas, contribuir con esta confesión a rebajar un poco el pedestal donde acaso lo teníais puesto– es torrencialmente egoísta; en cambio la mujer, casi siempre acepta una vida de sumisión»¹⁰⁶.

Ideologia mailan generoaren araberako lanen edo funtzioen banaketa asko indartu bazen ere, ataundarren eguneroko bizitzan ez zuen zuzeneko eraginik izan. Familien arabera, ikus liteke batzuetan zorroztasun handiagoarekin banatzen zirela gizonen eta emakumeen zereginak. Sabino Auzmendik gogoratzen duenez, garbiketa lanak, adibidez, etxeko emakumeen ardura ziren, nahiz eta, noizean behin, etxeko mutikoek zerbaitetan lagundu:

«Ta geo lixobako ure amak o aizpak o tokatzen zitzaionak askaa eamantentzon, eaman da ekarri. Guke bai laundu o barriñoian o saskin eo. Garbiketa andrak eittentzuen oi bai». (Sabino Auzmendi).

Gauza bera gertatzen zen Isidora Eskisabelen etxean ganaduaekin egin beharreko lanetan. Haien ardura aitaren eskutan zegoen, eta laguntza behar izanez gero semeengana jotzen zuen:

«[Ganadua?] Ak aittek, ak jenealen. Anaiak launtzentzión. Emen Errotaberrin bagenun anaie, eta arrek eta Felixen aittek eta bueno. [Emakumerik?] Ez, ez, ez. Ganadukin gizonak ibiltzentzien». (Isidora Eskisabel).

Beste hainbat baserritan gizon-emakumeek, biek egiten zuten denetarik. Baserría bera produkzio gune gisa ulertuta, etxeko guztiak parte hartu behar izaten zuten enpresaren funtzionamenduan.

¹⁰⁶ PRIMO DE RIVERA, J. A. *Discursos y escritos (1922-1936): Obras Completas*. Ediciones Fe, Madril.

«Emakumak baserrin? Gizonak bezela». (Joxe Mari Apalategi).

Teresa Agirrereren etxean aldaketa garrantzitsua izan zen anaia soldadu eraman izana, eta, ondorioz, berrantolatu egin behar izan zituzten etxeko zereginak:

«Azpik itteko garoa biltzen ni askotan bakarrik ibiltzenitzen. Bai, emezortzi urtekin anaie soldadu eamantzuen eta bost urte eta bost illabete pasau zittun. Ue juntzan garaiene eiñ in bear eta aitte nola bason ibiltzentzan, nik eiñ bear». (Teresa Agirre).

Adelita Apalategiren etxean ere amak eta aitak, biek egiten zituzten ukui-luko lanak. Berak, bestalde, ez zituen egiten ez zitzaizkiolako gustatzen:

«Ikuillua aitte ta amare bai, gero anaieke bai. Nee edadeko neska asko jutentzan eskolaa beiek jetzi ta geo, baiño nik ez non batere afizioik ikuilluako, enintzen juten». (Adelita Apalategi).

Baserriko lanak alde batera utzirik, bazeuden generoaren arabera banatzen ziren beste lanbide batzuk. Emakumeen kasuan, neskametzat zen etxetik kanpora egiten zen lan nagusia. Ataungo hainbat emakume egon zen neskame gazte denboran.

«Alabak zeuzkean Donostin, batek zeuken otelen eta bestek ez dakit nun euko zon, neskame zeren». (Adelita Apalategi).

Neskame joanez gero, gutxienez urtebete igaro behar zen:

«Amar urtekin junintzen neskame. Ta urtea pasaube jutek lotsea ematentzian, ordun desonrea zan urtea ez pasatzea neskame junda, ta urtea pasau arte an eonintzen». (Bibiana Munduate).

Neskame ibili ondoren jostun ibili zen Bibiana Munduate; hau ere emakumeekin lotutako lanbidea zen:

«21 urtekin josten ikastea, Ordiziaa, 11 illabete pasau nittun josten ikasten. Ordiziko Candelas jostune oso ona zan». (Bibiana Munduate).

Sexu ezberdintasunean oinarritutako beste ideia batzuk ere zabaldu ziren gerra ondoren. Emakumeentzat ezkontza zen emetasun ideala eskuratzeko bidea, eta amatasuna arrakastaren eta onespren sozialaren adierazle. Eliza katolikoak ere ezkontzaren eta amatasunaren defentsa sendoa egin zuen. Elizak, botere politikorekin elkartasunean, emakumeen gorputzaren kontrola

eskuratu zuen; horretarako familiaren ohorea emakumearen osotasunaren baitan epaitzen zen.

Neskei jarraibide asko ematen zitzaizkien gizonekin eduki beharreko harremanen inguruan. Neskentzako argitalpen ugari egiten zen zentzu honetan. *La muchacha en el noviazgo* liburutik jasotakoa da ondorengo aipamen hau:

«La virginidad material o anatómica se puede perder también sin contacto deshonesto, por ejemplo por una caída sobre los glúteos, por montar a caballo a la jineta, por dar un salto brusco o por andar en bicicleta. En estos casos de pérdida inocente, algunos médicos católicos no tienen reparo en hacer una sutura reparando el himen. La operación parece lícita y se evita la tragedia de las noches de bodas o la desgracia de un matrimonio. Pero no apoyaría yo la operación en una mujer que voluntaria y pecaminosamente perdió su virginidad. Las novias debéis ser santas, y siendo santas vírgenes, y siendo vírgenes el ser mártires viene por añadidura, dado el sacrificio de mantener la pureza. O sea santa, virgen y martir»¹⁰⁷.

Bai Elizarentzat bai Estatuarentzat emazte eta ama izatea zen (ordena horretan, hau da lehenengo ezkondu eta gero ama izan) emakumeen etorkizuna.

Elizaren inguruan Ekintza Katoliko zirelako elkarteak sortu ziren herri eta auzo ugarian. Elkarte hauek sarri udalen diru-laguntza izaten zuten; horrela zen Ataungo kasuan ere. 1941eko abenduaren 26an udalbatzak 25 pezetako diru-laguntza onartu zuen:

«Se acuerda conceder una subvención de 25 pesetas a la Acción Católica de esta villa, para destinar a fines educativos e instructivos»¹⁰⁸.

Aiako parrokian Iztatoroko Jesus apaiza izan zen elkartearen bultzatzaile. Mutil eta neskak ibiltzen ziren elkartearen inguruan. Bizitzako hainbat alor lantzen zituzten liburuen irakurketaren eta hitzaldien bitartez. Emakumeen kasuan irakasgai asko zaintzarekin loturik zeuden, haurren eta adineko pertsonen zaintzarekin. Bibiana Munduate elkarteko idazkari izan zen:

¹⁰⁷ ENCINO VIANA, E. (1951). “La muchacha en el noviazgo”. OTERO, L. (1999). *La española cuando besa. De cómo Franco y los suyos conceptuaban pecado terrible, vicio nefasto y delito infame que la mujer fuera libre y pensante*. Plaza y Janés. Barcelona.

¹⁰⁸ 1941ko abenduaren 26ko udal-akta. L-47 liburukia.

«Leittu oso liburu inportantek. Guk or Accion Catolican genuken librerri bat dana gaztek leitzeko. Etzien relijion gaiñekok bakarrik, beste bizimoduko liburu asko zien, pertsona larrik nola tratau, familie... ta orik danak, consejuk ta olakok». (Bibiana Munduate).

Erregimenak bere aldetik baliabide ugari erabili zuen emakumeen artean emetasun eta amatasun ideologia hauek zabaltzeko. Zentzu honetan, pisu handia izan zuen Falangeko Seccion Femeninak¹⁰⁹. Gerra ondorenean Espainia mailan eta Hego Euskal Herrian oso altua zen haurren hilkortasun tasa; beraz, haurrak izateko mezuarekin batera zabaltzen zen hauek egoki zaintzearen garrantzia. Seccion Femeninakoan Laugarren Nazio Kongresuan Pilar Primo de Rivera zuzendariak esandako hitzetan ikus liteke honi eskainitako lehentasuna:

«Evitemos la muerte de los niños. Pensar que puede perder la Patria la vida de un hombre por cualquier motivo de fácil remedio como es un biberón mal dado o una comida dada a destiempo. Educando a las madres evitaremos la muerte de los hijos. Solo habremos servido a la Patria enteramente cuando por nuestra enseñanza se pueblen los campos de niños sanos como manzanas y los hogares de madres conscientes»¹¹⁰.

Seme-alaba osasuntsuak nahi zituzten Falangetik. Behar izanez gero Espainiaren alde borrokatzeko:

«Vosotras sois las primeras que debéis dar ejemplo de patriotismo a vuestros hijos, y aun cuando llegarais a tener una docena de ellos, si un día España los necesitase para su defensa, no dudéis en dárselos uno a uno, según os los pida, aunque os quedéis sin ninguno de ellos. ¡Dichosos son los que mueren por la Patria, y dichosas y benditas son las madres que, de corazón, le entregan sus hijos cuando los necesita!»¹¹¹.

¹⁰⁹ Falangeak 1934ko ekainean sortu zuen bere emakumezkoen saila, Seccion Femenina delakoa. Emakumeak eredu konkretu baten arabera antolatzeko asmoari erantzun zion talde berri honek. Francoren garaian legezkoa zen partidu bakarraren zati izanik, emakumeentzat partidu legal batean aritzeko aukera bakarra bilakatu zen. BENERIA, Lourdes (1977). *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*. Anagrama.artzelona.

¹¹⁰ OTERAO, L. (1998). *Mi mamá me mima. Los múltiples avatares y percances varios de la mujer española en tiempos de franco*. Plaza y Janés.artzelona.

¹¹¹ *Ibid.*.

Familiak handiak izanik modu ezberdinetara antolatzen zen haurren zain-tza. Kasu batzuetan bizilagunen laguntza bilatzen zen, beste batzuetan seni-de zaharragoek zaintzen zituzten txikienak. Gehienez emakumeak (amak, amonak, ahizpak...) izaten ziren haurren zaindari eta garrantzi handikoa izan zen euren artean elkar-laguntza sareak eraikitzea:

«Laundu beti. Nik bosgarrenen gizaldie ustet noala o eztaiz seiga-rrena Muñon ezautzen deala, guk ezteu alkarrekin ezen okasiok, beti elkarrekin batek falta dona bestek emateko trebe, beti ondo, bai Mu-ñokokin». (Anttoni Etxeberria).

«Oain bi-iru ume dare eta ordun gu zortzi ume giñen. Ergonen in-guru guztiko geienak olaxe zittuen, sei, zortzi... Ni askotan eskolaa junbe lanakatio, ni beintzet ume zai ibiltzeakatio». (Adelita Apalategi).

Emazte edo ama izatearen beste alternatiba moja sartzea zen. Ataungo emakumeen artean ere ohiko aukera izan zen moja sartzearena. Joan Arinek *Clero y Religiosos de Atzun*¹¹² liburuan jaso zuen Ataunen bokazio erlijiosoa izan zuten emakumeen zerrenda.

Kastitatea eta otzantasuna ziren emakumeei eskatzen zitzaizkien bertute-ak. Elizan (katekesian, ariketa espiritualetan), kalean zein etxean. Sexu harremanen helburua ugalketa biologikoak behar zuen izan, ez besterik, eta ezkontzaren sakramentuaren barruan bakarrik onar zitezkeen.

Familiaren esparru sakratuaren aurkako hainbat ekintza (ezkontza-haustea, familia uztea, abortua, etabar) lege haustetzat hartu ziren 1944ko zigor kodean. Baina gauzak ez ziren berdin epaitzen legehauslea gizona edo emakumea izan. Ezkontza-haustea, neurri handi batean, soilik emakumeen delitu gisa geratu zen. 428. artikulua arabera, senarrak emaztea beste gizon batekin aurkituz gero eta biak edo bietako bat hilez gero jasoko zukeen zigorra erbestea izango zen. Zauritu izan balitu, bestalde, ez zukeen inolako zigorrik izango. Gizonek eragindako ezkontza-haustea bi kasutan bakarrik zigortzen zen, sexu-harremanak norberaren etxean zirenean edo jendaurrean izaten zirenean. Banaketak emakumeen ezkontza-hausteen kasuetan soilik onartzen ziren eta kasu horietan emakumeak ezkontza ondasunen gaineko eskubideak galtzen zituen. Emakumeen aurkako tratu txarrak ere guztiz

¹¹² ARIN DORRONSORO, Joan de (1964). *Clero y religiosos de Atzun*. Montepio Diocesano. Gasteiz. Liburu honetan XVI. mendetik 1963 urtera Ataunek emandako eliz gizon-emakumeen biografia eta erlijioso'a bizitzen jarraipena egiten du Joan Arinek.

onartuta zeuden gizonen statusa babestu nahi zen gizartean. Nahiz eta kastitatearen eta otzantasunaren alde mintzatu eta ezkontza barneko sexu harremanak bakarrik onartu, prostituzioa arautua zegoen eta ez zen legez kanpo geratu 1956. urtera arte.

Emakumeen gaineko kontrol soziala oso handia zen, baina gizonak ere ez ziren salbu izan erregimenaren presio ideologiko eta sozialetik. Gizonezkoen kasuan ere, testuinguru normatibo eta sinboliko berriak sortu ziren, edo lehenagotik zetozenak indartu egin ziren. Gizonen gain geratu zen etxerako ogia irabaztearen ardura, eta langilea izatea zen gizon batek izan zezakeen ezaugarri nagusia:

«Queremos que todos se sientan miembros de una comunidad seria y completa; es decir, que las funciones a realizar son muchas: unos con el trabajo manual; otros, con el trabajo del espíritu; algunos, con un magisterio de costumbres y refinamientos. Pero que en una comunidad tal como la que nosotros apetecemos, sépase desde ahora, no debe haber convidados ni debe haber zánganos¹¹³».

Erregimenak gizonak langile izateko zuen interesa ez zen kasualitatea. Garapen ekonomikoan ez aurrera eta ez atzera gelditutako estatua izanik, ahalegin sakonak egin nahi zituzten kapitalismoaren gurdira igotzeko. Honetarako, ezinbestekoa zen deskantsurik gabe lan egiteko prest zeuden herri-tarrak egotea.

Egitura militarizatua zuen erregimena izanik, gizontasun ereduak ere erreferentzia hauek jarraitzen zituen: indarra, boterea, ausardia eta heroismoa bezalako ezaugarriak ziren gizonezkoengan baloratzen zirenak. Garai-ko komunikabideetan (prentsan, irratian, etabar.) gizontasuna ezaugarri horiekin lotzen zen eta gizonek benetako ahaleginak egin behar zituzten gizontasun eredu horretara iristeko.

¹¹³ PRIMO DE RIVERA, J. A. *Op. cit.*.

*«Gerrea etorri zanen dana aberiauta geau zan
Españi ta geo jendei emateko laborea baserriko
jendei kentzentzien, patatea, babarrunak...»*

(Joxe Erauskin)

*«Razionamendue etortzentzanen poliki,
eun batzutako, beste gaiñatikon, gaixoa, etzeon eze»*

(Teresa Agirre)

GERRA OSTEA

GOSEA ETA MISERIA. GERRAREN ONDORIO EKONOMIKOAK

36ko gerrak ondorio larriak ekarri zituen Espainiako eta Hego Euskal Herriko ekonomiarentzat. Produkzioak behera egin zuen sektore guztietan. Nekazaritzan eta abeltzaintzan, produkzioa heren bat jaitsi zen eta horrek gosea ekarri zuen. Industrian ere produkzioa heren bat jaitsi zen. Komunikazio sareek (trenbideek, zubiek, errepideek...), halaber, ondorio latzak jasan zituzten, horietan izan baitziren maiz gerraren helburu nagusi. Horren guztiaren ondorioz, *per capita* errentak %30 egin zuen behera eta 1959ra arte ez zen gerra aurreko mailetara iritsi. Honi guztiari, herri eta hiriek jasan zituzten kalteak eta gerraren gastuak erantsi behar zaizkio. Hala, lagundu zioten herrialde guztiekin zor izugarria egin zuen.

Frankismo garaiko egitura ekonomikoaren azterketa egin duten egileek (Fontana, 1986, Tusell 1985, besteak beste) defendatzen dute egoera ekonomiko kaxkarra ez zela soilik gerraren ondorio izan; horrez gain, erregimenak ez zuen plangintza ekonomikorik, eta inprobisazioak gidatu zituen neurri handi batean erabaki ekonomikoak. Gainera, Francoren erregimenak ez zuen ia merkataritza harremanik nazioarte mailan eta honek ere larriagotu egin zuen egoera ekonomikoa.

Estatu frankista berriaren ezaugarriak dira autarkia eta esku-hartzeko politika. Merkatuaren legeei jaramonik egin gabe, gerra osteko lehen urteetan, hainbat erabaki hartu zituzten herritarren «ongizatea» bermatzeko, baina neurri hauek ez ziren batere egokiak izan eta ezin izan zieten aurre egin goseari eta eskasiari:

«Nezesidade aundie zeon bai, gose aundie pasau zan». (Bibiana Munduate).

«Nei bein baiño geiotan eittentzien goizen eamaten non ogi puska-tea, euneako bearnona, fabrikan kendu. Armarioke ala eotentzein kan-

daube, ta askotan eguardin jun da adios ogipe! Eske ordun jendek amoniako [boniatoa] ta jatentzon, gozoa zan ikeragarrie ta labeko galeritan bero nola eotentzan ba andik. Oixe, gosek ezto beste zeaik! Ta ogiketa arrapatzen zittuenak an kalekok zien, Beasaingok neuzken nik an launek». (Sabino Auzmendi).

«Esatentzuen Lazkauko klausurako monjak izugarritzko mixerik eta gosek pasau zittuela. Tomasek iñork nai ez zittunak autza bialtzen zittula ta eskerrak! Orri esker gose oi pixkat alibiau zuela». (Felix Eskisabel).

Hasierako une haietan, frankistek errepublikarrak egin zituzten gosearen erantzule. Erregimenak argudiatzen zuen Errepublikaren aldekoak izan ziren zonaldeak guztiz suntsituta geratu zirela, eta suntsipen horri aurre egiteko gainerako probintzietatik laguntza jaso beharrean zirela. Ondorioz, denen egoera ekonomikoa kaltetua suertatzen zela errepublikarren «erruz».

OGI BELTZA. ERRAZIONAMENDUA

Janariaren eskasia zela eta, 1939ko maiatzaren 14an, Industri eta Merkataritza Ministerioak, eskasi egoerari aurre egiteko, errazionamendu agindua plazaratu zuen. Ekainaren 28an kaleratutako dekretuan errazio bakoitzean banatuko ziren kopuruak zehazten ziren. Errazionamenduak iraun zuen bitartean aldatzen joan ziren kopuru hauek, baita beraien salneurria ere.

Gainerako herrietan bezala, Ataunen ere errazioak ezberdinak izaten ziren sexuaren eta adinaren arabera. Emakumeek eta 70 urtetik gorakoek gizonek baino % 20 gutxiago jasotzen zuten. 14 urtetik beherakoek % 40 edo % 50 gutxiago.

Errazionamenduan banatzen ziren jakiak jaso ahal izateko, ezinbestekoa izaten zen errazionamendu txartela izatea. Hasieran txartel hauek familia mailakoak ziren, gerora banakakoak.

Bi motatako txartelak zeuden, bata haragiarentzat eta bestea gainerako produktuentzat. Baliabide ekonomikoen arabera hiru mailatan sailkatzen ziren txartelak: lehen mailakoak, bigarren mailakoak eta hirugarren mailakoak. Kupoi bereziak zeuden lan baldintza gogorrek zituztenentzat (adibidez, meatzarientzat), gaixoentzat eta haur txikientzat.

1941ean aldaketak egon ziren errazionamendu sisteman. Aldaketa hauek jaki guztietako errazioetan gertatu ziren, baina bereziki ogian, esne hautsean, txokolatean, gatzean eta haragian (gehienbat hirugiharra banatzen zen).



Iturria: <http://usuarios.lycos.es/antoniomarinlopera/cartilla1>

Ondorengo zerrendan zaintzapean zeuden jakiak zehazten dira:

ZAINZAPEAN ZEUDEN JAKIAK

- Zerealak: garia, oloa, garagarra, zekalea, artoa, alpistea eta artaxehea.
- Barazkiak: Algarrobak, ilarrak, dilistak, garbantzuak, babak eta babarrunak.
- Pentsuak: Alpapa, erremolatxa...
- Olioa
- Arroza
- Ganadua
- Xaboia
- Esne hautsa eta esne kondentsatua
- Ogia
- Patatak
- Pureak
- Zoparako pasta
- Gazta eta behi gurina
- Hirugiharra
- Bakailaoa
- Kafea
- Txokolatea
- Azukrea

Errazionamenduko produktuak ez ziren egunero banatzen, banaketaren maiztasuna ez zegoen aldez aurretik adostua; Estatu Frankistako Zentru Neurtzaile zelakoaren baitan zegoen. Bertatik produktuak banatzeko agindua iristen zenean, bando baten bidez jakinarazten zitzairen herritarrei.

Garraio eta Hornidura Komisario Nagusiak udal bakoitzera zerrenda bat bidaltzen zuen errazionamenduko kopuruak eta hauek zein dendatan banatu behar ziren zehaztuz. Errazionamendu egunean udaletxera joan behar zuten herritarrek errazionamendu konkretu hari zegokion txartela jasotzera.

Familia bakoitzak herriko denda jakin batera joan behar zuen zegokiona erostera. Udaletik denda bakoitzari zegokion txartelen zerrenda ematen zitzaion. Errazionamendua amaitu orduko, dendariak zerrenda hori udalera itzuli behar zuten saldutakoaren kontrola eramateko.



San Martin auzoa 40ko hamarkadan. ITURRIA: Kutzako Fototeka.

San Gregorioko familiak Artillazpira edo Kaietanorenera joaten ziren:


«Autza billa jun bear genun. San Gregorion Artillazpikoa, bazeren bi, ue ta Kaietanona, baiño gu Artillazpikoa juten giñen». (Adelita Apalategi).

Aian ere bi tokitan banatzen ziren errazionamenduko produktuak, eliza alboan zegoen taberna txikian eta Kaxetan.

Errazionamenduan banatzen zenaren kontrol zorrotza egiten bazen ere, ia denak saiatzen ziren tranparen bat egiten. Espillako Felix eta Mikela neba-arrebek, azukre gehiago eskuratzeko, trikimailua egin zuten bi etxe ezberdinetakoak zirela esanez:

«Ta Espillan, klaro, azukre zalek. Ta Mikela gurea ni baiño atrebittugoa zan da arrek esantzon “biok jun bear diau”, “nik ez diñat gezurrik esango e!”, nik seittun, “nik esango diat”, ta jun gea. Ni aurrena, “nungoa aiz?” “Espillakoa”, “aiba kiloat azukre”. Geo nee arreba, “nungoa zea?” “Ustatxokoa”, arrek. Baiño bestea ez tontoa izan ta beste emakuma bati galdetu dio: “Aaizan orroko neska-motil orik nungok ittunan?”, “orik Espillakok”. Urrungo eunen gue ama zana badijo jaiotetxea ta Nikasiok arrapau do ta “aizan, lengon ie umek gezurre esantziane”, da gue ama zanak “ba, gezur bat esanakatik azukrea eaman ziñen etxea”». (Felix Eskisabel).

Ogiarekin ere gauza bera gertatzen zen, hau da, familia bakoitzak okin konkretu bati hartu behar zion errazionamenduan banatzen zen ogi beltza.



Gerra ondorenean lau okin zeuden San Martinen, Errotazaharrekoa, Artzubikoa, Barriolanekoa eta Julian Erauskin. Azken honi bere iloba Joxek laguntzen zion ogi partiketan. Okinek ere ezin zioten ogirik eman beraien zerrendan agertzen ez zenari:

«Ta Gartzako andrea zeon an ta ogie eskau zin. Ogie banon nik baiño ari emateko ez. Enion serbittu. Geo andio 2-3 urtea motil gaztek, keiza garaien, etorri gea Lixarbu aldeti bueltea einda. Gartzanen, etxen ondon, lau keiza bost illaran dotore. Ala permisoa eskau diu ta esantzien “zuek illo ta Sasteikoa zu ez! Zuk nei etziazun ogik eman ta zutzako eztau keizaik”». (Joxe Erauskin).

Ogiaz gain, hainbat janari banatzen zen txartelarekin: dilistak, babarrunak, azukrea, kafea, tabakoa, etab. Hala ere, 40. hamarkadako lehen urte haiek bizi izan zituzten gehien gogoan ogi beltza nabarmentzen da:

«Ogi gorri bat ematentzuen, masa gor-gorra ta zenek jango ue goortutakon! Jan eiñ bear, besteik etzan izaten da». (Joxe Agirre).

«Ogiere falta, ogiere razionamendun ta txarra, nik oain Piliri esaten diot amaika aldiz, “integrala? Ez, ez, ez, lenaure naikoa janda natxon, ez diñat nai!”». (Felix Eskisabel).

«Ogiere beltza, bollo batzuk ta bel-beltzak. Ake jan eitten giñuzen, txarra baiño... besteik nola etzeon». (Bibiana Munduate).

Oso zaila zen ogi txuria lortzea. Errotak itxita zeuden eta herritarrek ezkutuan joan behar izaten zuten artoa edo garia ehotzera.

«Errotak itxita eotentzien ordun, ez iotzeko artoik eta garik. Ordun gosea pasau bear izatentzan». (Bibiana Munduate).

«Errotatane kriston liok izatentzien. Guardia zibillek ogiriñe iotzen arrapau ezkeo prezintau ittentzuen, komerik izatentzien! Or Joxeantonio zan, errotari zaarra emengoa, uere txintxoa zan baiño arrire prezintau zien bi-iru aldiz. Geo San Gregorioko errotaa jute giñen, Aieare bai, Lazkauare bai». (Felix Eskisabel).

Errota bat ixten zenean, beste bat bilatzen saiatzen ziren. San Gregorion bazegoen errota bat, kokapen aldetik nahiko ezkutuan zegoenez, itxi gabe zegoena:

«Errotak prezintauta zeren geienak, baiño gelditzentzien batzuk. San Gregorion bazeon bat, ue prezintaube zeon, izkutun zeon ue. Joan Zaarra esaten giñun ango errotariri». (Joxe Mari Apalategi).

Ezkutu samarrean bazegoen ere ez ziren egun argiz joaten bertara, gauaren iluntasuna baliatzen zuten:

«Gauen jurentzien. Andik ekarri iriñe ta amak etxen eittentzon ekonomikan, lebadurekin eñ masea ta ogie». (Joxe Mari Apalategi).

Ogia ez zen gainerako elikagaiak eskuratzeko, dendetara joan behar izaten zuten ataundarrek. Janarien premian bazeuden, goizeko lehen orduetatik egoten ziren ilaran; izan ere, ilaran lehendabiziko zegoenak besteak baino aukera handiago izaten zuen kalitate oneko elikagaia lortzeko. Errazionamenduko janariak lortzeko lerroetan, gehiengan emakumeak edo haurrak egoten ziren:

«Ordun, goizeko lauetako karnizeria junda eotentzien kolan». (Joxe Erasuskin).

Errazionamenduko janariak lortzeko, txartelak eta baleak behar izaten ziren. Luzio Dorronsoro harakinak txekorra hil ostean, balkoitik botatzen omen zituen seboa eskuratzeko baleak:

«Txekorra iltzentzonen, Luziok eittentzon, goizeko seiek eo bostetan atatzentzan balkoia ta burrub botatzentzittun balek, eskutarea. Ta bakoitzek libra bat sebo, bale ue arrapatzentzonak. Arrapatzen etzona beize etxea bueltan, an kolan eonda, arren balkoipen eonda, gorra zan oi!». (Felix Eskisabel).

Txartelekin banatzen ziren errazioak oso eskasak eta kalitate gutxiak izaten ziren, eta orokorrean ez ziren iristen pertsona baten oinarrizko dieta osatzera¹¹⁴:

«Razionamendue etortzentzananen poliki, eun batzutako, beste gaiñatikon, gaixoa, etzeon eze». (Teresa Agirre).

«Lentejake txillar-txillarrak, dana apartau in bear. Gauza txar asko ematentziun rasionamendun». (Isidora Eskisabel).

Hala eta guztiz ere, beste toki batzuetan baino gose gutxiago pasatu zuten Ataunen. Nagusiki baserriz osatutako herria izanik, nahi zen guztia lortu ez arren, oinarrizko lehengaiak lortzeko zailtasun gehiegirik ez zen izan. Kaleran bizi zirenek, estutasun handiagoak pasatu zituzten arren, baserrietan bizi

¹¹⁴ PEREZ GONZALEZ, A. B. (2002). *La economía no oficial y el mercado negro clandestino*. Testu guztia: <http://www.eumed.net/tesis/>.

ziren senitarteko edo lagun bidez lortzen zuten jatekoa. Kasu hauetan harreman sareek edo elkartasun sareek izugarritzko garrantzia izan zuten eguneroko biziraupenean:

«Leengusuk zien gue amanata, San Gregoriokok. Ta eana bastante jutegiñen. Batzutan babarruna, besteatzutan artoiriñe, launtzeko. Balentina zan ama». (Sabino Auzmendi).

Baserrietan ere, baserriaren eta familiaren tamainaren arabera ezberdintasunak egon ziren etxe batetik bestera. Kasu horietan ere elkar laguntzeko prest agertu ziren:

«Gu familiare aundie. Gu aitte ilda amaika laun geldittu giñen. Ta eskerrak gue ama zanak ta baserri ona zuen ta andik ekartzegendun etxen falta zanen». (Felix Eskisabel).

EZKUTAKETAN. EKOIZPENAREN AITORPENA

Baserrietan egon bazegoen jatekoa baina errazionamenduaren legedia zela-eta kopuru konkretu batetik aurrera ekoizten zutenaren zati bat estatuari eman behar izaten zioten herritarrek. Gehiengoa iristen zen kopuru honetara:

«Gerrea etorri zanen dana aberiauta geau zan Españi ta geo jendei emateko laborea baserriko jendei kentzentzien, patatea, babarrunak...». (Joxe Erauskin).

Hala ere, salbuespenak baziren:

«Guk ezkenun entreatzen, baiño kantidade batetik gora, apuntau eittentzan aintamentun zuk zenbat gari anega. Arek ez bazon aik jarrita zeukean tope ue pasatzen ba librau eittentziñen. Ez aillatzek esan nai zon etxeako laiñe etzala ia aillatzen». (Sabino Auzmendi).

Errazionamenduak iraun zuen bitartean, nekazariak izan ziren kaltetuenak. Nekazal guneak izan ziren gerra ostean suntsituta geratu ziren hiri inguruak hornitzearen arduradun. Horretarako nekazariei ekoiztutakoaren zati bat bahitzen zieten. Ekoizten zutenaren gaineko kontrol zorrotza eramaten zen. F. Alburquerque (1981) ikertzailearen arabera, ekoizpenaren gaineko kontrol honekin batera beste kontrol mota batzuetara (moral edo ideologikoa) makurtu nahi izan zituzten herritarrak; batez ere, erregimenarentzat arriskutsuak izan zitezkeen zonaldeetan. Miaketak, isunak, kartzela zigorrak, etab., boterea noren esku zegoen argitzeko bitartekoak izan zitezkeen.

Urtean behin eramaten zituzten janariak alondegira ataandarrek. Alondegia udaletxe alboan zegoen. Udalak baserritarrek ekoizten zutena kontrolatzen zuen gisan, udalari berari ere kontuak eskatzen zizkioten probintziako arduradunek, hainbat eskaera egiten zizkioten herrian ekoizten zenaren jarrapena egiteko. 1941eko udal-akta hau da horren adibide¹¹⁵:

Punto 78.- Se dio cuenta de un telefonema del Excmo. Sr. Gobernador Civil de la provincia, sobre declaración de las hectáreas de patata sembradas en el término municipal, producción obtenida, cantidad que se necesita para el consumo del pueblo, acordándose por el Ayuntamiento obtener los datos de siembra y designar para estudiar todos los detalles en completo una comisión compuesta del Sr. Alcalde, y los señores Concejales D. Pedro Imaz, D. José A. Apalategui y D. José A. Ayestarán.

Y no habiendo más asuntos de que tratar elevaó la sesión firmando los señores antes lo que certifico:

Pedro Imaz
Pedro Imaz
José A. Apalategui
José A. Ayestarán
Francisco Aguirre

Herrian ekoiztutakoa ezagututa, herri bakoitzari derrigorrezko kupo bat ezartzen zitzaion eta udaletxeko langileak ziren baserritarren artean berau biltzeko arduradunak¹¹⁶:

¹¹⁵ 1941eko uztailaren 7ko udal-akta: «Se dio cuenta de un telefonema del Excmo. Sr. Gobernador Civil de la provincia, sobre declaración de las hectáreas de patata sembradas en el término municipal, producción obtenida, cantidad que se necesita para el consumo del pueblo, acordándose por el Ayuntamiento obtener datos de siembra y designar para estudiar todos los detalles en completo una comisión compuesta del Sr. Alcalde, y los señores concejales D. Pedro Imaz, D. José A. Apalategui y D. José A. Ayestarán». L-47 liburukia.

¹¹⁶ 1943ko uztailaren 6ko udal-akta: «Se dio cuenta la presidencia de que como Alcalde-Presidente de la Junta de Recursos de esta villa había recibido una Circular de la Comisaría de Recursos de la Zona 6ª, fijando a este Municipio un cupo forzoso de 19.656 kilos de trigo a distribuir por la Junta Local entre los agricultores para su entrega al S.N. del trigo, dándose por enterado el Ayuntamiento». L-47 liburukia.



Acta de la sesión ordinaria del día 6 de Julio de 1943.

Alcalde-Presidente en la villa de Ataun a seis de Julio de mil novecientos cuarenta y tres, reunido el Ayuntamiento en sesión ordinaria bajo la presidencia del Sr. Alcalde don Pedro Zurutuza Elizaso, y con asistencia de los Señores Concejales que al margen se expresan y de él el infrascripto se abrió la sesión por la presidencia, dándose lectura del acta de la anterior que fué aprobada.

Punto 1º.- Se dió cuenta por la Presidencia de que como Alcalde-Presidente de la Junta de Recursos de esta villa había recibido una Circular de la Comisaría de Recursos de la Zona 6ª, fijando a este Municipio un cupo forzoso de 19,000 kilos de trigo a distribuir por la Junta local entre los agricultores para su entrega al S. N. del Trigo, dándose por enterado el Ayuntamiento.

Udaletzeko langileak ziren alondegiko arduradunak¹¹⁷:

«Dana, dana kentzentziun. Asko. Leen indabea 70 kilo entreatzen genun. Patateare bai, 400 kilo entreatzen genun». (Joxe Erauskin).

«Ta etxen, garie ta artoa, urte guztikoa izaten gendun. Gue baserrie ona zan, baiño amar bat anega o bakoitzei aintamendun entregauazitten zitzaion, danoi». (Bibiana Munduate).

«Rekisau eittentzuen ordun. Ezin genun gramoik eman airi berri emanbe, ta deskuidon ematen bagenun ta geo enterau, urrena ikustea etortzen zienen multa izatentzan». (Joxe Agirre).

Baserritarrentzat gehiegi izaten zen entregatzeko eskatzen zitzaien kopurua; horregatik, ia baserri guztietan egiten ziren ahaleginak ekoizten zuten hura ezkutuan gordetzeko:

«Guk indabak izkutauta, guk ezgenuken ezer bistan. Txakurtegie esatetzaiotan genuken bazterren zulo bat einda, ola kuadro kokkor bat, antxe. Antxe jarri giñuzten, bai». (Anttoni Etxeberria).

¹¹⁷ Errazionamenduak iraun zuen bitartean, alondegiko bi arduradun izan ziren herrian, Miel Mari Imaz eta Fermin Arana.

«Ta ordun eittentzan geo gariere bai, ta indabeare, etxen zulok o baldinbazeuzkezun an izkutau. Rekisatzea etortzentzan jendea, izkutau eittentzan bai». (Adelita Apalategi).

Janariak zuloetan gordetzen ziren. 1941eko legediaren arabera ezkutatzea delitua zen:

«Se entenderá, a los mismos efectos, por ocultación, la sustracción a la venta o a las disponibilidades de los organismos correspondientes, de las existencias, bien por falsa negativa de su tenencia, o defecto de la declaración obligada con posibilidad de especular»¹¹⁸.

Ganadua ere kontrolpean egon zen. Salerosketen kasuan, saltzailearen herriko udaletxeko arduradunei zegokien ziurtagiri bat egitea; bertan animalia-
ren ezaugarriak eta saltzailearen nahiz eroslearen izen-abizenak jarri behar ziren. Ziurtagiri horren kopia bat animalia garraiatzearen arduradunari ematen zitzaion. Eroslearen herrira iristean, ziurtagiriaren kopiari zigilu bat ezarri behar zioten salerosketa ondo joan zela frogatzeko. Ziurtagiri hau Ganadu Jabetzaren Zentro Neurtzailerara bidali behar zen:

«Txekorrake ematentzittuen, pagatzentzuen baiño eak naizuena. Eamatentzien Beasiña ta Beasingo estazion bagoien kargau ta... Bei bat ta txekorra eaman giñuzen bi anaiok. Beiekin aurreti jartzentzan bat ta txaalak etzion seitzen. Noizbait aillau gea Beasingo kasetta, kasetakok “*pronto viene el tren, ya podéis andar rápido*”, geatu zagu bide erdin kieto beie, ta kasilleroi otseinion etortzeko launtzea ta nada, etzan etorri. Biden bei gizena utzi zeon tokin postei lotuta, ta txekorra anaiek ta biok eaman gendun. Postea an eon ezbazan ezta-
kit ze gertauko zan! Aintxiberriko gizona ibiltzentzan ganaduk baserritan biltzen ta gu falta sartzan asteko bagoietan, ala ba atea zitzaiun bidea, eskerrak bidea atea zitzaiun! Sartu zien bagoia, nee anaiek makillea txikittu zon beiei jota bagoien. Guk izan genun beajea». (Joxe Erauskin).

Joxe Erauskinetik kontatzen duen moduan, ganaduaren ordainetan aurrez erabakitako kopuru bat ematen zen, gehienetan balio zuena baino gutxiago. Ganaduagatik nahi zuten diru kopurua eskatzeko eta deklaratu beharrik ez izateko, Ataungo baserritarrek isilpean eramaten zituzten hiltzera, normalean Nafarroa aldera:

¹¹⁸ Garraio eta Hornidura Komisaritza, 1941eko legea. PEREZ GONZALEZENEN liburutik jasoa.

«Txekorrakiñe bai. Gurea dakit, ta gurea baiño geio ingo zittuen. Bein txekorra genduken eta emen kendu ittentziuen eak nai zuen prezion abastosak. Ta gue etxen Aldakioko Joxe Ramonekin txekor ue Altsasua eamantzuen gau baten, aurrena Aldakioa ta urrengo eunen Aldakiotik Altsasua. Eta aurreneko eunen etorri zienen, tia Isidorak emen ateik etzien zaaldu. Urrengo eunen bai, “emen gau ontan txekorra ata da”, bestek esan, baiño, urduako atata zan da, jun da billau zak!». (Felix Eskisabel).

Frantziska Aierdi Goikoetxeak, adibidez, kontatzen du bere ezkontza eguneko ospakizun bazkarirako, Ataundik aurrez eraman zituztela ezkutuan arkumeak:

«Ezkontza Donostian geneuzkan familiarteko batzuk antolatu ziguten. Arrazionamendu garaia zen eta aurrez, Ataundik eramanda geneuzkan arkumeak, ezkutuan. Edaria, ogia eta horrelakoak egun berean eraman genituen. Bazkaria gure familiakoen etxeko saloian egin genuen, 40ren bat lagun edo elkartu ginen, soinujolea eta guzti izan genuen»¹¹⁹.

Ezkutuan ibiltzea ohikoa bazen ere, iruzurrean harrapatuz gero isunak jartzzen zizkieten baserritarrei. Isuna iruzurraren araberakoa izaten zen. Iruzur handi samarra egiteagatik kartzelan egon ziren ataundarrak ere badira:

«Bazien kartzela eamandakoke. Bai geoke izan gendun... Ta salbau giñuzen Ataungo beterinarioa bada ba, Don Joan, Beasaiñen bizi zan, bai arek. Arek defendittu ginttun, arek diskulpea jarri zon ta. Lauztiaz-pikoa, angoa zan Joanixio esaten zitzaiona, ue eamantzuen. Geo Aieko beste bate bai». (Joxe Agirre).

ESTRAPERLOA

Estraperlo hitzak II. Errepublikan jazo zen eskandalu politiko batean du jatorria. Donostiako kasinoan, Strauss eta Perlowitz asmatzaileek *Straperlo* zeritzan erruleta elektrikoa sartu nahi izan zuten. Horretarako baimena lortzeko Espainiako Gobernuko hainbat ordezkari erosi zituzten; horien artean Partido Radical-eko buru zen Alejandro Lerrouxen iloba, Aurelio Lerroux. Poliziak jokia debekatu zuen iruzur egiten zela frogatu ostean. Straussek

¹¹⁹ Frantziska Aierdi Goikoetxeari gure eskariz familiakoek egindako elkarrizketatik hartua.

kalteordaina eskatu zion Lerrouxi jokoa debekatu zutelako, eta, honek ezezkoa eman zionean, ustelkeriagatik salatu zuen. Eskandaluak Partido Radicalaren gainbehera ekarri zuen. Gertakari honen ostean *estraperlo* hitzak «iruzur, trikimailu edo tranpa» adiera hartu zuen.

Merkatu beltza edo estraperloa, hein handi batean, errazionamenduaren eskutik etorri zen. Ataunen jatekoaren falta nabarmenik ez bazegoen ere, errazionamenduaren eraginez hainbat janariren eskasia agerikoa zen: ogia, olioia, azukrea, patata edota ardoa, besteak beste.

«Arrazionamendun azukrea baldin bada, olioia baldin bada, kafea baldin bada... aal dana, danetik partitzentzan. Baiño gutxi. Oso gutxi. Denbora gutxiko». (Teresa Agirre).

Eskasia honi aurre egiteko legez kanpoko bideak erabiltzea erabaki zuten hainbat ataundarrek, beste hainbat herritan bezala. Bide ofizialetatik kanpo (errazionamendua) elikagaiak lortzeko beste bide batzuk jorratzea:

«Etxeako beartzuenak, bakarren bati zerbait ekarrire bai tartetan, baiño bestela bearrekoa, bearrekoa. Ordun etzan berriketaik, familie mantendu einbeartzan. Baserrin beti zerbait, asko o gutxi izatezu, fruta bat, gaztai bat, zerbait. Baiño kalen ez, lenau esatentzan kale-gorrrin ezerbe daunai». (Sabino Auzmendi).

Etixerik gehienetan zegoen estraperloan aritzen zen norbait. Beraz, estraperloa nahitaezkoa bilakatu zen hainbat familiaren ekonomiarentzat. Estraperloaren bitartez lortzen ziren produktuak oinarrizkoenak izaten ziren gehienetan: ogia, olioia eta patata. Familiaren biziraupenerako estrategia izan zen estraperloa, egunerokotasunaren parte.

Nafarroa mugan kokatutako herria izanik, Ataun estraperloan aritzeko toki egokia bilakatu zen. Arbizu, Dorrao, Iturmendi, Urdiain, Lakuntza edo Etxarri-Aranatz inguruetara joaten ziren gari, patata, ardo, baba txiki edo babarrun bila:

«Patataike ez genuken, Nafarroa juten giñen patatata, izkutuka ibiltzen giñen, mendiz astokin, o mandokin. Mendiz jun Bakaikua geo Iturmendia ta mendiz. Ta ane bildurre emateko, guardik o arrapau ezkeo... ». (Joxe Agirre).

«Nafarroa. Astokin junda gare, patata billa. Ni junda nau Espillako astokin patata billa». (Isidora Eskisabel).

Bizikletan¹²⁰, oinez, zaldiz edo kamioarekin joaten ziren. Asko ziren Lizarrustin barrena ibilbidea bizikletaz egiten zutenak. Gizon eta emakume, denak ibiltzen ziren:

«Emen nee koñata, uere bai. Etxeako ekartzekota bizikletan atzen egurre ola lotu, frenuk gastau eittentziela bestela ta, klaro geldigo etortzeko pisue jarrita. Eta geo guardia zibille baldinbazeon adios muy buenas!». (Sabino Auzmendi).

Lizarrusti bizikletan jaisten zutenetarik askok lotzen zioten egur-puska edo «zarba» bizikletari aldapan behera abiadura murrizteko. Kaxetara iristean egurrak alde batera botatzen zituzten. Kaxetako Markox Jauregiren arabera, «emen adar montoi aundie eintzan! Ikatz pixkat ein gendun, ainbeste-ko montoia jartzentzuen!».

Felix Eskisabel mutil kozkorra zela joan zen Lezaun aldera patata bila. Bizikletaz egin zuen bidea:

«Lizarran betigora aldapa ortan asi gea, tokau da kamioi bat, ta ordun, Ordiziko tipoat agregau zitzaian, uere bizikletan eunero zeillena. Orik zien *del oficio*. Da ba klaro, orik malizie nik baño geixeago zeukeen, kamionai kartolatatio bi aldetatio eldu zien eta “nik ze in bear diat oain”, ta ni erio artan ipurtzuloz gora, bi belaunek urrau nittun dana odola dariola. Lezauna allau gea, asi gea ateik ate: “*Tiene patata*” tokau zaiu bikarioa atatzea, ta ala ni ikusi nittunen bi belaunek urrauta, ba karo praka motxakin neon, amabi urte, esantziun aurrena, “*tranquilos ya os encontraré yo la patata*”, ta neskamei esantzion, “*prepara-les a estos un plato de cocido de patata*”, ala patatea billau ziu ta nei olako ogi aundiat emantzin, nei bakarrik e! Gu *más contento que manda Dios!* Ta etxea, nei belaunek urratuatio inporta zin! 40 kilo patata ta ogie ekarri nittun nik etxea». (Felix Eskisabel).

Beste batzuk ezkutuan gordeta edukitako janariak saltzen zituzten estraperloan. Joxe Erauskinek etxean sobera zuten indaba saltzen zien estraperloan Lazkaoko Beneditar fraideei:

¹²⁰ Urte haietan bizikleta zen ataundar gehienen ohiko garraio tresna. Egun autoekin egiten den moduan, bizikletengatik ere zerga ordaindu behar zuten jabeek. Horrela jasotzen da 1938ko apirilaren 21eko udal-aktan: «*Como consecuencia de la consignación de atributos sobre la circulación de bicicletas establecidas en el capítulo 10 Art.º 6 de ingresos del presupuesto ordinario del año actual, el Ayuntamiento acuerda establecer la cuota de 5 pesetas en concepto de rodaje a cada bicicleta que circule en este término municipal y existentes en el municipio o de vecinos del mismo*». L-47 liburukia.

«Ta ala indabak Lazkauko prailleta saltze giñuzen. Ordun Lazkauko prailletan estudiantzen asko eotentzan, asko. Ondo gogon dauket goizeko lauetan osabakin neon ordun, eaman bear giñuzen indabak ta elurre eintzon. Goizeko lauetako jun bear genun Lazkauko prailleta ta indabak zeren ezkutauta beeko etxen. Ortio zakutan Zuiketaa ta gero daun zubi orta, osoa ta biok jun giñen karrokin. Ni bizikletan, ta ue karrokin. Ni bizikletan aurretio bigilantzin. Ala prailletako kalen aurea junda neon ta praillek an zai irikitzeke, sartu zan karrokin barrua ta ni bizikletan etxea». (Joxe Erauskin).

Estraperloan aritu zirenen artean bereizketa bat egin liteke: alde batetik, noizbehinkako estraperloan aritu zirenak daude, hauek normalean etxeko beharrak asetzeko egiten zuten; bestetik, maiztasun gehiagorekin ibili zirenak daude, azken hauentzat estraperloa momentuko ogibide bilakatu zela esan daiteke.

Bibiana Munduate eta Markox Jauregirentzat estraperloa ogibide bilakatu zen gerra ondorengo lehen urte haietan. Hamasei urte zituela, aitarekin egin zuen lehen bidaia Bibiana Munduatek. Behin bidea ikasita, berak bakarrik eta senide gazteagoren bat lagun zuela egiten zuen bidaia:

«Leendabizi, aitte zanakin junintzen. Sarte alden, Urdiango alden, ordu betea baserri bat zeon, ta elurre zeon, autza jun giñen aitte ta biok, elurretan eta esantzien andik zea, ordu beteko bidea zeola direkto Urdiaña. Urrengo eunen, bakar-bakarrik, ta elur arrastotan jun nintzen ni zaldikin, eun kilo patata ekarri nittun. Kiloko pezetea irabazi non, ta ordun kiloko pezetea ona izatentzan. Ta andi aurea, bi mandokin, irukin, ta olaxe jutun giñen, neoni senide gaztegon batekin igual». (Bibiana Munduate).

Estraperloan joaten zenean egun osoa behar izaten zuen joan-etorrian:

«Goizen goiz, zazpiek alden etxetik atea ta, illuntzeko zazpiek o zortziek izatentzien etxea etortzeako, eun guztie pasatzen gendun». (Bibiana Munduate).

Herrian denek jakiten zuten zeintzuk ibiltzen ziren estraperloan; Bibiana bera oso ezaguna zen:

«Ue ne baiño gaztegoa izangoa. Baiño ue oso gaztea zala aittekin asi zan iru o lau zaldikin. Ergonen, Alberdi-Zaarra o Alberdin gaiñeko etxe artan, an zeuken izoa, ta an jartzezittuen mandok Naparroa juteko zerbait ekartzea, garie o babea o eztaitt ze ekartzen zuen. Baiño bea oso gaztea zala e!». (Adelita Apalategi).

Herrian eta herritik kanpo zen ezaguna Bibiana. Asteazkenero joaten zen Ordiziako azokara estraperloan ekarritako generoa saltzera. Bertan errekar-derak izaten zituen zain. Errekardera hauek Ordizian erositakoa Donostia in-guruan saltzen zuten, hauek ere estraperloan. Errekardetak oso ezagunak izan ziren gerra osteko lehen urte haietan¹²¹.

«Saltzen denboa gutxi pasatze genun guk. Errekardetak gu etortze-ako pronto eotenzien. Artu ta Donostiaka eamantentzuen. Ondo pa-tzentzuen». (Bibiana Munduate).

Noizbehinka ibiltzen zirenek sarri laguntza eskatzen zieten maiztasun gehiagorekin ibiltzen zirenei. Azken hauek hobeto ezagutzen zituzten bide-ak eta harreman gehiago zuten saltzaileekin:

«Errin danak zekien. Erriko jendea nekin autza jutentzan. Saltsebe-rriko Bittori zana ta, Espillako Mikela zana ta. Guk bidea bagekiñun ta ordu ontako etorri zaizte ta, alkarri launtzen». (Bibiana Munduate).

Bidaia arrakastatsua izan zedin oso garrantzitsua zen han eta hemen ha-rreman onak izatea. Markox Jauregik Bakaikuko geltokian zuen bere kon-taktuatariko bat:

«Laun bat banon Bakaikuko estazioko jefea, jefea etzan baiño kar-gon bat. Ue destinauta eontzan Erriberan ta andik bialtzentzien artoa Bakaikua, Villafranca de Navarratik, andik mendiz onea ekartzenon». (Markox Jauregi).

Bai batzuek eta bai besteek, noizbehinka nahiz maiz ibiltzen zirenek, au-rre egin behar izan zieten jarduera honek zekartzan arriskuei. Bibiana Mun-duatek gogoratzen duenez, bezperan ez zen lasaitasun berarekin lo egiten:

«Autza jun bear etzan gauen lo lasaiago ittentzan, autza jun bear-tzan goizen beti nerbiosago eoten giñen». (Bibiana Munduate).

Hala ere, onartzen du garai hartan bizimodua lasaiagoa zela eta ibilbide-ak ez zirela hain arriskutsuak bakarrik zihoazen emakumeentzat.

Arrisku nagusienetariko bat guardiek harrapatzea zen. Kontrolak ugari izaten ziren, bai Nafarroako joan-etorrietan bai Beasain aldekoetan ere. Na-

¹²¹ BARRUTIABENGOA, U. et all. (2004). *Ahotsak. Emakumeak historian. Hernani (1936-1970)*. Her-naniko Udaleko Berdintasun Arloa. Hernani.

farroatik zetozen janariak arbitrioak, zerga, ordaindu behar izaten zuten probintzian sartu ahal izateko:

«Ni bein baño geiotan Senperen oain Renault garajea dauan ortan, an borda bat bazan aren ondoren bi ordun eonda nau ni goizen. Seietan atea lanetio, gauen lan einda, ta guardia zibillek “*aparquese usted ahí hasta que le...*” kamiona, eman die bakarren batek soploa garikin kamiona datorrela, klaro guardia zibillek bazekien kamioi zalek ikusten banittun ni bizikletan gelditu ta “*ba altzeik inhor?*” Geo beintzet ia zortzietan “*ya te puedes marchar*”, sobrare bakarren batek pasau zien etzetorrela kamionik ia. Ta etxea jun ai oain bi ordun an eonda, len 10 ordu lan einda ta bi ordu eitzek an *por la patria, la ostra!*». (Sabino Auzmendi).

Trikimailu ezberdinak erabiltzen ziren guardiei iruzur egiteko. Irudimena nahitaezkoa zen egoera haietan:

«Beasingo Sarjentu beltza bazan emen, enterauta zeon, ta Aieko Bitoriano panaderori esantzion sarjentok bazekilla nola ibiltzen giñen, urrengo asteizkenen ezkiñela pasauko. Panadero orrek gue aitte zanai esantzion, “ola ta ola esantziategi sarjentuk, ta kontu e!” Bakizue ze in gendun? Lazkauteiko Euxebio, kamionakin ibiltzen zana kanteratik, ta Rafaelenen uzten giñuzten guk patatak, beti, andik ekartzen giñuzten garaien. An kanpon kamionan azpin jarri giñuzten illaran zakuk ta gaiñeti area bota gendun, ta sarjentoa an zeon Senperen, baño etzon ikusi ezerre. Etzan kontuatu». (Bibiana Munduate).

Bibiana Munduateren hitzetan ikusi daitekeen moduan, estraperloan ari zirela ez harrapatzeko ohikoa zen bata besteari abisua ematea. Adelita Apalategi gogoratzen duenez, bera haurra zela Arbizu ingurutik garia estraperloan zekarten mutilek sarritan galdetzen zieten ea bidean guardiaren bat ote zegoen:

«Goizetan gu mezeta gijozela Arbizutio ta ortik mutil jendea 5 o 6 igual etortzientzen bizikletatan danak garie zuela. Eta ak goitik bera jurentzientzen ta guk etxeakon ikusten giñuzen. Ta ak “ezer ikusi al dezue or?”, “Ez”, ta askotan». (Adelita Apalategi).

Herritarren artean ere bazegoen elkar laguntze hau:

«Zien Arzubiko panaderok, ta bizkletan jurentzan ue ogikin Lazkauea estraperlon. Ta ordun emen, kamiño eskiña ontan gaur bezela arbola gutxi zeon, gu soron o tokatzen giñen beti ue jurentzan garaien askotan da, ta beitzenon kamiñon Zuiketa aldea guardik zan da ikusten banon paro eitten nion. Orikin sinistekoke!». (Joxe Erauskin).

Baziren guardiekin tratua eginda zeukatenak ere. Estraperloa eguneroko jarduera zutenentzat oso garrantzitsua zen harreman «onak» izatea :

«Beste launere banon ta ango guardikin zerbait bazon da pasatzen uztentziun». (Markox Jauregi).

«Lizarraustitik etortzentzien kamionakin, sobrare an zerenak eosten zittuen ta ortik ibiltzentzien». (Sabino Auzmendi).

Guardia Zibilak erosita zituztela uste zutelako Nafarroako saltzaileek errazago egiten zuten salerosketa Bibiana Munduaterekin:

«Bazekien Altsasuko goardia zibilak an genbiltzela, baiño sekula ez ginttuen arrapau. Ta Naparroko jendek uste zon guk ak eosita genduzkela, goardia zibilekikoa inda gendukela, baiño etzan ola». (Bibiana Munduate).

Harrapatuz gero, garraiatutakoa bahitzeaz gain, isunak edo kartzela zigorrak jasan zitzaizketen estraperloan zebiltzanek. 1940ko irailaren 30ean Zergen Fiskaltza Gorena delakoak estraperloan aritzeagatik zeuden zigorrak zehaztu zituen:

1. Edozein zigorretan ematen ziren pausoak:
 - a) Legez kanpoko produktuaren bahiketa.
 - b) 1.000-500.000 pezeta arteko isuna.
 - c) Harreman komertzialak izateko debekua. Denden kasuan, 3 hilabete, 6 hilabete edo urtebeteko itxiera.
2. Goi Fiskaltzaren esku dago hiru hilabetetik urtebetera lan-behar-tuetarako batailoietara bidaltzea.
3. *Malicia* izenarekin adierazten diren kasuetan, delituak sarri errepikatzen direnetan, posible da 500.000 pezeta baino gehiagoko isuna jartzea. Baita denda betiko ixtea ere.

Guardiekin topo eginez gero, egun oso bateko lana bertan behera geratzen zen, eta isuna ordaintzeaz gain esku-hutsik itzuli behar izaten zuten etxera:

«Bizikletane asko, 80 kilo artu patatea ta garie, ekarri einbear do! La ostra! Nik aittu diet ia Arañako zelaia etorri eta or taka guardiak eta dana kendu». (Sabino Auzmendi).

«Nee gizon zanai Kaxetan bein goardia zibiliek golpea emantzion fusilekin bizkarren. 50 kilo garikin zetorren». (Bibiana Munduate).

Benito Arruabarrenari ere gertatu zitzaion horrelakorik, kamioia bete patata galdurik itzuli behar izan zuen Atauna:

«Ala, kamioi ortan abittu giñen. Etorri zien goardia zibiliek, nik an ekartzeko dotore prepauta, dirue pauta ta patatea jasota kamionen etxea ekartzeko. Ta dana galdu, danak eaman zittuen, kamioikara patata». (Benito Arruabarrena).

Estraperloko janariak esku artean zituztela guardiek ez harrapatzeagatik ohikoa zen guardiak ikusi orduko janari hauek bide bazterrera botatzea:

«Guardik ikusi do ta Joan oi junda eskapun bizikletan. Ala gue etxea baiño pixkat goraxoagotio oska gue soron korrikata: “alto, alto”. Gu soron ai giñen aitte ta biok ganajanak eitten. Ta Joan orrek zamazkin aragik, txuletak. Gue beeko etxe ortan, beeko ikullun, garoa eukitzen genun beien azpik eitteko ta, ba aragi orik autza bota zittun. Urrengo eunen ez-takit zein jungo zan aitte o nee anaienbat o billau dittu. Ta aittek seittun guri: “Joanenak dittuk eta entregau einbearko zittuau”, ta guk arik nai, ta “ez orik ezittuk gurek”, geo azkenen entregau». (Joxe Erauskin).

Estraperloan ibiltzeagatik kartzelan egon ziren ataundarren adibideak ere nahiko erraz topa daitezke. Ez ziren kartzelaldi luzeak izaten. Gau bat edo beste pasatzen zituzten kartzelan:

«Geo guardiata entregau zan ta kartzelan sartu zuen. Ta geo beintzet eune kartzelan pasau zon ta urrengo eunen librau zuen». (Joxe Erauskin).

Markox Jauregi Altsasuko herriko kartzelan egon zen. Denbora-pasa kartetan jolasean ibili omen ziren:

«Situazio guztitan billau bearra dau... An sartu giñuzen erriko etxen kartzelan baiño, leendik ezaunere bai an bizi zan aguazille ta, orrekin». (Markox Jauregi).

Estraperloan aritzeagatik hamasei bat urteko gazte san gregoriotarra ere hil zuten guardiek. Errotako Tiburtzin Etxarritik Lizarrara bitartean bizikletan zihoala hil zuten. Gauza nahasia izan zen, ez zen argi geratu gertatu zena, guardiek «alto» eman eta aurrera jarraitu ote zuen ala ez.

1952ko martxoaren 31n amaitu zen errazionamendua.

*«Guri etziuen kontatzen gerrako kontuik,
eta guke ez gendun galdetzen»*

(Joanita eta Arantxa Mujika)

HITZATZEA

«Guk eztakiu ezer gerrei buruz».

Errazionamenduaren azken urteetan jaio zen belaunaldia Francoren diktaduraren erdialdian hazi zen. Joana zen gerra, eta gosea eta miseria gordina ere apurka-apurka atzean uzten ari zen Francoren Estatua. 50eko hamarkadatik aurrera, AEBekin lortu zuen aliantzari esker, Europak ezarri zion isolamentu politiko eta ekonomikoa amaitu zen Espainiarentzat. Autarkiaren bukaera izan zen, hazkunde ekonomikoaren hasiera.

Joanita (1946) eta Arantxa Mujika (1950) errazionamenduaren azken urteetan jaio ziren. Gerra joana zen, baina gerraren zauriak ixteko zeuden artean. Urteak igaro beharko ziren diktaduraren eta gerraren gaineko kontzientzia hartzeko.

«Gu ezkiñen enteetzen. Diktadurea zeon o etzeon, ezkiñen enteetzen umetan. Geon arten eta etxen euskeraz itten gendula baiño monjakin eta eskolan dana erderaz itten gendula bai, baiño iruittuko zitzaiun gauzak ola izan beartzuela, eta ezkendun galderaik itten gauzak zekatik zien ala. Besteipe. Ue zan normalidadea». (Joanita Mujika).

Diktadura «normaltzat» jotzen zuen umezaroa izan zuen gerraren ondorengo belaunaldiak. Liburu honen egileen amen belaunaldiak. Isiltasunaren belaunaldiak.

«Bagekiñun gerra bat izantzala, iru urte irauntzola, eta ikaragarriko mixerik pasau zittuela. Jendea Urbasaa eamantetzuela, eta an Balcon de Pilatosei beera botata iltzentzittuela. Alkatek gobernadore zibillek aukeratakok zielare bai, baiño beste ezerrez. Guk umetan sekula ezkendun ortaz itzeiñ». (Arantxa Mujika).

Gerra zuzenean bizi izan zuen belaunaldiaren eta hurrengoaren artean haustura garrantzitsua egon zen. Kasu askotan ez zen transmisiorik egon.

Hau transmisio ezaren adibide bat da, beste hamaikaren artean adibide bat. Ez zen kontatu gertaturikoa. Ez zen hortaz hitz egiten. Isildu egin ziren.

«Guri etziuen kontatzen gerrako kontuik, eta guk ezkendun galde-tzen». (Arantxa Mujika).

Transmisioaren haustura, baina, ez zen kasualitatea izan. Zauriak irekita zeuden. Alabei beren bizitzaren historia kontatu gabe hil ziren Simona Etxeberria eta Patxi Mujika, beste hamaika ataundar bezala, beste ehunka euskal herritar bezala. Beren gaztaroa erdibitu zuen gertakariaren lekukotasunik eman gabe. Batetik, inork ez zielako galdetu. Eta, bestetik, ez zirelako ausartzen horretaz hitz egitera:

«Gu kontuatzen giñen etxen Francoi etziela adorazioik. *Radio Paris, Radio Pirenaica, Andorra...* eta kanpoko emisorak aitzentzittuen. Emengo radiotan aitzen etzien gauzak. Aittek ezintzon begin aurren ikusi Franco. Eta arren kontukin aitzentzienen radion maldizio baten aitzentzan. Amak esatentzion ixilik eoteko, eta aitte ordun eta geiau aitzentzan. Ordun olako gauzak esatea pekatue zalako esatentzion amak ixiltzeko, baiño baita bakarren batek aitzeko beldurrekatiore». (Joanita Mujika).

Beldurrak ekarri zuen isiltasuna, neurri handi batean. Eta beldurra, minak. Gerra eta gerra ondorena bizi izan zituzten herritar gehienek bezala, sufritu zuten miseria hura Simona Etxeberriak eta Patxi Mujikak. Etorri egin zitzaien gerraren gogorra. Lehen lerrora joan beharra izan zuten batzuek, ilea moztu zioten besteren bati, amenazu egin, zigorrak ezarri, etxeak miatu, hartzarekin seinalatu, isunak jarri, jatekoa errekiatu... eta Patxi Mujika udaletxeko bere lanetik bota zuen Estatu Frankistak ezarritako udal gobernu berriak. Danbor jolea zen.

«Guk oain jakin deu gure aitte udaletxeti bota zuela frankistak. Beti tanborran ritmoa eamatentzon beatzakin, baiño iñoiz etzon kontau udaletxeti bota zuela nazionalistea izateakatio. Sekula ez». (Arantxa Mujika).

Beste batzuk gerrara boluntario joan ziren, alde batera edo bestera. Beste batzuek ihes egin zuten. Simona Etxeberriak presoak bisitatzen zituen:

«Mirandan lanentzeola erriko presok bixitatzentzittun. Erriko berri-ta ematentzien, eta aaltzonen laundu. Baiño errikoz aparte kanpotik etorritako presoire launtzentzien. Zorritz josita eotentziela esatentzon,

eta ean erropak otelea eaman eta an garbitzentzittuela. Oi jakiñ bagekiñun, baiño etzan itzeitten ortaz». (Arantxa Mujika).

Eta orain beranduegi da Simona Etxeberriaren eta Patxi Mujikaren kasuan. Berreskuratu ezin den memoria eta jaso ezin daitezkeen historiak lurperatuak daude. Lehenengo belaunaldia isildu egin zelako. Bigarrenak galdetu ez zuelako. Eta hirugarrena beranduegi iritsi delako.

«Oain gorputzek atetzen eta asi dienen, gelditzentzazu kuriosidadea, eta penea, etxekok nola bizi izantzuen gerrea jakittekonaie. Gerrea eta gerra ondoena. Guk ezkendun ezautu». (Arantxa Mujika).

«Eta oain eztakiu ezerre. Gerrea tristea izantzala bai, baiño geio ezerrez». (Joanita Mujika).

OHAR

METODOLOGIKOAK

Liburu hau egiteko, ondoren zehazten diren irizpide metodologiko eta hizkuntza irizpideak erabili dira.

IRIZPIDE METODOLOGIAK

Lanak elkar osagarriak izan diren bi atal izan ditu, idatzizko dokumentazioaren bilketa eta irakurketa, alde batetik, eta landa lana, bestetik.

- *Idatzizko informazioaren bilketa eta irakurketa*

Artxiboko lana egiteko Ataungo Udal Agiritegia arakatu da, 1936tik 1942ra bitarteko udal akta guztiak errepasatuz.

Gainerako informazioa lortzeko bibliografia irakurri da; Atauni buruzko lanak, 36ko gerrari eta gerra osteari buruzkoak eta lanaren oinarri teorikoa osatzeko baliatu direnak (memoria historikoaz, egunerokotasunaz, aldaketa sozialaz, genero eta klase harremanez, etab).

- *Landa lana*

Landa lanak urtebeteko iraupena izan du, 2006ko urritik 2007ko urrira. Denbora tarte honetan 14 elkarrizketa egin dira. Elkarrizketa hauek erdi-egituratuak izan dira, hau da, oinarrizko puntuak biltzen zituen gidoi bat erabili den arren, berriemaileei askatasun osoz hitz egiteko aukera eskaini zaie. Elkarrizketa guztietan ahotsa eta irudia grabatu dira.

Elkarrizketak hitzez hitz transkribatu dira gero aztertu ahal izateko.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Ahozko lekukotasunei emandako garrantziagatik, berriemaileen esanak hitzez hitz jaso ditu liburuak, Ataungo azpieuskalkian. Eta lekukotasun horien transkribapena egiteko ondorengo hauek izan dira irizpide nagusiak:

- Bokal arteko kontsonanteren bat galdu denean (b-d-g-r nagusiki), bokal luzeak erabili dira: *nee, aatsaldea...* Adlatiboko ‘-ra’-n sarri gertatzen da galera hau Ataungo euskaran, eta hala jaso du liburu honek transkribapenetan: *eskolaa*, adibidez.
- Kontsonanteei dagokienez, Ataungo azpieuskalkian oso ugaria da asimilazio-bustidura, ‘i’ bokalak eragindakoa, batez ere, ‘i’-ren ondorengo albokarietan (il ill), sudurkarietan (in iñ) eta herskari horzkari ahoskabeetan (it_itt). Bokal itxiaren osteko txistukari apikariaren lekuan (s) sabaiurrekoa agertuko da (x), oro har.
- Hizketa garaian, ahostunen ondoko afrikatuaren aldeko neutralizazioak ohikoak dira, eta idatziak ere hala jaso ditu. Sudurkariaren, albokariaren eta dardarkariaren ondoren afrikatuaren aldeko neutralizazioa gertatzen da: *nz_ntz, lz_ltz, rz_rtz*.
- ‘Ez’ partikularen eta aditz laguntzailearen arteko sandhietan ere neutralizazioak gertatzen dira.
- Ataunen ‘h’ ahoskatzen ez denez, transkribapenetan ‘h’-a ez erabiltzea hobetsi da.

Hizkuntza irizpideak, dena den, ez dira matematikoak. Irizpide nagusiak, oro har, hiztun guztiek betetzen baldin badituzte ere, ez dira erabatekoak. Auzo batetik bestera eta, areago, ia etxe batetik bestera desberdintasunak nabariak izan daitezke. Horrez gain, berriemaileen artean ia 20 urteko aldea dago, eta diferentzia hori hizkuntzan ere islatzen da.

BIBLIOGRAFIA

- ABELLA, R. (1978). *La vida cotidiana durante la Guerra Civil*. Editorial Planeta. Madril.
- AIZPURU, M. (Zuzendaria). (2007). *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko Fusilaketak*. Alberdania Memoria. Irun.
- ALONSO, J. et all (2003). *El exilio de los niños*. Fundación Pablo Iglesias, Fundación F. Largo Caballero. Madril.
- ALVAREZ FERNANDEZ, J. I. (2007). *Memoria y trauma en los testimonios de la represión franquista*. Anthropos. Bartzelona.
- APALATEGI, A. (1965). *Zarra*. Itxaropena. Zarautz.
- APALATEGI, J.M. (1981). "Introducción a la historia crítica de la producción oral vasca" in *Ethnica* nº 17. Bartzelona.
- APALATEGI, J.M. (1982). *Introducción a la historia crítica a través de los "kontu zaharrak" (cuentos viejos) de la localidad guipuzcoana de Ataun*. (Lizentziaturarako tesina). Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia.
- APALATEGI, J.M. (1988). *Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa. Ataungo herria, pertsonaldeak eta pertsonak*.
- ARANBURU, P. (2003). *Ataungo ogibide historikoen edo artzaintza, nekazaritza, errota, eraikuntza eta zerbitzuen kulturazko eragin nagusia bertako ETNOSA-ren historian. XIV-XX mendeetan*. VII. Ataun Aztergai Beka. Ataungo Udala.
- ARIN, J. (1964). *Clero y religiosos de Ataun*. Montepío Diocesano. Gasteiz.
- ARPAL, J. (1979). *La sociedad tradicional en el País Vasco*. Haranburu. Bilbo.
- ARRATIBEL, J. (1995). *Kontu zaharrak*. Erein. Donostia.
- ASTERLARRA, J. (2005). *Veinte años de políticas de igualdad*. Ediciones Cátedra. Madril.
- ATAUNGO UDALA, (2004). *Ataungo etxeak eta baserriak*. Ataungo Udala.

- BARANDIARAN, J. M. (1917-1936). *Diario personal. Volumen I (1917-1936). Desde los primeros trabajos científicos, hasta el inicio del exilio*. Alvaro Arrizabalagaren edizioa. Barandiaran Fundazioa. Ataun.
- BARANDIARAN, J. M. (1976). *Guía para una encuesta etnográfica*. Arabako Diputazioiko Kultura Kontseilua. Gasteiz.
- BARANDIARAN, J. M. (1977). *Cultura vasca*. Erein. Donostia.
- BARANDIARAN, J. M. (1977). *Obras Completas*. Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo.
- BARANDIARAN, J. M. (1988) (1925). *Elkarteko gertakarien sortze eta azkera*. Antropologiaren Euskal Bilduma. Barandiaran Joxemiel (AEB-Bjm). Kriseilu. Donostia. Itzultzailea Nekane Balluerka.
- BARANDIARAN, J. M. (1993). "Juegos infantiles en Vasconia". *Etniker Euskalerrria*. Bilbo.
- BARANDIARAN, L. (1981). *Barandiaran. Patriarca de la cultura vasca*. Sociedad de Educación Atenas. Madril.
- BARNECILLA, M. A. (2001). *La mujer en Euskal Herria: hacia un feminismo propio*. Basandere. Donostia.
- BARRUTIABENGOA, U. et all. (2004). *Ahotsak. Emakumeak historian. Hernani (1936-1970)*. Hernaniko Udaleko Berdintasun Arloa. Hernani.
- BARRUTIABENGOA, U. et all. (2006). *Galdakaoko emakumeen eskutik 1936-1960*. Galdakaoko Udala. Aukera Berdintasun Arloa. Galdakao.
- BECK, E. et all (2001). *Mujeres y transformaciones sociales*. El Roure, Esplegues de Llobregat, Bartzelona.
- BENERIA, L. (1997). *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*. Anagrama. Bartzelona.
- BLAIR, E. (2005). "La violencia frente a los nuevos lugares y / o los otros de la cultura" in *Nueva Antropología Revista de Ciencias Sociales*, nº 65. 13-28 orrialdeak.
- BORDERIAS, C. (1994). *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*. Icara. Bartzelona.
- CARO BAROJA, J. (1974). *De la vida rural vasca*. Estudios Vascos IV. Txertoa. Donostia.
- CARO BAROJA, J. (1974). *Vecindad, Familia y Técnica*. Estudios Vascos II. Txertoa. Donostia.
- CLERO VASCO. (1966). *El clero vasco frente a la cruzada franquista*, Toulouse, Egi-Indarra.
- CHUECA, J. eta FERNANDEZ, L. (1997). *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*. Euskaldunon Egunkaria. Andoain.
- DANTEC, F. (1964). *Noviazgo cristiano. El mensajero del Corazón de Jesús*. Blbo.

- DIEZ, F. (1994). *La vida cotidiana en la España de la Guerra Civil*. Edaf. Madril.
- DOUGLASS, W. (1976). *Muerte en Murelaga*. Barral. Bartzelona.
- DREYFUS-ARMAND, G. (2000). *El exilio de los republicanos españoles en Francia: de la guerra civil a la muerte de Franco*. Crítica. Bartzelona.
- EGAÑA, I. (Zuzendaria). (2000). *Gerra Zibila Euskal Herrian*. Aralar liburuak. Andoain.
- FOLGUERA, P. (1998). “El franquismo. Retorno a la esfera privada (1939-1975)” in *Historia de las mujeres en España*. Síntesis. Madril.
- FOUCAULT, M. (1977). “Nietzsche, Genealogy, History” in BOUCHARD, D.F. *Language, Counter-Memory, Practice*. Ithaca. New York. 139-164.
- GAMBOA, J. M. eta LARRONDE, J. C. (2006). *La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*. Editions Bidasoa, Milafranga.
- GARITAONANDIA, C. eta GRANJA, J. L. (1987). *La guerra civil en el País Vasco. 50 años después*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua. Bilbo.
- GARFINKEL, H. (2006). *Estudios de Etnometodología*. Anthropos, Bartzelona.
- GALLEGO, M.T. (1983). *Mujer, falange y franquismo*. Taurus. Madril.
- IMAZ, J.A. et all (1975). *Ataun*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia.
- GREENWOOD, D. (1998). *Hondarribia riqueza ingrata: Comercialización y colapso de la agricultura*”. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua. Bilbo.
- HALBWACHS, M. (1992). *On Collective Memory*. The University of Chicago Press. Chicago.
- IZQUIERDO, M. A. (1998). “Sexo, género e individuo. El sistema sexo/género como marco de análisis” in *El malestar de la desigualdad*. Cátedra. Bartzelona.
- LAMELA, M. C. (1998). *La cultura de lo cotidiano: estudio sociocultural de la ciudad de Lugo*. Akal. Madril.
- LASA, X. (2006). *Ahozko historia: Oroimenean lokartutako ahotsa. Gerra Zibilaren (1936-1939) eragina Gipuzkoako herri bateko bizitza sozialean. Andoain: Askatasunaren alde eta frankismoaren aurka borrokatu zutenak oroituz. Oroituz Andoain 36*. Andoain.
- LAVIANA, J. C. (2005). *La Guerra Civil española mes a mes; Los niños de la Guerra*, Unidad Editorial, Madril.
- LEON, E. (1999). *Usos y discursos teóricos sobre la vida cotidiana*. Anthropos. Bartzelona.
- LETONA, X. (Koordinatzailea) (2007). “Memoria Historikoa. 1936ko gerra” in *Larrun* 107. zb. *Argia* aldizkaria.

- LINDON, A. (2000). *La vida cotidiana y su espacio-temporalidad*. Centro Regional de investigaciones multidisciplinares. Mexiko.
- MANGINI, S. (1997). *Recuerdos de la resistencia: la voz de la mujeres de la Guerra Civil española*. Península. Bartzelona.
- MAQUIERA, V. (2001). "Género, diferencia y desigualdad" in BELTRÁN, E. eta MAQUIERA, V. (editoreak), *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*. Alianza Editorial. Madril.
- MARTI, J. (1995). *La España del estraperlo (1936-1952)*. Planeta. Bartzelona.
- MARTINEZ BANDE, J. (1974). *La batalla de Teruel*. Editorial San Martin, Madril.
- MAULEON, J. R. (1998). *Estrategias familiares, cambios productivos del caserío vasco*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- MENDIZABAL, A. (2006). *Azpeitiarrak Espainiako Gerran*. Uztarría, Azpeitiko Kultur Koordinakundea. Azpeitia.
- NASH, M. (1999). *Rojas: Las mujeres republicanas en la guerra civil*. Taurus. Madril.
- NISBET, R. (Editorea) (1972). *Cambio social*. Alianza Editorial. Madril.
- NONDIK aldizkaria 17. zk. 1987ko martxoa. *Gerra Zibila Ataunen*.
- NUÑEZ-PEREZ, M. A. (1989). *Trabajadoras en la Segunda República: Un estudio sobre las actividades económicas extradomésticas (1931-1936)*. Ministerio de Trabajo y Seguridad Social. Madril.
- OTERO, L. (1998). *Mi mamá me mima. Los múltiples avatares y percances varios de la mujer española en tiempos de Franco*. Plaza y Janés. Bartzelona.
- OTERO, L. (1999). *La Española cuando besa. De cómo Franco y los suyos conceptualaban pecado terrible, vicio nefasto y delito infame que la mujer fuera libre y pensante*. Plaza y Janés. Bartzelona.
- OTT, S. (1981). *The circle of Mountains: A Basque Shepherding Community*. Oxford Clarendon Press. Oxford.
- PEREZ GONZALEZ, A.B. (2002). *La economía no oficial y el mercado negro clandestino*. Testu guztia: <http://www.eumed.net/tesis/>.
- PERINAT, S. (1972). "La batalla de Teruel" in *Historia mundial del siglo XX*. Editorial Vergara. Laugarren liburukia.
- PERINAT, S. (1972). "La batalla del Ebro" in *Historia mundial del siglo XX*. Editorial Vergara. Laugarren liburukia.
- PRIMO DE RIVERA, J.A. *Discursos y escritos (1922-1936): Obras Completas*. Ediciones Fe, Madril.
- ROSA, A. et all (editoreak) (2000). *Memoria colectiva e identidad nacional*. Editorial Biblioteca Nueva. Madril.

- SEGALEN, M. (1998). *Antropología histórica de la familia*. Taurus. Madril.
- SILVA, L. (2000). “De eso no se habla. Cuestiones metodológicas sobre los límites y el silencio en entrevistas a familiares de desaparecidos políticos” in *Historia, antropología y fuentes orales*. Nº 24. Bartzelona.
- THOMAS, W. eta ZNANIECKI, F. (2006). *El campesino polaco en Europa y América*. Boe editoriala. Madril.
- URDANGARIN, C. et all. (1997). *Oficios tradicionales I*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia eta Turismo Saila.
- URDANGARIN, C. et all. (1997). *Oficios tradicionales II*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia eta Turismo Saila.
- VALLE, T. del (Zuzendaria). (1985). *Mujer Vasca: Imagen y Realidad*. Anthropos. Bartzelona.
- VALLES, M. (1997). *Técnicas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. Síntesis. Madril.
- VILAR, P. (1986). *La Guerra Civil Española*. Crítica. Madril.
- ZULAIKA, J. (1990). *Violencia vasca: metáfora y sacramento*. Nerea. Madril.
- ZULAIKA, J. (1996). *Del cromañon al carnaval*. Erein. Donostia.

WEBGUNEAK:

- Euskal Herriko Alderdi Karlista (2007).
www.eka-partidocarlista.com/evolucion.htm
- Valentziako artzapezpikutza. Valentzia, 2007.
www.archivalencia.org.
- <http://www.la-terraza.com/03/fot2/cartillapan.jpg>
- <http://usuarios.lycos.es/antoniomarinlopera/cartilla1>

GOIERRIKO EUSKAL ESKOLAREN ARGITALPENAK

GERRIKO Liburu Saila

1. *Astez aste. Alfabetatzeko.*
Egileak: Testua: G.E.E.
Azala: Joxe Mari Telleria
Editoriala PAX Argitaletxea. Lazkao, 1979.
2. *Ahaide Nagusiak. Argazki Hitza. Ikusentzunekoa.*
Testugilea: J.A. Leunda
Itzulpen eta osagarriak: G.E.E.
Marrazkigilea: J.M. Telleria
Eragilea: G.E.E. Lazkao
Inprimatzailea: Anaitasuna. Usurbil.
Argitaletxea: PAX. Lazkao.
3. *Euskal Kanta Xorta.* 1981.
4. *Euskal Aditza. Alfabetatzeko.*
1982. G.E.E.
Egileak: J.M. Aranburu, D. Amundarain, P. J. Aranburu, M. Bidegain,
A. Idiakez, M. A. Maiz.
G. Lizarra.
5. *Ixtorioa moldatu-I. Eskolumeak txori-kabia bila.*
G.E.E. 1982.
6. *Baserri zaharra. Baserri-tresnak.*
G.E.E.
7. *Goiherrin kalea euskaldundu-I.*
G.E.E.1984.
8. *Aditz ariketak I. Indikatiboera. Euskalduntzeko.*
G.E.E. 1985 GERRIKO Argitaletxea, Antsotegi S.A.
Beneditarren Inprimategia, Lazkao.
9. *Aditz ariketak II. Baldintzera, ahalmenera, menpekoak, beste batzu.*
G.E.E. 1986. GERRIKO Argitaletxea, Antsotegi S.A.
Aralar Inprimategia, Ordizia.
10. *Esaldi konposatuak. Koordinatuak, menpekoak, beste batzu.*
G.E.E. 1987. GERRIKO Argitaletxea, Antsotegi S.A.
Aralar Inprimategia, Ordizia.

11. *Deklinabide ariketak.*
G.E.E. 1988. GERRIKO Argitaletxea, Antsotegi S.A.
Aralar Inprimategia, Ordizia.
12. *Esamoldeak.*
G.E.E. 1989. GERRIKO Argitaletxea, Antsotegi S.A.
Aralar Inprimategia, Ordizia.
13. *Hizkuntz Ordezkapenaren Nondik-Norakoak Goierrin.*
G.E.E. 1992. GERRIKO Argitaletxea, Antsotegi S.A.
Beneditarren Inprimategia, Lazkao.
14. *Alfabetatzearen hastapenak Goierrin. Aurresaioak eta 1967tik 1975erakoak.*
Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea. Lazkaon, 1999an.

GERRIKO Ikerlan Sariketako bilduma

- I. 1. *“Basogintza Goierrin XVIII-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhaitzabetuetatik Gaurko Pinudietara”*. Mikel Sarriegi Etxezarreta.
 - *“Urbia-Oltzeko Artzantza”*. Andoni Aizpuru Murua.
 - *“Artzantzaz artzain Familia batekin”*. Ainhoa Galparsoro Sarriegi. Goierriko Euskal Eskola, 1990

- II. 2. *“Etnografiazko ikerlan bat”*. Nekane Arratibel.
 - *“Meatzaritza Goierrin (1850-1950)”*. Josune Zaldua, Beatriz Herreras Goierriko Euskal Eskola. / Maizpide Euskaltegia, 1991

- III. 3. *“Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)”*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez, Iñaki Rezola.
4. *“Goierriko Biztanleria (1860-1986)”*. Arkaitz Arruabarrena. G.E.E. / M.E. 1992

- IV. 5. *“Klaudio Otaegi (1836-1890)”*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez, Iñaki Rezola.
6. *“Migrazio mugimenduak Olaberrian”*. Arkaitz Arruabarrena. Goierriko Euskal Eskola / Maizpide Euskaltegia / Lazkaoko Udala, 1993

- V. 7. *“Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctriña Guztiaren Esplicacioaren Sayaquera (1858)”*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez, Iñaki Rezola.
8. *“Sasieta Mankomunitatea, zabortegi kontrolatua”*. Garai Arruabarrena. G.E.E. / M.E. / L.U., 1994

- VI. 9. *“Goierriko euskara”*. Joxe Migel Azurmendi.
10. *“Karobiak Ataunen”*. Nekane Urdangarin, Leire Munduate.
11. *“San Adrian eta inguruen kondaira”*. Xabier Azurmendi. G.E.E. / M.E. / L.U., 1996

- VII. 12. *“Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko idazle ezezaguna”*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez, Iñaki Rezola.
13. *“Zegamako euskara”*. Joxe Migel Azurmendi. G.E.E. / M.E. / L.U., 1998

- VIII. 14. *“Jose Otxoa Arin (1672-1743), gipuzkera literarioaren aitzindari”*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola.
15. *“Frantzisko Areso Tolosa (1869-1954), euskal etnomusikari berreskuratua”*. Nerea Muruamendiaraz Aranburu.
G.E.E. / M.E. / L.U., 1999
- IX. 16. *“Goierriko hizkeraren kokapenerako. Goierriko hizkera toloserriko hizkerarekiko harremanetan: zenbait ezaugarriren nolakotasunaz eta hedaduraz”*. Irene Hurtado Mendieta.
G.E.E. / M.E. / L.U., 2001
- X. 17. *“Bisoi europarra (Mustela lutreola, L.), mundutik desagertzeko arriskuan dagoen karniboroa Goierriin”*. Iñaki Irizar, Jorge Gonzalez, Idoia Villate, Nere Amaia Laskurain.
G.E.E. / M.E. / L.U., 2003
- XI. 18. *“Zergatik euskaraz. Goierriko euskaltegietakoko ikasleen motibazioak. Ikerketa psikosoziolinguistikoa”*. Maite Otegi Jauregi.
G.E.E. / M.E. / L.U., 2006
- XIII. 19. *“Eta gerra etorri zen. 36ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan”*. Ainara Gorostitzu Mujika eta Nerea Elias Mujika.
G.E.E. / M.E./ L.U. 2008
20. *“Goierriko egitura industrialaren erradiografia”*. Jone Ormazabal Zabaleta.
G.E.E. / M.E./ L.U. 2008

NEREA ELIAS MUJICA (Ataun, 1980)



AINARA GOROSTITZU MUJICA (Ataun, 1981)



